

Igandea

berria
2011ko otsailaren 20a

21 Txina eta Afrika Elkarrengandik hurbilago
30 AEBak Gerrikoa estutzeko garaia da
32 Euskotren Itxura berriko lehen trena, prest

Nork hil zuen Begoña Urroz?

Donostian 1960an izandako atentatua ETak egin zuela dioen hipotesia zabaldu da berriro. Ez dago, ordea, ETA izan zela baieztatzeko daturik.

1960ko ekainaren 27an hil zuten Begoña Urroz 22 hilabeteko haurra, Donostiako Amara zaharrean zegoen FEVEren geltokian eginiko atentatuan. KUTXA FOTOTEKA



Urteak betetzean...
Dibertitu **Zientzia**rekin

Urtebetetze-festa
ahazteztina!

7,5 €
haser baliotzekin

www.kutxaespacio.es - 943 012 478

 ZIENTZIAREN KUTXA GUNEA
KUTXA ESPACIO DE LA CIENCIA

 gizarte
kutxa
argandik argana



2010eko ekainaren 27an Terrorismoaren Biktimen Egunaren harira Espainiako Kongresuan eginiko ekitaldia. ZIPI / EFE

Ainhoa Olartzabal

Iaz, Martxoaren 11ko Madrilgo atentatuaren biktimak omentzeko ekitaldi ofizialean, izendatu zuen Espainiako Diputatuen Kongresuak ekainaren 27a Terrorismoaren Biktimen Eguna. Ondokoa da egun hartako ekitaldian Kongresuko presidente Jose Bonok irakurri zuen adierazpen instituzionalaren pasarterik esanguratsuena: «1960ko ekainaren 27an, duela 50 urte, ETak lehendabizikoz hil zuen. Haren biktimia Begoña Urroz izan zen. Mundu guztiak jakin behar du, eta inork ez du bazter utzi behar, ez Espainian ez Espainiatik kanpo, ETaren lehen biktimia 22 hilabeteko haur bat izan zela [...]. Hori hain esanguratsua eta nabarmena da, agerian jartzen du gaizkile taldearen moraltasun gabezia eta dolorkeria».

Adierazpen horrekin, Espainiako Kongresuak ETaren lehen biktimia Begoña Urroz izan zela ofizial egin zuen, eta handik hiru hilabetetara eta izendaturiko egunean ospatu zuten Kongresuan bertan Terrorismoaren Biktimen Eguna, Espainiako erregerregimen gidaritzapean eta hainbat erakunde instituzionaletako ordezkarien eta biktimia elkarteen parte hartzearekin. Bestek beste, Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan zen han.

Aste honetan, berriz, Lasarte-Oriako Udalak *Ausencias* liburua kaleratu du udalaren 25. urteurrenaren harira. Liburuan, «ETak eraildako eta Lasarte-Oriarekin loturaren bat zuten» zortzi biktimari buruzko datuak eta haien senitartekoren gogoeak bildu dituzte. Zerrendako lehenengoa, Begoña Urroz da. Aipatu liburuan, Espainiako presidentek, Espainiako Kongresuko eta Senatuko presidentek, Eusko Jaurlaritzako lehendakariak eta Gipuzkoako ahalzun nagusiak idatzi dute beste batzuen artean. Eta Patxi Lopezen idatzian liburuan bildu dituzten zortzi pertsonak ETak hil zituela ageri da.

Jaurlaritzak, kontraesana

Espainiako Kongresuko presidentek eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Urrozen hilketa ETari egotzi dioten arren, *Igandea*-k ez du topatu 1960an Donostiako Amara zaharreko FEVEren geltokian izaniko atentatuaren egiletza ETarena dela esaten duen agiri ofizialik. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren menpeko Terrorismoaren Biktimen Laguntzeko Zuzendaritzaren webgunean, *Egileen deskribapena: determinatu gabe* esaldia ageri da Begoña Urrozen atentatuari buruz. «Ez dago besterik esateko», azaldu du Txema Urkijo Biktimen Arretarako Bulegoa aholkulariak: «Ez dago nahiko

Egia: lehen biktimia

Begoña Urroz haurra ETak hil zuela adierazi dute Espainiako Kongresuak eta Lasarteko Udalak. Hainbat historialarik eta ETako lehen kideek ukatu egin dute.

elementu atentatua ETari egozteko. Elementu berriak agertzen direnean egotziko zaio, dela ETari dela besteren bati, baina oraingoz ez dago halakorik», gaineratu du. Haren esanetan, bi sektore daude kasu honetan; nola edo ahala atentatu hau ETari leporatu nahi diona bata; eta jarrera eszeptikoagoa duena bestea. «Gu ez gaude ETari leporatzen setatutako sektorean». Dena dela, Espainiako Kongresuak ekainaren 27a, Begoña Urroz hil zen eguna, Terrorismoaren Biktimen Eguna izendatzea ongi dagoela deritzo: «Haur hori bomba baten ondorioz hil baitzen, eta, beraz, biktima da. Badago egun horren izendapena justifikatzeko nahikoa arrazoi; nekez eztabaidatu daiteke ez dela terrorismoaren biktima».

Herrizaingo Sailaren datua egiaztatzeko, Espainiako Barne Ministeriora jo du *Igandea*-k. Haien webgunean ez da Begoña Urroren izenik ageri biktimen izenen artean, eta ez dago 1960ko atentatuen informaziorik. Gainera, 1968. urtea da ETak eragindako hildakoen estatistika datuetan azaltzen den lehendabiziko urtea, eta urte hartan bi biktima izan zirela dio, izenik zahaztu gabe.

Biktimen izen-abizenen zerrenda azken hamar urteotakoa da soilik; 2000tik 2010era artekoa. Aurreko urteetako ETaren atentatuetan hildako biktimen izenen bila joateko Guardia Zibilarren lotura klikatu behar da, eta bertan, hildako guardia zibilien izenak ageri dira bakarrik. Horrela, 1968. urtea da atentatu bati buruz informazioa lortzeko aukera ematen duen urterik zaharrena, Jose Pardines guardia zibila hil zuten urtea.

ETak hildako biktima guztien izen-abizenen zerrenda eskatzeko eta 1960an Begoña Urroz hil zuten atentatuari buruz galdegiteko Ministerioaren prentsa bulegora deituta, daukaten informazioa webgunean ageri dela adierazi dute.

«Alkateak ez du inolako adierazpenik egingo»

Terrorismoaren biktima eta bertakoa zelako egin zion iazko otsailaren 15ean lehendabizikoz omenaldia Lasarte-Oriako Udalak Begoña Urrozi eta haren familiari —Espainiako Kongresuko adierazpena eta handik eratorritako Terrorismoaren Biktimen Egunaren aurretik, beraz—.

Urrozi ez ezik, ETak hil edo zaurituriko eta Lasarte-Oriarekin lotura zuten beste hamar laguni egin zieten omenaldia. Dena dela, udaletxearen atarian egun horretan biktimen omenez jarritako plakan «terrorismoaren biktimak» aipatzen dira, oro har. Ez da ETaren aipamenik ageri.

Gauzak horrela, omendu guztiak ETak hildako biktima legez



Lasarte-Oriako Udalak, iaz, Begoña Urroren eta ETak hil edo zauritutako beste hainbat pertsonaren omenez egindako ekitaldia. TXINTXARRI



Baleren Bakaikoa, 1960ko ekainaren 27an Donostiako Amara zaharreko geltokiko leherketan zauritu zen pertsonetako bat. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

omendu ote zituzten ziurtatzeko eta batik bat Begoña Urroz ETaren biktimatzat jotzen duten galdegiteko Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballosekin [PSE-EE] hitz



«Elementu berriak agertzen direnean egotziko zaio, dela ETari dela besteren bati»

TXEMA URKIOJO
Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako Bulegoko aholkularia

«Nire familia nahikoa politizatua izan da, baina inoiz ez zuten aipatu ETA izan zitekeela»

BALEREN BAKAIKOA
Donostiako Amarako leherketan zauritua

egiten saiatu da *Igandea*. «Alkateak ez du inolako adierazpenik egingo» izan da udalean jaso duen erantzuna. Asteon udalak argitaratutako *Ausencias* liburuan, ordea, izenpetu egiten du Urroz dela ETaren lehenengo biktima.

Zaurituen testigantza

«Niri ez dit inork esan ETaren biktima naizela». Baleren Bakaikoa (Berastegi, 1945) ekonomian katedradunak eta EHUKo irakaslea ez du 1960ko ekainaren 27an jasandako atentatuagatik inolako merezimendu ofizialik jaso. Donostiako Amarako geltokian kontsignetan eztanda egin zuen

lehergailuak zauri arinak eragin zizkion orduan 15 urte zituen Bakaikoari. Leherketa berean zauritu zen Lasarte-Oriako Begoña Urroz 22 hilabete haurra, eta biharamunean hil zen. Haiekin batera beste lau lagun zauritu ziren leherketa hartan.

«Arropaz beteriko boltsaren bila joan nintzen kontsignara. Hura hartu eta etxera nindoan, Errenteriako familiarekin egun batzuk pasatu ostean. Kontsignara hurbiltzean, ordea, eztanda handi bat gertatu zen; ez dakit ni nengoen tokitik zenbat metrotera izan zen, baina harrapatu ninduen. Kea-eta hasi zen». Bakaikoak ez zuen korderik galdu; zauri arinak izan zituen: «Ilea pixka bat erre zitzaidan, besoetako batean azala gorritu zitzaidan, eta ebaki txiki bat izan nuen [beso ezkerre erakutsi digu]. Baina jada ez dut markarik», dio.

Berehala, geltokiaren ondoko sorospun gunean artatu zuten, eta handik Errenteriara itzuli zen, «anaia-eta bertan bizi baitziren». Gogoan duenez, Polizia joan zitzaion Errenteriara galderak egitera, baina ez zioten informazio gehiagorik eman.

Atentatu hura frankisten arteko liskarren ondorioa izan zelakoan konformatu zen Bakaikoaren familia: «Nire familia nahiko politizatua izan da, baina inoiz ez zuten aipatu ETA izan zitekeela; garai hartan ETA ez zen ezaguna. ETA ezagun egiten hasi zen han-

1960ko leherketak

Ekainaren 26a

20:20 1

Bartzelona-Madril ibilbidea egiten ari zen tren-furgoian, Quinto geltokiaren parean (Zaragoza, Aragoi). Maleta batean zegoen lehergailu batek ekipajea eta furgioa erre zituen.



Ekainaren 27a

08:00 2

Bartzelona Nord-eko geltokiko kontsignan lehergailu batek egin zuen eztanda. Ekipajea erre zen.

17:25 3

Donostiako Norteko geltokian (egungo Renfe) beste lehergailu bat lehertu zen.

19:00 4

Donostiako FEVEren Amarako geltokiko kontsignan laugarren lehergailua lehertu zen (egungo Euskotrenen geltokiaren ondoan, Easo plazan). Sei lagun zauritu zituen, eta horietako bat biharamunean hil zen: Begoña Urroz 22 hilabete haurra.

Ekainaren 29a

08:30 6

Bilboko Abxuriko geltokian maleta batean zegoen lehergailua lehertu zen, eta ekipajearen zati bat erre zuen.

ITURRIA: LE MONDE, DIARIO VASCO, LA VOZ DE ESPAÑA.

dik hiruzpalau urtera. Gure aitaren, osabaren eta lehengusuaren bertsioa zen frankisten arteko kontu garbitze bat izan zela. Hori ondorioztatu zuten».

Bakaikoaren arabera, Francoren gobernuan izandako aldaketen ondorioa izan zitekeelauste zuten orduan: «Garai hartan sar-

tu ziren Opuseko kideak Francoren gobernuan. Teknokraten gobernu izan zen, eta falangisten kontrakoak ziren. Gauzak horrela, boteretik bazterrarazitako falangisten adar batzuk haserre egotea posible zen».

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

04 'Begoña Urroz afera'

(Aurreko orrialdetik dator)

Atentatua igaro eta urte batzuen buruan militantzia politikoan jardun zuen Bakaikoak. ETAn aritu ote zen gaudetuta, «orduan dena zen ETA», erantzun du; hots, frankismoaren aurka eta euskara eta euskal kulturaren aldeko mugimendua ETAn ingurumarian kokatzen zirela. Militantzia horren ondorioz, Donostiako Martuteneko kartzelan egon zen preso hilabete batzuetan 1968an. Bertan, Xabier Baraño ETako buruzagietako batekin egon zen: «Harekin ETaren historia, Euskal Herriko historia eta abar aztertzen genituen, eta hark ez zuen inoiz halako gertaerarik aipatu. ETaren lehenengo heriotza [Jose] Pardines zela esaten zen».

Sei leherketa hiru egunetan

Bakaikoazauritu eta Urroz hil zen leherketa hura ez zen egun horietan gertaera bakartu batizan. Garaiko Euskal Herriko prentsako kronikek, artikulu berean esplikatzen dituzte 1960ko ekainaren 26 igandean eta 27 astelehenean Donostiako Amara eta Norteko geltokietan, Bartzelonan, Madrilen eta bi hiri horien arteko ibilbidea egiten ari zen beste tren batean eztanda egin zuten bost lehergailuen nondik norakoak. 48 orduren buruan, 29 asteazkenean, beste leherketa bat izan zen Bilbo-ko Atxuriko geltokian.

Espainiako Gobernazio Ministerioaren oharriari bide emanez, «atzerriko elementuei», egotzi zizkien lehen bost leherketak 1960ko *El Diario Vasco* egunkariaren ekainaren 28ko zenbakia: «Gertaera horiekin atzerriko elementuak, separatista eta komunista espainiarrek lagunduta, etengabe aldarrikatzen ari diren kontsigna terroristak bete nahi izan dira».

Hurrengo eguneko *El Diario Vasco*-ren zenbakian, Amarako leherketan larri zauritutako Begoña Urroz haurra hil egin zela atera zuten azalean, eta uztailaren 1ean, berriz, hiletaren berri eman zuten; azaleko argazkian, Jose Maria del Moral gobernadore zibila ageri da Urrozen familiartekoak agurtzen.

Espainiako Gobernazio Ministerioak ekainaren 27ko datorekin komunikabideetara bidali zuen oharrean kronologikoki azaltzen dira 1960ko ekainaren 26 eta 27 egunen artean lehertu ziren bost bonbei buruzko azalpenak, atentatu sorta berean kokatuz: «Atzo 20:30ean, Bartzelona-Madril posta trenaren furgioan, Quintoko eta Pinar del Rioko geltokien artean, lehergailu bat zeraman maleta batek eztanda egin zuen». Lehergailuaren eztanda furgioa eta bertako bagajea erre zituela gaineratzen du. «Gaur zortzie-

1960ko ekainaren 29an, DRILi egotzi zizkien leherketak *Le Monde*-k. BERRIA

tan», jarraitzen du, «Bartzelona-ko Norteko geltokiaren kontsignan maleta batean zegoen beste lehergailu batek egin du eztanda». Lehenago han utzitako maleta zela zehazten du, «eta horrek ere lokala erre eta bertako bagajea erre dituzte».

Ondoren, eta leherketen ordenari eta kronologiari jarraituz, Donostiako bi leherketen azalpe-

Begoña Urrozen izena ez da ageri Espainiako Barne Ministerioaren webguneko zerrendetan

EAJk bi hipotesi izan zituen egiletzari buruz: DRIL eta Francoren Polizia bera

Amarako leherketa «atzerriko elementuei» egotzi zien Francoren Gobernuak, 1960an

na dator Ministerioaren oharrean: «17:25ean (ekainaren 27ko arratsaldean) maleta barruan zegoen lehergailu batek eztanda egin du Norteko geltokian [egungo Renferen geltokia]». *El Diario Vasco* egunkariak beste zenbait elementurekin janzten du leherketa horren kronika: «Leherketak aretoko kristalak hautsi zituen [...] Sute txiki bat ere eragin zuen, eta suhiltzaileek itzali behar izan zuten». Kontsignako arduraduna zauritu zela ere ageri da kronikan.

Ondoren, Amara zaharreko

FEVEren geltokiko leherketari buruz ematen ditu Ministerioaren agiriak azalpenak: «19:10ean, Donostiako Amarako geltokiko kontsignan, ezaugarri antzekoak dituen beste leherketa batean sei lagun zauritu dira». Horren ondorioak larriagoak izan zirela gaineratzen du *El Diario Vasco*-k: «Jende asko baitzegoen itxaron gelan eta kaskoteak eta sugarrek jende asko harrapatu zuten». Leherketari buruzko xehetasun batzuk eman eta gero, honela jarraitzen du kronikak: «Baina benetan penatzekoa da sei lagun mundu baitziren». Haietako bat, hain justu larrien zauritu zena, ume bat zela azaltzen du. Ondoren, sorospengunean artatutako sei zaurituen berri ematen du zehatz-mehatz, izen-abizenak eta guzti.

Ministerioaren oharra egun hartan Madrilén gertatutako azken leherketarekin bukatzen da. Honela: «Azkenik, Madrilgo Norteko geltokiaren kontsignan antzeko beste bonba bat lehertu zen». Ez du azken leherketa horren ordurik zehazten.

DRILen egileza

Frantziako *Le Monde* egunkariak ere eman zuen berria ekainaren 28ko zenbakian. Espainiako Ministerioaren oharra bere horretan argitaratu zuen, beste zehatzasunik gaineratu gabe, eta *El Diario Vasco*-n bezala, ustezko egileei buruzko azalpenak ere ekarri zituen, Ministerioak helarazi bezala.

Baina hurrengo egunean, ekainaren 29ko zenbakian, *España* zintaren azpialdeko berria, bez-

perako atentatuak DRIL Directorio Revolucionario Iberico de Liberación «sare antifran-kistak» eginikoak direla zehaztu zuen. Espainiako Poliziaren iturria aipatuz, Bartzelonako, Madrilgo eta Donostiako leherketak atentatu kate berean lotzen ditu kronika horrek, eta DRILi buruzko zehaztapenak ematen ditu: «Espainiako Poliziarentzat igandean eta astelehenean Bartzelonako, Madrilgo eta Donostiako geltokietan lehergailuekin izaniko atentatuak DRIL izeneko sare batek dira. Kubako terroristek osatua da, eta Frantziaren du kuartel nagusia». Sarearen antolatzailea Espainian jaiotako kubatar bat zela dio *Le Monde*-ren artikuluak: Santiago Martínez Donoso.

Informazio horrekin batera, 1960ko otsailaren hondarretan Madrilén izaniko beste bi leherketen berria eta hari buruzko informazioa gehitzen du *Le Monde*-k: «Otsailaren 21-22ko zenbakian, *Le Monde*-k zioen zaila zela DRILera-kundearen benetakotasunaz hitz egitea. Baina oraingo informazioek ez dute zalantzarik uzten Franco eta Salazarren erregimenen kontrako altxamendu bat dela [...] Frantziaren uste da erbestean dauden Espainiako buruzagi anarkista ohiak eta ezker muturreko gazteak direla DRILeko kideak... —eta ez Madrilgo poliziak diren bezala xaxatzaille kubatar—, Europako hainbat hiriburuarekin dituzte loturak, batik bat Bruselarekin eta Erromarekin, baina ez dago daturik DRIL Espainiko alderdi komunistarekin lotzeko».

EAJren susmoak

Le Monde-k bezala, United Press International agentziak zabaldu-tako albisteak DRIL erakundeak eginiko atentatuak zirela zioen. Agentzia horren informazioa zabaldu zuen EAJren aldizkari ofizialak, *Alderdi*-k, 1960ko uztailaren 1ean. Euzkadi Buru Batzarrek hizpide izan zituen atentatuak, eta bileraren aktan jasotzen denez, EAJrekin harremanik ez zuten gertaerak zirela adierazteko oharra argitaratu edo ez eztabailek zuten, baina azkenean ezer ez argitaratzea erabaki zuten. Baina berria emateko orduan alderdiaren kontraktasuna nabarmen-tzea proposatu zuten; izan ere, atentatuaren egileak poliziak ziren susmoa zegoen.

EAJk bi hipotesi zituen egiletzari buruz; batetik, United Press agentziak esan bezala, DRIL izan zela, eta, bestetik, Francoren Polizia bera izan zitekeela. Horrela zioen Euzkadi Buru Batzarreko bileran parte hartu zuen *Astiz*-ek: «[...] komunistei eta separatistei egotzen zaie atentatua; halako

1962an 'ABC'-k DRILekin lotu zuen Urrozen hilketa

→ Espainiako eta Euskal Herriko prentsak ez zuten egiletzari buruzko datu zehatzik eman; 1960ko heme-rotekan *Igandea*-k ez du aurkitu DRILen izenik. Bai, ordea, handik bi urteko hemerrotekan: *ABC*-k orduan egotzi zion DRILi Donostiaren 1960an izaniko atentatua. 1962ko abenduaren 2an Donostian, Madrilén, Valentzian eta Lisboan izan ziren leherketa batzuen harira, *Gratitud a los petardistas* (Esker ona petardozailei) izeneko analisia eman zuen argitara abenduaren 4an. Analisisiak DRILen aipamena egiten du, eta dio: «[...] bere azken ekintza gogoangarrien artean dauka Gipuzkoako ume baten heriotza eta itsutasuna eta Madrilgo agure baten heriotza, biak lehergailuen eztanda eragina».

adierazpenak egiteko oinarriak dituztelako izango da, eta horiek azaldu beharko lituzkete, Polizia bera izan den susmoa ezabatze-ko». Esaterako, Ipar Euskal Herrian zegoen Jesus Solauñ EAJko zuzendaritzako kideari honela jarri zioten Hego Euskal Herrian idatzitako gutun batean: «Lehergailuak. Egunkariak esan bezala gertatu da dena. Eta jendea ez dago pozik, ezta gutxiago ere. Komentarioak urriak dira, eta ez dira batere beroak. Ez dira izango horiek hau prestatzen ari direnak? Jendeak hori dio, falangistek egotzi bai bonbak bai postaz Alderdi Komunistaren izenean jasotzen ari diren orriak. Oso esanguratsua da Madrilék ordu gutxiren buruan leherketa guztien berri eman izana. Eta haiek berak izanez gero terroristak, zein helburrerakin? Neurri zorrotzagoak hartzearen? Dena izan daiteke».

Berdintsu zioen OPE erbesteko Euzko Jaurlaritzak ateratzen zuen eguneroko boletinak, 1960ko uztailaren 1ean: «Jende askok galdetzen du nondik datozen eta noradozen modu hauek, eta ez da falta harritu denik Polizia frankistarekin. Izan ere, hain eraginkorra eta bizkorra den Poliziak ez du oraindik geltokian lehergailuak jartzen aritu den inor atxilotu».

Infiltratuak protagonista

Polizia frankistek eginiko atentatua izan zeneko susmoak gaur arte iraun du. Baleren Bakaikoa atentatuan zaurituaren eta haren familiaren artean, esaterako. Halaber, Iñaki Egaña historiala-

riak eta *Igandea*-ren kolaboratzaileak *Gara*-n berriki idatzi du —2010eko abenduaren 18an— Espainiako Poliziarentzat lan egiten zutenen ekintza izan zela zela Amarakoa. DRILek 1960ko ekainean hainbat hiritan egiteko diseinaturiko atentatuen kateko beste leherketa bat izan zela dio, baina Begoña Urroz hil zuen atentatuaren prestaketan polizia infiltratuek hartu zutela parte zehazten du. Haietako bat, Santiago Martínez Donoso; *Le Monde* egunkariak argitara eman zuen DRIL sarearen burua bera.

«DRILen hastapeneko garai hau pixka bat iluna da; infiltratuak baitzeuden. Gutierrez-Menoyo egungo Kubako disidente ezaguna, besteak beste», azaldu dio *Igandea*-ari Xavier Montanya (Bartzelona, 1961) kazetariak eta *Pirates de la llibertat* (Askatasunaren piratak) liburuaren egileak. Aipatu liburuan jaso du Espainian eta Portugalen indarrean zeuden diktaduren kontra 50eko hamarraldiaren hondarretan erbestean sortu zen DRIL erakunde antifrankista armatuaren historia labur bezain bizia.

Montanyaren arabera, Kuban oso egoera bitxia zegoen garai hartan; iraultza gertatu berritan, herrialde orok bidali edo lortu zituen espioiak han, bertako mugimenduak gertutik kontrolatzeko. «Eta iraultzaren mozkorraldian ez zen hain zaila infiltratuak paratzea garaiko mugimendu eta erakunde berrietan». Horrela sartu ziren DRILen Espainiako Poliziarekin lotura zuten infiltratuakubatarak; esaterako, Eloy Gutierrez-Menoyo —Kubako Direktorio Iraultzailearen kide izana— eta Abderraman Muley More *Manuel Rojas*. «DRILek gerora argitu zuenez, Manuel Rojas delakoa Francoren guardiako kide izan zen».

1960ko ekainean izandako atentatuen ondotik, Belgikako Liejan gertaturiko polizia sareak dak argi eta garbi utzi zuen Kubatik etorritako *laguntzaileak* infiltratuak zirela: Menoyoren proposamenari jarraiki, berak gidatzen omen zuen ELEren (Ejercito de Liberación Español) eta DRILen fusioaz hitz egiteko bildu behar zuten Liejan. Bilkura horretan atxilotu zituen Belgikako Poliziak DRILeko hamalau kide. «Espainiako enbaxadaren eskariz egin zituen atxiloteka horiek, sabotajeak egitea eta hilketa bat eragitea egotzita», argitu du Montanya, baina Belgikak ez zituela atxilotuak Espainiara estraditatu gaineratu du, eta gutxira Belgikatik kanporatu egin zituztela. Geroago, DRILeko buruzagietako batek Jorge Sotomayorrek (Jose Fernando Fernandez Vazquez) *Yo robé el Santa María* (Nik lapurtu nuen *Santa María*) liburuan argitu zuenez, Menoyok emandako informazioari esker gertatu zen aipatu sarekada.

DRILeko kideen balorazioa

01.



SANTA LIBERDADE FILMA

Jorge Sotomayor «Biktima errugabe bakarra izan zen»

→ Jose Fernando Fernandez Vazquez *Jorge Sotomayor* (1904, Galizia-1986, Venezuela) DRILek eginiko ekintza garrantzitsuenaren protagonista eta arduraduna izan zen 1961eko urtarrilean; *Santa María* transatlantikoaren bahiketaren buruzagietako bat. Sotomayor Espainiako Itsas Armadako kide izan zen Espainiako Errepublikara garaian, eta 36ko gerran gerrilla errepublikazaleekin jardun zuen borrokan. II. Mundu Gerran Frantzia jarduana, Auschwitzeko kontzentrazio esparrua ere ezagutu zuen. 1948an, Venezuelan erbesteratu zen, eta han sartu zen DRILen; zehazki, transatlantikoaren bahiketaren parte hartzeko. Haren ibileren eta, horrenbestez, DRILen historiaren berri emanez, 1971n eman zuen argitara *Yo robé el Santa María* liburu (Akal, 1978).

Bai liburu honetan bai haren eskuizribuekin duela gutxi Xurxo Martínez Crespo historialariaren eskutik argitara eman duten *A captura do Santa María. 24 homens e mais nada* (*Santa María*-ren bahiketa. 24 gizon eta besterik ez) liburuan (Abrente Editora), Sotomayorrek onartu egiten du 1960an hildako umearen atentatua DRILena dela. Lehen liburuaren ordea, hiriburuz nahastu eta Bilbon kokatzen du atentatua. Honela dio 86. orrialdean: «1960ko udan, Madrilgo ekintzetatik urtebete baino lehenago [1960ko otsailaren lehergaiak jarri zituen DRILek Madril], ondorio handiagoak izan zituzten sabotajeak egin zituen DRILek: zenbait probintzietako hiriburuetako tren geltoki batzuk su hartu zuten, baita Madril-Bartzelona bitarteko ibilbidea egiten zuen trenak ere. Baina oihartzunik handiena Bilboko geltokiko suteak izan zuen, amarengandik urrun zebilen bi urteko haur bat hil baitzen lehergaiak eztanda egin zuenean. Sabotajeek eragindako biktima errugabe bakarra izan

zen». Heriotza hura Donostian gertatu zela zuzentzera dator Sotomayorren eskuizkribuak argitara eman dituen bigarren argitalpena *A captura do Santa María. 24 homens e mais nada*. Eta, horrekin batera, atentatu horietan infiltratuek utzitako arrastoari jarraiki, Liejako atxilotetan gertatu zirela dio 8. orrialdean: «Tren geltokietan sabotatzeak egin zituzten komandoak Liejan [Belgikan] atxilotu zituzten. Francoren Poliziak ondo egin zuen lana, guk eginiko hutsegiteen ondorioz. Geroago jakin genuen hutsegite horiek nahita egin zituztela Kubatik etorritako probokatzaileek».

02.




SANTA LIBERDADE FILMA

Camilo Tavares Mortagua «Iraultzaile polemiko bati loturiko gertaerak dira»

→ Camilo Tavares Mortaguak DRILek eginiko ekintzarik garrantzitsuenen hartu zuen parte Jorge Sotomayorrek in batera: *Santa María* transatlantiko portugaldarraren bahiketa —irratiz mezuak emateko ardura izan zuen—. Portugalgo adarraren partaide zen. Hala, gerora, Portugalgo mugimendu iraultzaileekin eduki du lotura. Besteak beste, LUAR (Liga de Acción y de Unión Revolucionaria) erakundeko kide izan da, eta Portugalgo Khabelin Iraultzan ere esku hartu zuen. *Igandea*-k Donostiako atentatuaren egiletzari buruz eta Jorge Sotomayorrek eginiko aitortpenari buruz galdegin dio, baina Mortaguak ez ditu gogoan 1960an Euskal Herrian, Madril eta Bartzelonan izaniko leherketak: «Hainbat agiri topatu ditut, eta badirudi hipotesi hori baieztatzen dela [Sotomayorrek idatzi zuena, non Donostiako Amarako geltokiko atentatua DRILek egin zuela onartu zuen]. Dena dela, iraultzaile polemiko bati (edo salatzaile bati) loturiko kontuak dira: Gutierrez-Menoyo».

03.



SANTA LIBERDADE FILMA

Victor Velo «Ez zen egiaztatu DRILen ardura»

→ Direktorioaren ideologo eta sortzaile izan zen Pepe Velo zenaren seme Victor Velok, 17 urteko mutikoa zela hartu zuen parte *Santa María*-ren bahiketaren, 1961ean. Bahiketaren amaieran, Brasilen erbesteratu ziren bera eta haren aita, eta han bizi da harrezkerotik. 1960an Begoña Urroz hil zuten Donostiako atentatua DRILek ofizialki baloratu ote zuen galdetuta, ondokoa erantzun dio *Igandea*-ri: «DRILeko zuzendaritzaren agindu zehatzak ekintza krudelak ez egitea zen. Egunak eta toki geografikoaren gertutasuna bat datozen arren, ez zen egiaztatu DRILen ardura». Beraz, Donostiako Amarako atentatuaren ondorioa bere gain hartzeko daturik ez dagoela dio. Dena dela, egun horietan hainbat hiriburutan izaniko beste leherketak DRILenak izan zirela onartzen du.

Izan ere, haren aita Pepe Velok idatzitako komunikatua irakurri zuen atentatu katearen biharamunean Henrique Galvao DRILeko buruzagi eta aurpegi publikoak. Venezuelako Caracasen eman zuen prentsaurrekoa 1960ko ekainean, atentatuaren ostean. Iberiako errepublikak aldarrikatzeko aprobetxatu zuten prentsaurrekoa; euskar, galiziar eta kataluniar errepublikak aldarrikatzeko, besteak beste. Honela zioen orduko komunikatuaren pasarte batek: «DRILek Franco garaituko du, nahikoa gauza erraza, eta, gainera, frankismoa ezeztatuko du, nahiz eta oso erraza ez izan. Baina bere borroka eta garaipenekin erakutsi die erbesteko *gizongai*ei noraino iristen den beren miseria morala eta erbeste-ratu sena, gu nahita nahasteen terroriste-kin, edo Frankismoaren nahiz Salazarismoaren soldatapeko probokatzaileekin. DRIL erabat errepublikazalea da, eta ezta inon sinisten du, ez erlauntzan; hau da, herriaren errepublikaren aldeko errepublikazalea da, Iberiako nazioaren herriena, Iberiako nazio guztiena».

Erbestetik, Iberiako diktaduren kontra

Espainiako eta Portugalgo diktadurak eraisteko helburuz, Venezuelan bat egindako erbesteratuek sortu zuten DRIL erakunde armatua 1960an. 'Santa Maria' transatlantiko portugaldarraren bahiketa izan zen haien ekintza sonatuena, eta azkena.

A. Oñartzabal

Askatasunerako Iberiar Direktorio Iraultzailea, DRIL, erbestean sortutako erakunde iberiarra zen. «Espainiako erbesteratuek gobernuaren jarrera posiblisten kontra eta PCE Espainiako Alderdi Komunistaren politika ortodoxoen kontra zeuden erbesteratu galiziarren eta haien seme-alaben eskutik jaio zen DRIL», adierazi du Xavier Montanya kazetariak, eta 1958an Venezuelako diktadura eraitsi izanak eta 1959an Kubako Iraultza gailendu izanak eragin handia izan zutela dio.

Pepe Velo nazionalista galegoa (Celanova, Galizia, 1916-Sao Paulo, Brasil, 1972) izan zen DRILen ideologo nagusia. Gero gehitu zitzaizkion erakundeari Portugaldik erbesteratuak, Henriko Galvao militarra eta Humberto Delgado, Portugalgo Antonio Oliveira Salazar diktadorearen oposizio burua, besteak beste.

Veloren biografiaren egile Antonio Piñeiro kazetariak *Igandea*-ri azaldu dionez, iberista konbentzitua zen Velo: «Haren Iberiako errepublikan ideia Castelaoren pentsamendutik hartua da. Federalismoaren bidea urratu zutela esan daiteke». Baina portugaldarrak ere iberistak ote ziren ez dauka hain argi: «Momentuan ongi etorri zitzaizkion mugaz bestaldekoekin elkartzea, garaiko bi diktaduren aurka egiteko modu eraginkorra zela uste baitzuten».

Piñeirok dio Velok oso argi utzi zuela DRIL ez zela mugimendu terroristar bat, «diktadurak eraiste-

ko mugimendu bat zela zioen». Izan ere, PCEk garai hartan ekin-tzarik ez egitea erabaki zuen eta Franco hil arte itxarotea demokrazia ezartzeko. «Velok, ordea, ez zuen itxaron nahi, eta Portugalgo eta Espainiako erresistentzia modu aktiboan elkar hartuz gero Francoren erorketa azkartu zezaketela uste zuen».

'Santa Maria'-ren bahiketa

Ildo horretan, sekula egindako lehendabiziko bahiketa politikotzat jo daiteke DRILek 1961eko urtarrilaren 22an egindakoa. Ehunka bidaiari barruan zituela, Caracastik irtenda, eta Lisboatik pasatu ondoren, Vigora (Galizia) zihoan *Santa Maria* transatlantikoak bahitu zuten egun hartan


Bahiketak 13 egun iraun zuen, eta interes handia piztu zuen European nahiz AEBetan

Salazarren eta Francoren diktaduren aurkako 24 ekintzailek, bi erregimen horien aurkako salaketa munduan zabaltzeko asmoarekin. Bidaiari moduan sartu ziren ontzian ekintzaileak, eta ontziaren agintea hartzeko operazioan ofizial portugaldar bat hil zuten, tiroz.

Bahiketak hamahiru egun iraun zuen, eta interes handia piztu zuen European zein AEBetan. Portugal eta Espainiako agintariek ontzia bilatu eta hondoratzea zuten buruan, baina John Fitzgerald Kennedey AEBetako presidentek beste bide batzuk hobetsi zituen. Azkenean, AEBe-



'Santa Liberdade'. 1961eko urtarrilaren 22an bahitu zuen DRILek *Santa Maria* transatlantiko portugaldarra. *Santa Liberdade* izena jarri zioten, eta hamahiru egunez nazioarteko uretan ibili ziren ehunka bidaiari barruan zituztela. Azkenean, AEBetako armadarekin negoziatu zuten errenditzea.



Eskutitza. DRILek erbesteratuek zegoen Kataluniako presidenteari 1961eko irailean bidalitako gutun bat. Eskutitza igorri eta denbora gutxira desagertu zen DRIL.



Pepe Velo. BERRIA

Lehen atentatua eta lehen susmoak

➔ DRILen lehen atentatuak Madrilen izan ziren: 1960ko otsailaren 18an, Madrilgo udaletxean indar gutxiho lehergailu batek egin zuen eztanda. Ordu batzuen buruan, bigarren eztanda bat gertatu zen Falangeren egoitzatik gertu. Kasu horretan 27 urteko gazte bat larri zauritu zen, eta ordu gutxiren buruan, hil egin zen. Gazteak Jose Ramon Perez Jurado izena zuen, eta DRILeko kide zen. Egun berean beste lehergailu bat topatu eta indargabatu zuten Madrilen. Prado museoan zegoen. Eztanda hauen arduradun gisa, heriotza zigorra jaso zuen Antonio Abad Donosok, eta 30 urteko kartzela zigorra, berriz, Justiniano Alvarez Monterok. Abad Donoso 1960ko martxoaren 8an fusilatu zuten.

Atentatu horien ondotik, Santiago Martinez Donoso DRILeko kidea desagertu egin zen; Jorge Sotomayorrek bere liburuan idatzi zuenez, salatzailea baitzen. Perez Jurado gaztea haren erruzhil zela ere esan zuen.

tako eta Brasilgo agintarien parte-hartzea izan zuten negoziazio konplexuen ondoren. Janio Quadros Brasilgo presidentek babes politikoa eman zien bahitzaileei, eta, horri esker, Recife portuan jaitsi ziren ontzitik, erbesteraturik, baina espetxeratu beharrik gabe.

«Franco eta Salazarren erregimenak saiatu ziren bahiketa piraten ekintza legeaz saltzen, baina AEBk ikusi zuten bulkada politikoko bat, eta negoziatzera eseri ziren. Orduan, mami politikoa emateak ezbaian jarri zuen Espainia eta Portugalgo erregimenen legimitate demokratikoa», nabarmendu du Piñeirok. Baina,

idazlearen arabera, Galiziako eta Portugalgo DRILeko kideen artean diferentzia handiak zeudela argi gelditu zen *Santa Maria*-ren bahiketari; eztabaida besterik ez zuten izan elkarren artean Jorge Sotomayor eta Henriko Galvao bahiketaren bi buruzagiek. Bahiketa amaitu eta gutxira bukatu zen DRILen jarduna.

Oinarri historikorik gabeko hipotesia



Jose Pardines guardia zibilaren hileta. 1968ko ekainaren 7an hil zuen ETAk, aurrez prestatu gabeko tiroketa batean, Villabonan (Gipuzkoa). EFE

Berriki zabaldu dute, 'Vidas rotas' liburuan, 'Ausencias' Lasarte-Oriako Udalaren argitalpenean eta hainbat erreportajetan, Begoña Urroz izan zela ETAk eragindako lehen biktimak. Lehenago, Ernest Lluch politikari kataluniarrak leporatu zion heriotza hori ETari, hainbat artikulutan. ETak bera tiroz hil baino hilabete lehenago idatzi zuen azkena, 2000ko urrian.

A. Oiarzabal

Begoña Urroz da *Vidas rotas: todas las víctimas de ETA* (Bizitza apurtuak: ETaren biktimak guztiak) liburuan ageri den lehendabiziko izena. Lazko urtearen hasieran eman zuten argitara liburua Florencio Domínguez kazetariak eta Rogelio Alonso eta Marcos García Rey unibertsitateko irakasleek. Urroren hilketa urteetan DRILi egotzi zaiola diote liburuan. Halaber, atentatua ETak ez zuela inoiz bere gain hartu gaineratzen dute. Dena dela, 1992ko ETako buruzagitzari atzemandako kronologia batean Begoña Urroren izena ageri dela diote, baita Euskadi eta Askatasuna Txalapatark 1994an argitaraturiko bilduman zein *Egin* egunkariaren urtekarian ere. Honela interpretatututuzte *Vidas*

tas-eko egileek goian aipaturiko bi argitalpenak: «Biak ezker abertzalea deritzonari loturikoak dira, eta antzeko testu bat eman zuten argitara: ETArekin loturiko gertakarien kronologia bat da, eta Begoña Urroren heriotza ageri da, nahiz eta ez den zehazki esaten erakunde terroristaren atentatua denik».

Baina *Igandea*-k ez du aurkitu Euskadi eta Askatasuna bildumako lehen liburuen kronologian Begoña Urroz hil zen atentatuaren daturik. Gainera, atentatu horri buruzko aipamena liburuen 48. orrialdean dator, eta DRILek hil zuela zehazten du.

Hamar urtez ahaztua

Vidas rotas liburua argitaratu berriro, 2010eko urtarrilaren 31n *El País* egunkariak *La primera víctima de ETA* (ETaren lehen biktimak) erreportajea atera zuen.



Ernest Lluch. EFE

Erreportaje hark berretsi egiten du ETAk hil zuela Begoña Urroz haurra, eta, gainera, 1960ko ekainaren 26 eta 27an gertaturiko atentatu kate osoa ETak egin zuela iradokitzen du. Antzeko testua jaso dute asteon Lasarteko

Udalak argitaratu duen liburuan, *Ausencias*-en. Kazetariak familiaren bertsioa izan du oinarri, eta, batik bat, Ernest Lluch politikariaren hainbat artikulua.

Lluch (Bartzelona, 1937-2000) PSCko politikari ezaguna izan zen, eta, besteak beste, Espainiako Osasun ministroa izan zen 1982. eta 1986. urteen artean. 2000ko azaroaren 21ean ETAk tiroz hil zuen, Bartzelonan, etxeko garajearen atarian.

Lluchek aspaldi, duela ia 18 urte idatzitako artikulua batean, argitaratu zuen Begoña Urroz ETak hil zuen hipotesia. *La Vanguardia*-ren 1993ko abenduaren 16ko iritzi artikuluan esan zuen hori, eta ondoko zehaztu zuen: «ETak bilatu zuen lehen hildakoa ez zen Meliton Manzanas dokakabea». Jose Antonio Pagola orduan Donostiako bikario nagusia zenak 1992an ateratako liburu

bateko datu bat erabili zuen Lluchek bere hipotesia arrazoitzeko; *Una ética para la paz. Los obispos vascos 1968-1992* (Bakerako etika. Euskal gotzainak 1968-1992) liburuen 20. orrialdean ageri den ondoko oin oharra: «Badirudi ETaren ekintza terroristak baten lehen biktimak Begoña Urroz 22 hilabeteko Ibarrola haurra izan zela, 1960ko ekainaren 27an hila, Amarako (Donostia) geltokian jarritako lehergailu batek eztanda eginda».

ETA orduan hasi zela hiltzen dio beste behin Lluchek 1995eko otsailaren 9an, *La Vanguardia*-n

Urroren hilketa ETari egozteko, Pagolaren liburuko oin ohar bat baliatu zuen Lluchek

bertan, *Se liquidó a los GAL* (GAL likidatu zen) izenburuko artikuluan, eta oin oharrean Pagolak idatzitako berria «errebelazioa» dela zehazten du.

Bost urte ondoren, 2000ko irailaren 19an, *El Correo* egunkarian *La primera víctima de ETA* (ETaren lehen biktimak) iritzi artikulua argitaratu zuen. Bertan, Pagolaren oin oharretik abiatuta, Begoña Urroren atentatuari buruz eginiko ikerketaren berri ematen du Lluchek. Besteak beste, Lazkaoko beneditarren artxi-boan izan zela dio, baina han ez zuela atentatu hura ETarekin lotzeko dokumentaziorik aurkitu. «Ez dugu aurkitu ez Lazkaon ez argitalpenetan ETak 1960ko leherketak bere gain hartzen dituenik». Baina gaineratzen du: «Ezpero izatekoa da heriotza nardagarri batek diskrezio osoa eskatzea». Artikuluaren azken esaldian utzi zuen idatzita Lluchek bere tesia: «Hasiera mespretxagarria ETaren jatorrizko bekatuan». Eta ideia horrek eman zion izenburua hilabetera *La Vanguardia*-n argitaratu zuen iritzi artikuluari —*El pecado original de ETA* (ETaren jatorrizko bekatua)—. Bertan dio Pagolaren oharriari esker eginiko ikerketaren ondotik ETaren lehen hildakoa Begoña Urroz izan zela frogatu duela. Artikulu horrek Bartzelona Conde Fundazioak ematen duen sari bat jaso zuen 2002an: Godo saria.

Jose Antonio Pagola ■

«Nire tesia liburuaren testu nagusian dator: ETAk 1968an hil zuen lehendabizikoz»

A.Oiartzabal

Jose Antonio Pagola Donostiako bikario nagusia izan zen Jose Maria Setien Gipuzkoako apezpiku zen garaian (1979-2000). «Bikario nintzela, banuen Ernest Lluchekin harremana. Izan ere, Setienekin zeukan harremana. Nire liburua irakurri zuela esateko deitu zidan, eta galdegin: 'Zergatik esaten duzu hau?' [Begoña Urrozi buruzko oin oharra]. Nik erantzun nion Lasarte-Orian esan zidatela».

Pagolak *Igandea*-ri azaldu dioenez, bakeari buruzko hitzaldi bat ematera joan zen Lasarte-Oriara 1992. urtearen inguruan. «Hitzaldi horretan irten zen ETaren lehen hildakoa Jose Pardines izan zela [ETAk 1968ko ekainaren 7an aurrez prestatu gabeko tiroketa batean Villabonan hil zuen guardia zibila]. Eta orduan, ez batek bakarrik, oso zabaldua baitzego-

en herrian familiak hala esanda, ezetz esan zidaten, ume bat zela lehen hildakoa, bertakoa». Pagolak jasotako informazioaren arabera, 1960an Gipuzkoako gobernadore zibila zenak esan zion familiari ETAk hil zuela, «baina geroago esan omen zien, ez atentatu izan eta ondorengo egunetan».

Pagolak 1960ko hemerrotekara jo zuen informazio bila. «Eta ikusi nuen hori ez zela agertzen egunkarietan. Hala, nik ez nuen datu hori seguru bezala jarri. Orduan, ez dakit ondo dagoen, baina momentu horretan oin ohar hori idatzi nuen, baina *dirudienez* jarrita».

Horregatik deritzo Lluchek bere interpretazio propioa egin zuela bere oin oharra aintzat hartuta idatzi zituen artikuluetan. «Nik, *El pecado original de ETA* artikulua irakurri nuenean, ikusi nuen Lluchek bere interpretazioa egin zuela. Zeren Pagolak arrazoi



BERRIA

zuela esatean, zertan neukan arrazoi? Testu nagusian edo oin oharrean?». Pagolak azpimarratu duenez *Una ética para la paz* liburuko tesi nagusia liburuaren testu nagusian ageri dena baita: «ETA 1968an hasi zela hiltzen».

Izan ere, ETaren historiaren laburpena egin zuen Pagolak bere

saiakera liburuan. Eta ez da kasualitatea liburua 1968. urtean hasia: «Datu guztiek zioten ETaren lehen hildakoa Jose Pardines guardia zibila zela. Non hil zuten sartuta daukat buruan, egun horretan inguru hartatik pasa bainintzen».

Pagolak dio Lasarte-Orian eman zioten informazioa berria izan arren ez zitzaioala nahikoa pentsua irudituta bere tesi nagusia aldatzeko. «Liburuan jartzen dudan bezala, ekainaren 7an [1968an] hil zuen ETAk lehendabizikoz. Hori da nire tesia. Nik jendearen sentimendua jaso nuen soilik, baina ez nuen hori tesira eraman».

Lehenaren esanahia

Pagolaren ustez, Lluchek testua ez da historialari batena, «artikulista batena» baizik. «Eta interpretazio bat egiten du». Hain justu, Pagolaren iritziz, interpre-

tazio horrek hartu du indarra gerora. Baina berak liburuko tesiari eusten dio; 1968. urtean hasi zela ETA hiltzen. Izan ere, Pardines ez ezik, orduan hil zuen ETAk, propio prestatuturiko atentatu batean, Meliton Manzanasko polizia burua ere (abuztuaren 2an). «Hilketa honetan eman zuen pausoa ETAk. Pauso hori ematea kosta egin zitzaion orduko ETAkoei, familia katolikoetarik zetozen eta. Ez zegoen boluntario askorik», azaldu du Pagolak, eta nabarmendu du lehen hildakoa Manzanasko poliziararen inspektore «torturatzailer» izatea sinbologia handikoa izan zela. «ETaren historia honen hilketarekin edo haur baten hilketarekin hasia oso desberdina da. Eta interesak dauden bitartean, nik liburuan testu nagusian azaltzen dudana esiaz ahaztu egingo dira, eta oin oharra soilik aipatuko dute».

Pardines eta Manzanasko aurrenekoak

Historialarien arabera, ez da logikoa 1960ko atentatua ETarena izatea, erakundea sortu berria baitzen eta geroago hasi baitzen atentatuak egiten.

A.O.

Begoña Urroren atentatuaren ikerketan, Gurutz Jauregi zuzenbide konstituzionaleko katedradunarengana jo zuen Ernest Lluchek informazio bila. Jauregik *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968* (ETaren ideologia eta estrategia politikoa. 1959. eta 1968. urteen arteko eboluzioaren azterketa) liburuan aztertu zuen ETaren historia, baina Lluch bila ari zen 1960ko Donostiako leherketari buruz ez daukela informazio zehatzik azaldu dio *Igandea*-ri. «Ernest Lluchek galdetu zidan ea banekien zer bait atentatu horri buruz. Nire erantzuna haxe izan zen: badakit atentatu hori izan zela eta ETak egindakoa izango ote zen komen-

tarioak entzunda neuzkala. Besterik ez». Jauregik azpimarratu digu atentatu horri buruzko informazio zehatza izan balu hala aipatuko zuela ETari buruzko bere tesian. «Baina ez nuen inongo aipamenik egin liburuan, inongo datu edo konfirmaziorik ez nuelako aurkitu».

ETA erakundeak 1959. urtean —sortu zenean— hainbat adar antolatuta zituela dio Jauregik, eta horietako bat, seigarrena, militarra zela. «Hala ere, eta nire ustez, urte haietako ETaren bilakaera ideologikoa eta politikoa kontuan izanik, ez dirudi logikoa ETa atentatu horren egilea izatea». Jauregiren arabera, ETaren lehen atentatua 1961eko uztailaren 18koa da [soldadu ohien tren bat bidetik ateratzen saiatu ziren, Donostian], «eta

badirudi atentatu hori salbuespen bat izan zela».

Jauregiren tesia da borroka armatuaren arazoa 1961eko bukaeran hasi zirela planteatzen ETAn, «eta trenaren atentatuaren ondorioz sortutako frankismoaren errepresioarekin zerikusi zehatza du. Hortik aurrera, batez ere 1962tik aurrera, ia modu serio batean hasi ziren planteatzen borroka armatuaren beharra».

1968. urtea giltzarria

Francisco Letamendia Ortziz EHUko irakasle eta historialariak ETari buruz egin zuen, duela hogeitaz urte, doktore tesia: *Historia del nacionalismo vasco y ETA* (Euskal nazionalismoaren historia eta ETA). Han ageri denez, ETA sortu eta urte batzuk geroago izan ziren lehen ekintza armatuak. Halaber, Jauregik bezala, Ortzizren liburuak dio 1961ean Donostian trenaren kontra eginiko sabotaje saioa izan zela lehen ekintza antolatua.

Ortziz ere ez du topatu urtebete lehenago Donostian izaniko



Meliton Manzanasko polizia burua. 1968ko abuztuaren 2an hil zuen ETAk. EFE

leherketari buruzko dokumenturik. «Ni ez nintzen ETAk, baina historialari legez kontsultatu ditudan dokumentu guztietan ez da ageri ETAk atentatu hori bere gain hartu zuenik. Ondorioz, neurri berean, ez dago ETari atentatu hori egotzeko iturri dokumentaturik».

ETaren ibilbidean urte erabakigarria 1968. urtea izan zela jaso du Ortziz liburuan. Izan ere, urte

horretan hil zituen ETAk lehen lehenak. Aurrenekoa, Jose Pardines guardia zibila, ekainaren 7an Villabonan (Gipuzkoa); bigarrena, Meliton Manzanasko polizia burua, abuztuaren 2an, Irunen (Gipuzkoa). Lehenaren kasuan aurrez prestatu gabeko tiroketa izan zen. Meliton Manzanasko, ordea, aurrez prestatuturiko atentatu batean hil zuten, etxeko atarian, tiroz.

Ez gaitasunik, ez borondaterik

1960. urtean eta ondoko urteetan ETAn aritu ziren buruzagi eta militante ohiek ukatu egin dute Begoña Urroz hil zuen lehergailua eurek jarri zutenik. Diotenez, urtebete eskas zuen erakundeak, eta ez zuten ez baliabiderik ez pentsamendurik inoren kontrako atentatuak egiteko.

Ainhoa OIartzabal-Josu Chueca

ETaren sorrera 1959ko uztailaren 31n izan zela jaso da historiako hainbat liburutan, baina izen horrekin taldea osatzea lehenago erabaki zutela argitu dio *Igandea*-ri Julen Madariaga ETaren sortzaile eta buruzagi izanak (1932, Bilbo). «1959ko uztailaren 31ko data EAJ-ri bidalitako gutunean ageri den data besterik ez da, postan jarri zioten zigiluarena». ETaren sorrera eguna zehazterik ez dagoela dio, baina 1958. urte amaiera aldera izan zela gaineratu du.

«1959an, 40-50 inguru izango ginen», dio Madariagak militante kopuruaz galdeginda. Eta sortu berritan, ETaren seigarren adarra edo frontea deitu zitzaion atala antolatzeari ekin ziotela dio (Gogor taldea); hau da, borroka armatuaren adarra antolatzeari. «Behin haustura eta gero —EAJ-ren ingurutik aldendu eta EKI-Ne-kin amaitzea erabakita sortu zen ETA—, oso azkar egin genuen aurrera; hiru hilabetetan hiru urtean baino gauza gehiago egin genituen». Besteak beste, gorputza zaintzeko entrenamendu fisikoa egiten eta klandestinitate neurriei buruz informatzen hasi ziren.

Testuinguru horretan egin zituzten 1959. urtearen amaieran Bilbo, Gasteiz eta Santanderren lehen sabotaje probak. Bilbon adibidez, *Hierro* egunkarian eta Indautxuko poliziaren egoitzan, etxean eginiko indar gutxiko lehergailuak jarri zituzten. «Eta Santanderren ere jarri genuen [Aleria egunkarian]. Ekintza hori despistatzeko egin genuen, eta gure eremutik kanpo jokatu genuen aldi bakarrenetakoa izango zen». Leherketak bainoago, sute-

ak eragin zituzten aipatu eraikinetan.

Ekintza horiekin gauza berri bat bazetorrela ezagutarazi nahi izan zioten jendeari: «Hemen gaude» esateko modua zen, eta gero eta gogorragoa izango zela adierazi nahi genuen».

Ingurumari horretan, hau da, ETA sortu berritan eta euren ize-na ezagutarazteko lehen propaganda saioak egiten ari ziren garaian gertatu zen Donostian Begoña Urroz hil zuen leherketa. Madariagak, ordea, ez du gogoan. Era berean, nazioarteko prentsan atentatu horiekin lotu zuten DRIL erakundea hastapenetan ez zutela ezagutu dio, baina gerora baietz: «Haserre geunden haiekin, besteen oilategian sartu baitziren; hori ez da egiten erakunde iraultzaileen artean. Gogoan dut erreakzio txarra eragin zigula».

ETaren beste sortzaile Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillar-degi* (Donostia, 1929) ere ez da gogoratzen hirian duela ia 51 urte izaniko atentatuez. ETA erakunde sortu berria ez zela izan, ziur dio: «ETA garai hartan ez zegoen armatua. 1960an ez da posible ezer egitea. Meliton Manzanasko izan zen aurrenekoa», zehaztu du [Manzanas 1968ko abuztuan hil zuten].

Erakunde jaio berria

Txillardegi eta Madariaga bezala, Pontxo Iriartek (Arribe, Nafarroa, 1930) ETaren hastapenetan jardun zuen. EGitik ETara igaro zen, eta ondo gogoan ditu klandestinitatean jarraitu beharreko segurtasun neurrien zerrenda eta nola horrexek zenbaitzuei atzera eginarazi zien: «Alemaniatik hangor alderdi komunistak eginiko li-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)



1961ean, soldadu ohien trenaren kontrako sabotajearen ondoren, trenbideko torlojuak kendu zituzten. EUSKADI ETA ASKATASUNA

10 'Begoña Urroz afera'

(Aurreko orrialdetik dator)

buruxka bat ekarri zuten. Faxismoaren barruan lan egiteko liburu zen, eta hura itzuli, moldatu eta gure artean banatu genuen. Nik Andoain (Gipuzkoa) banuen pare bat lagun martxa hartzeko prest, baina liburua irakurritakoan atzera egin zuten. Ez zutela ezer jakin nahi esan zidaten». Dena dela, ez zen seigarren adarra edo Gogor taldea delakoaren kide: «Haiek arduratzen ziren banderak kentzeaz eta abar. Rafa Albisu, Imanol Azpiur, Felix Arrieta eta beste ziren ekintzaile talde horretakoak». Klandestinitateagatik, ez zekien ziur zein zegoen ETAn eta zein ez: «Hasieran, nik nekienez, behintzat, sei bat ginen gehienera hemen Gipuzkoa». Albisuz, gainera, Txillardegia, Patxi Iturrioz, Eneko Irigarai, Lopez Dorronsoro eta Joxe Antonio Lizarribarren izenak aipatu ditu.

«Ni ETA hasi baino lehenagotik nago, aurrena EGI eta gero EKI nengoen», azaldu dio Igandea-ri Joxe Antonio Lizarribarrek (Tolosa, Gipuzkoa, 1938). «Eta egia esatera, garai hartan bost axola zitzaizkidan izena. Mugimendu abertzale bat zen, eta izen bat izan edo beste bat berdin zitzaizkidan». Herriko bi mutilen bidez sartu zela esan du: «Abertzaleak ziren, zer bait egin nahi zuten, eta ez zuten ezer ikusten. Hala, Antonio Maria Labaien EAJko kidearen-



Haserre geunden haiekin [DRILEkoekin], besteen oilategian sartu baitziren»

«Soldadu ohien trenaren kontrako saioa izan zen lehen sabotaje planifikatua»

JULEN MADARIAGA
ETAko buruzagia ohia

«Asmoa soldadu ohiak beldurtzea zen, trenaren kontra atentatu bat jasan zutela sinetsaraztea»

PONTXO IRIARTE
ETAko hastapenetako kidea

«ETA garai hartan ez zegoen armatua. 1960an ez da posible ezer egitea»

J. L. ALVAREZ ENPARANTZA
«TXILLARDEGI»
ETAn sortzaileetako bat

gana jo zuten. Labaienek erantzun zuten itxaron behar zela, ez zegoela ezer egiterik, disparte bat zela ezertan hasia. Orduan Bilbora joan ziren, eta han ere gauza bera esan zieten EAJkoekin. Baina nonbaitetik lortu zuten ETArekin, bueno, ETA ez zen oraindik, baina besteren batzuekin elkarrekin. Gero biak baztertu ziren;



Francoren altxamenduaren 25. urteurrena ospatzeko, soldadu ohiz bete zen Donostia. EUSKADI ETA ASKATASUNA BILDUMA

kanpora joan ziren». Donostiako jendearekin jarri zen harremanetan Lizarribar, eta hitzaldiak ematea izan zen lehen egitekoa: «Hasieran hitzaldi irekiak ziren, eta gero, itxiagoak. Sabino Arana-ren teoriak eta liburuak, makinaz idatzitako dokumentuak eta abar ematen genituen». Azkenean, Gipuzkoako propagandako buru izan zen Lizarribar.

Iriarte ere ETAn propaganda taldekoa zen, eta, hitzaldiak emateaz aparte, «hautagaien» izenak hartu eta proposatu, jendearen mugimenduak kontrolatu eta horrelakoak egiten zituzten; informazioa eman eta bildu, alegia.

Baina Donostiako 1960ko leherketen buruz ez zuten ezer entzun: «Azkar ezkutatuta zuten, eta badi-rudi bazekitela zeintzuk ziren egileak [agintariak]». Lizarribarrek ere ez ditu gogoan leherketak, eta horrek ez du harritzen: «Gure gauza ez zelako. Ez zen gure istorioa».

Iriarte kartzelan zegoela enteratu zen Donostiako Amara zaharrean atentatu batean Begoña Urroz haurra hil zela. «1964 edo 1965 izango zen. DRILen berri orduan jakin nuen». Ume hura hil zuen bonbari buruz poliziek ez ziotela inoiz galdegin dio, bai, ordea, 1962an Donostiako Aieten Francoren kontra anarkistek paratu zuten beste bomba bati buruz. Hain zuzen, bomba horren «aitzakian» atxilotu zuten Iriarte bigarren aldiz 1962an, eta lau urtez eduki zuten preso Carabanchelgo espetxean.

Lizarribarrek argi du ETA erakunde sortu berriak ez zuela 1960-

1962 bitartean lehergailuekin ezer egiteko gaitasunik: «Ez zegoen ez armarik ez inor armak erabiltzen zekienik. Eta gero, mentalitate aldetik ere, ez zegoen batere landua».



60an ez zegoen ez armarik ez inor armak erabiltzen zekienik. Mentalitatea ere ez zegoen landua»

«Aramako elizan gorde ziren Gazteluko harrobitik lapurtutako 30 kilo dinamita 63an»

JOSE ANTONIO LIZARRIBAR
ETAko hastapenetako kidea

«Egunen batean pistolak hartuko dituzue!», esan zidan Manzanek 63an»

JOXE MANUEL ATXAGA
ETAko hastapenetako kidea

«Eskua jartzen dut sutan ez ginela gu izan. ETA izan balitz, jakingo nuen»

JOSE MARIA ESKUBI
ETAko buruzagia ohia

Iriartek berretsi egin du urte horietan ETak ez zuela ahalmenik bonbak jartzeko. «Orduko plana poliki-poliki sartzea zen. Ze pentsa zer exitoa izan genuen trenarekin...». Hain justu, soldadu ohiak betetako tren bat bidetik ateratzen saiatzeagatik atxilotu zuten Iriarte lehendabizikoz 1961eko udan.

1961: lehen sabotajea eta lehen sarekada

Donostiara Francoren altxamenduaren 25. urteurrena ospatzera zetozen soldadu ohien trenan bidetik ateratzen saiatu zen ETA 1961eko uztailaren 18an. «Hura izan zen lehen atentatu edo sabotaje saio planifikatua». Madariagak azaldu du Lopez Dorronsoro, Rafa Albisu eta ETAn seigarren adarreko beste zenbait aritu zirela trenan bidetik irteteko ekintza prestatzen. «Baina gure kezka nagusia inor ez hiltzea zen. Horregatik, tren mendiaren maldaren kontra iraultzeko moduan prestatu genuen ekintza», dio. Ekintza hala prestatzea, hau da, biktimarik ez eragiteko moduan, orduko mentalitatearen isla dela dio. Nahiz eta trenaren bidaiariak soldadu ohiak izan, haien kontrako sabotajearekin ez zuten min pertsonalik eragin nahi.

«Gure asmoa soldadu ohiak beldurtzea zen, trenaren kontra atentatu bat jasan zutela sinetsaraztea», dio Iriartek ekintza horren helburu nagusiari buruz. Trenbideko torlojuak kendu zituzten trenan geldiarazteko. «Baina egun horretan soldaduen tren bakarrak ez, guztira hamahiru tren pasatu ziren, inolako arazorik gabe. Ez zen tren bakar bat ere gelditu». Iriarteren arabera, halako ekintzak egiteko esperientzia falta agerian gelditu zen.

Egun berean, arratsaldean, Donostian zehar jarrita zeuden bandera espainolak erretzen aritu ziren hainbat etakide, eta ekintza horietan utzitako arrastoaren on-

dotik atxilotu zituzten bateren batzuk. «Desastre bat izan zen. Segurtasun neurriak ez ziren batera ongi bete». Madariagaren aburuz, erakunde klandestino hasiberriaren ajeak ziren.

1963tik aurrera, lehen pistolak eta dinamita

1961ean sartu zen ETAn —propagandaren eta diru bilketaren frontearen— Joxe Manuel Atxaga (Zizurkil, Gipuzkoa, 1932), eta handik bi urtera atxilotu zuten: «1963an dinamita lapurtu zen lehendabizikoz [Gazteluko harrobitik, Gipuzkoa] eta horregatik eta Izaskungo (Ibarra, Gipuzkoa) banderaren lapurretatik atxilotu ninduten, abenduan. Nik, ordea, ez nuen ekintza horietan parte hartu».

Lizarribarrek informazio zabaldua du Gazteluko dinamitaren lapurretaz; dinamita haren zati bat zertan ibili zen ere badaki. «Oso erraza izan zen lapurretara egitea, nagusia poztu eta guzti egin zen... Dezentek lapurtu zuten, 30 kilo inguru. Bizkarrean eta eramateko gaizki ibili ziren. Gero, Aramako elizan (Gipuzkoa) gorde zuten dinamita. Hiruzpatalu lagunen artean egin zuten lapurretara». Tartean, Juan Jose Etxabe zegoen.

Lapurretara gertatu eta astebete-ra, Zumarragan hutsik zegoen tren bagoi batean lehertu zuten dinamitaren zati bat. «Proba bat egiteko izan zen. Pelikuletan ikusten zena imitatuz, dinamita kartutxoak hartu, metxari su eman eta kito; horrela egin zen lehen leherketa». Baina ez zen ino-

ren kontrako atentatua edo sabotajea izan; dinamitarekin proba egin eta prentsaren atentzioa erakartzeko ekintza izan baitzen. Izan ere, ETArekin izena handiz margotu zuten leherketa izan zen tokian, jendeak eduki zezen leherketa egiteko gai zen erakundearen izenaren berri. «Gauzak egiteko presa zegoen, eta izugarritzko poza hartu genuen denok lehen-dabiziko aldiz *El Diario Vasco*-k eta beste egunkari batzuek ETA aipatu zuelako». Aramako elizan gorde zen gainerako dinamitarekin zer egin ez zekiela dio Lizarribarrek.

Errepresioaren eraginez eta atxilotuta sarekaden ondorioz, *koadroak* bakarrik gelditu ziren 1963ko ETAn. Orduan, gainera, Patxi Iturrioz liberatua atxilotu zuten Bilbon, eta horrek alarma guztiak piztu zituen ETAn: «Buruzagi nagusi bat izendatzea erabaki genuen», azaldu du Julen Madariagak. Bozketaren emaitzak beste baten alde egin arren, horrek uko egin zionez, azkenean Madariagak hartu zuen kargua, sei hilabetez. «Eta profitatu nuen buruzagi nintzela nire teoriak bultzatzeko». Hau da, borroka armatuaren erabilera azkartzeko. Madariagaren ustez, soluzio bakarra «eurak» bezala jardutea baitzen. «Borroka armatuari buruz ni nintzen kapitaina. Batzuek ez zuten nahi; tiraka eraman genituen», dio. Besteak beste, *La insurrección armada en Euskadi* (Altxamendu armatua Euskadin) idatzia kaleratu zuen urte horretan, eta III. eta IV. Asanbladen ondotik hasi ziren ofizialki borroka armatuaren jardunarekin. «Jada azpiegitura nahiko zabala bagenuen».

Baina oraindik ez zuten ez pistolarik ez armarik eskuratu. Horren erakusgarri da ondoko pasarteak: beste etakide asko legez, Meliton Manzanasek galdekatu zuen Joxe Manuel Atxaga, eta behin horrela esan omen zion: «'Egunen batean pistolak har-

tuko dituzue'. Zer esan nahi du horrek? Ba oraindik pistolarik ez genuela». Hau da, ez zutela armarik erabiltzen 1963an. Atxagak uste du 1964. urtetik aurrera hasiko zirela pistolak banatzen. Lizarribarrek zehaztu du 36ko gerrako armak biltzen ari zirela: «Leitzan (Nafarroa), adibidez, mandio batetik metraileta bat eraman zuten». Faxistei lapurtzea zen armak eskuratzeko bide bat; beste bat erresistentzian jardundakoei edota merkatu beltzean zebiltzan ei erostea.

Jose Maria Eskubi (Leitza, 1942) II. Asanbladaren ondotik sartu zen ETAn —1963an—. Buruzagietako bat izan zen ondoko urteetan, harik eta 1970ean ETA utzi zuen arte. «Bakoitzak lortzen zuen bere pistola, ahal zuen tokitik», dio hasieran eduki zituzten armei buruz. Bala eta armen bila, adibidez, Gorbela joaten zirela dio, han baitzeuden 36ko gerraz geroztik zenbait eskuzko bonba eta munizio. «Ez ginen oso armazaleak; ezin zen».

Kalte pertsonalik ez eragiteko ideiarekin jokatzeko zutela dio. 1968. urteko apirilaren 29an, Eibarren (Gipuzkoa), *El Correo* egunkariaren egoitzan jarritako lehergailua hartzea itzuli ziren etakideen kasua kontatu du, nola lehergailuak eztanda egin zien; horren ondotik atxilotu zituzten Patxi Jaka, Koldo Aizpurua eta Josu Ibargutxi [Ibargutxik *Igandea*-ri berretsi dio nola joan ziren jada lehertzeko prestatuturiko lehergailuaren bila eztanda ordua atzerakoasmoz].

Gauzak horrela, dio zortzi urte lehenago ezinezkoa zela geltoki batean lehergailu bat jarri eta eztanda egin zezen ustea. «Eskua jarzen dutsutan ez gine-la gu izan. ETA izan baitzuke jakingo nuen», adierazi du 1960ko Donostiako atentatuari buruz. «Atentatua ETArigotziz zabaldu diren berriak gezurra dira».

Mikel Azurmendi •
EHUko irakaslea

«Honezkero, ETA ez da gaiztoagoa egin ez duena egotzita»

A.O.

«ETako biktima elkarteetan eta terrorismoaren kontrako ekintzaile gisa, beti atentzioa deitu dit», esan dio *Igandea*-ri Mikel Azurmendi EHUko irakaslea (Donostia, 1942) Begoña Urroz ETArekin lehen biktimatzaletzat jotzen dutela eta. Gerora ETArekin kontrako elkarteetan jardun duen arren, 1965ean sartu zen Azurmendi ETAn, eta urte batzuetan bertako militante izan zen. Ez orduan eta ez gero, ez zuen inoiz Urroz hil zuten bonbari buruz

ezer jakin. Bonba hura beste zenbait bonbekin batera lehertu zela jakinda, «egileta faltsua» den susmoa berretsi egin duela dio: «ETAk ez zuen gaitasun operatiborik leherketa kate bat egiteko, ezta leherketa bakarria egiteko ere». ETArekin bonba izan balitz, jakingo lukeela dio, militante gutxi zirelako eta berriak jakiten zirelako.

Begoña Urrozen familiak bonba zeinek jarri zuen jakiteko eskubide duela dio. «Honezkero, ETA ez da gaiztoagoa izango egin ez duen ekintza bat egotzita».

Jose Felix Azurmendi •
Kazetaria

«ETA beti txarra izan den ideia zabaldu nahi da»

A.O.

Joxe Felix Azurmendi kazetaria (Gernika, Bizkaia, 1941) 1962an sartu zen ETAn, eta hurrengo urtean jada etxetik ihes egin behar izan zuela azaldu dio *Igandea*-ri. Hurrenagokoan, berriz, 1964an, Venezuelako erbesteratu zen, eta hamar urtez han bizitu zen. Handik bueltan, *Egin*-eko zuzendaria izan zen, baita *Deia*-ko zuzendariorde ere. Erretiratu arte EITBko Nazioarteko Zabalkundearen zuzendari kargua bete du.

Haren militantzia politikoa eta kargu profesionalak Euskal Herriko historia gertutik ezagutzera eraman dute, eta ez du zalantzarik ETArigotzen zaion 1960ko ekaineko Donostiako atentatuari buruz: «Argi dago gezurra dela». Haren ustez, oso erraza da gezurra dela erakustea, «baina batzuek ez zaie interesatzen». Azurmendiren arabera, Begoña Urroz ETAk hil zuela diotenek «gertu» dituzte konfiantzazko lagunak atentatuari buruz galdegiteko; «garai hartan ETAn baitzebiltzan hainbat». Ernest Llu-

chek aireratu zuen hipotesi horren helburua «ETA beti txarra izan da» ideia zabaltzea dela ditzio.

Azurmendik ez ditu gogoan 1960ko atentatuak, ezta nazioarteko prentsaren leherketen ardura-dun egin zuten DRIL erakundea ere. «Baina garai hartan ez zen harritzekoa hori». DRILen berri Venezuelako zegoela eduki zuen lehenengoz.

ETArekin hastapenak oso xumeak izan zirela dio, eta urte asko pasatu zirela hilketak egitea erabaki arte. «1968an hartu zen erabakia. Izan ere, behin borroka armatuaren bidean serio sartuta, horrek ez du atzera bueltarik». Ordu arte pintaketak eginen, panfletoak banatzen eta halako gauzekin nahikoa lan bazutela dio.

60ko hamarraldia hasieran polizia askoz ere serioago zebilela azpimarratu du, eta Boluetan (Bilbon) poliziak eginiko tiroketa jarri du adibidetzat: «Julen Madariagaren kontra egin nahi zuten tiro, baina nahastu eta Bilboko enpresari bat hil zuten. Gertaera hark argi utzi zuen polizia zer egiteko prest zegoen ETArekin kontratatu».

Hemeroteka

Nazioarteko
Harreman
Taldea

Laguntzaileak

Luis R. Aizpeolea
El País

Otsailaren 7an, Bilboko Euskaldunan egindako Sortu ezker *abertzalearen* alderdi berriaren estatutuen aurkezpen sonatutik oharkabean joan den gauzetako bat ekitaldiaren antolaketan izan zen. Ez zen ezker *abertzalearen* kontura joan. Alderdietatik independentea den, helburutzat Euskal Herrian bakea lortzea duen eta komunitate horretatik kanpora ezezaguna den Lokarri («Batzen duena») bakearen aldeko herri-tar taldeko kideek antolatu zuten, eta haiek aurkeztu zituzten Rufi Etxeberría eta Iñigo Iruin.

Eurak izan ziren nazioarteko laguntzaile —eta ez bitartekari— Brian Currin abokatu hegoafrikarrak atzo [asteartea] Nazioarteko Harreman Taldea aurkezteko azpiegitura jarri zutenak, zeinaren helburua «Euskal Herrian bakea eta normalizazio politikoa lortzen laguntzea» den.

Historia 2009ko irailean hasi zen ernamuntzen. Currinek, zeinak ETaren 2006ko su-etenaz geroztik harremanak zituen ezker *abertzalearekin* eta su-eten hartako aholkularia izan zen, Lokarriko koordinatzaile Paul Riosi jakinarazi zion erakundearen beso politikoa izan zen hartan eta ETaren indarkeriaren amaieraren inguruan aldaketarako aukera berri bat irekitzen zela.

Urteetan, Lokarri, zeina 1992an jaiotako Elkarriren ondorengoa den, indarkeriak banatutako Euskal Herri batean taldeen

artearen elkarbizitza sustatzen ari zuen. Kanpoan izen ona eman zion arrakasta 1995ean gertatu zen, lehen aldiz euskal alderdi guztiak bildu zituen Bilboko Carlton hotelean egindako bakearen aldeko jardunaldi batzuetan.

Hilabeteotan, itzalean, Lokarri Currinen azpiegitura jarri du Euskadin, abokatu hegoafrikarrak, Batasunaren aholkularia bera, ETaren su-etenaren errazteko lanean ziharduena bitartean bere bezero historikoen jarraibideak jarraituz.

Bere zeregina etapa berri

honetan polemikoagoa da. Gobernu zentralak eta Eusko Jaurlaritzak ukatu egin diote Currinek aldarrikatzen duen ETArekiko bitartekaritza. Baina Currinek, hilabete hauetan, ikusi du euskal egoera ez dela Irlandakoa ezta Hegoafrikakoa ere; horko bake prozesuetan ere parte hartu zuen. Ez bakarrik gobernua. Hitz egin duen euskal alderdiek —guztiak, PP salbu— eta Lokarri ere oinak lurrean jartzen lagundu diote.

Hala, Currinen Nazioarteko Harreman Taldea, atzo [asteartea] Bilbon ez zen bitartekari mo-

dura aurkeztu, laguntzaile modura baizik. Gobernuari ez zion exijentzia bakar bat ere planteatu, 2010. urteko martxoko Bruselako Adierazpenean egin zuen bezala. Ezta ezker *abertzalearekin* osaturiko alderdien mahai bat ere, zeina alderdi gehienek aldeztu aurretik baztertu duten.

Atzo bere joko eremua finkatu zuen: nazioarteko babesarekin Sortu ezker *abertzalearen* marka berriaren legezkatzea erraztea, eta espetze politikaren malgutzea erraztea ETak indarkeriaren amaieran sakontzen duen heinean.



Nazioarteko Harreman Taldeko kideek asteartean agerraldia egin zuten Bilbon. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Nazioarteko Harreman Taldea,
agertokiraEditoriala
Gara

A tzo [astelehena] Bilbon bildu zen Nazioarteko Harreman Taldea, eta gaur [asteartea] emango ditu jakitera bere misioaren xehetasunak eta bere ekintza egutegia. Taldearen osaketak erakusten digu lan talde prestaturik eta multidiziplinarra, fidagarria eta auzi hauetan esperientzia duela. Sinestamendu horiekin beste elementu bat sartu da euskal agertoki politikoan, zeinaren ekarpena garrantzitsua izango den Euskal Herriaren normaliza-

zio politikorako erronkak eskatzen duen agertoki inklusi-boa eta gardena sustatzeko eta bizkortzeko helburuari begira.

Nazioarteko Harreman Taldeak, gainera, zalantzarik gabeko balio politikoa du, garaileen eta garaituen eskemarik gabeko irtenbide bat politikaren bidera kanalizatzeko birtualtasuna, gatazka parametro erabat demokratikoetara eraldatzeko potentzialarekin. Eta, era berean, prozesuari segurtasun sare bat eskaintzen dio, berez eror ez dadin zailtasun eta probokazioetan nahastuta, horrelakorik ez baita faltako. Haren baliabide eta

esperientziak —zeinak, dudarik gabe, exijentzia maila handia ezarriko dien alde eta parte-hartzaile guztiei—, konfiantza eta egonkortasuna sortuko duten neurriak errazteko eta ahalbidetzeko asmoz, indarrak batzera eta energia sozialak askatzera egindako gonbidapen bat dira, intentsitate politiko altua eta ezin negonezko pazientzia handia eskatzen duen testuinguru batean.

Ez dirudi ausartegia denik pentsatzea, gutxienez publikoki, Estatuaren erreakzioa Nazioarteko Harreman Taldeari sistematikoki ospea kentzea izango dela. Bestela dira modu pribatuan

egin ahal diren komunikazio eta kudeaketak. Edozein modutan, inguruko zaratatik harago, elementu berri honen garrantzia Euskal Herriko irtenbideen prozesua nazioartean kokatu izana da. Eta horrek egungo egoeran eroso dauden horiek deseroso jartzen ditu. Eta abian dauden indarrak adoretu behar dituen kontua da, apustuari abiadura bat gehiago emateko. Herriak politika eta etorkizuna eraldatzeko boterea du bere eskuetan, baita karta horiek jokatzeko —eta Nazioarteko Harreman Taldea beste bat gehiago da— eta hori adimena erabilita egiteko ere.

Nazioarteko Harreman Taldeak asteon egindako agerraldian bere joko eremua finkatu duela deritzo Luis R. Aizpeolea 'El País' egunkariako kazetariak. 'Gara' egunkariak bere editorialean dioenez, Currinen taldearen garrantzia Euskal Herriko irtenbideen prozesua nazioartean kokatu izana da.

Alfredoren saria



Bihar jai

Mikel Elorza

Espainiako Poliziaren buru ohiak Juan Cotinok esan du aurreko su-eten garaian Estatuak ETA finantzatu zuela. Gero matizatu egin du, baina hor dago. Eta hipotesia: Sortu Batasunaren jarraipena baldin bada, Batasuna ETA izanik, Espainiako estatuak Sortu finantzatu du. Dei dakiok hipotesi, gurea bada, Poliziarena bada txosten deitzen zaio eta erabiltzen da milaka herritarrek atzo Bilbon eskatutakoa aintzat ez hartzen laguntzeko.



Arte Eszenikoen Max Sarien XIII. edizioako irudia. J.J. GUILLEN/EFE

Astearen hasmen-takoa da albistea eta besteek gaina hartuta ahaztua dugu, baina bixia izan zen SGAEk antolatzen dituen Max antzerki sariak, Espainiako antzerki produkzioak saritzen dituenak —antzerki obren egilea SGAEen izena emanda baldin bada, beti ere—, hiru hautagai izendatu zituela euskarazko sarirako, tartean Alfredo Etxaberen *Mirentxu* obra, iaz Arriagan mustu zena. Zein arretatsuak gure hizkuntzarekin, Max sariaren antolatzaileak, euskarazko obra eta autoreak ere saritzen dituztela! Kontua da *Mirentxu*, Jesus Guridiren opera, 1909an mustu zela lehen aldiz, eta sarirako hautagai izendatu duten libretoa ordukoa dela (gainera Arozamenak moldaturikoa baliatu omen zen iaz). Alfredo Etxabe aspaldi hila dagoela, alegia.

Zuzendu dute. Ez diote saria emango Alfredo koitaduari. Baina erakutsi digute zenbaterainoko balioa duen euskarak. Zenbat estimatzen gaituzten, eta nola.

Hori bai, aste honetan Bizkaia eta Gipuzkoa eta Araba izen ofizialtzat onetsi ditu Espainiako Parlamentuak. Biba!

Antonio Basagoitiari aurka dagoela entzun nion, izendapen ele-

biduna mantendu behar zela, eta argudio historikoak eman zituen. Tira, horretarako argudio historikoak zeudela esan zuen. Argudio historikoak baliatzen dituztenek gehienetan egin ohi duten legez. Ai Historia, zu baino jipoituagorik...

(Araba/Alava izen biak mantendu dira ofizial. Ondo. Lehen era badauzkagu Donostia-San Sebastian eta Vitoria-Gasteiz izeneko kaleak. Sekula ezingo diogu elebitasun perfektu-nahi honi eskertu zelako gauzak asmatzeko proportzioa eman digun).

Kutxaren giltza

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, beraz, izen ofizial ditugu. Aurrezki kutxa ere bakarra izango ote dute? Ez dakit, fusio hotzaz eta halakoez mintzo direnean galdu egiten naiz —eskerrak Joseba Barandiaranen eta nire artikuluen segidan doan *Egitura* gehigarriko zutabegileen argi bristadei—, baina aste honetan politikariei entzun besterik ez dago konturatzeko zer dagoen joan. Nork oratu uhalei, nork gorde kutxaren giltza. Iñaki Oiarzabal PPko politikariak ezin hobekiago definitu zuen, seguruenik nahi gabe, asko hitz egiteak hori dakar batzuetan, esan zuela rik EAJk orain arte kutxak go-

bernatu dituela bereak bakarrik balira bezala, eta bazela garaia denek gobernatu ahal izateko...

Aurrezki kutxak elkar daitezeneko borroka, aginte-borroka, eta era berean orain bankubihurtzea, edo nazionalizazioa (hitza entzun dut, eta dardara eragin dit, mamu marxistak berpiztu ote diren...). Espainiako Gobernuak egin duen finantza erakundearen erreformak likidez-berme gehiago ekarriko omen ditu, eta diru pribatua aurrezki kutxetan sartzea. Bestela Estatua bera sartuko da. Krisi garaian herriarren diruak babes-teko? Ez dut uste, lehen ere kreditu erakunde bat badu, baina ez du erabili finantza erakundeak pikutara bidean jarri direnean, diru publikoa finantza erakunde pribatuok erreskatatzeko erabili du. Ez ditut xehetasunak ezagutzen, eta ondorioak ere garbiegi ikusten oraindik, baina lehen datu batek nire iritzia bideratu du. Denbora gehiago eskatzen duten arren, bankuek egoki ikusten omen dute. Bankuak alde beldin badaude, ni kontra. Argudio merkea da, badakit, baina balioen krisi garai desanparatu haue-tan, soilak, oinarritzkoak balio izaten du. Dena fusioaren eta koloreen eta grisen eremuan aurkeztzen zaigun garaioan, ez da

txarra batzuetan txuria eta beltza aukeretan mugitzea.

(Espainiako Gobernuak esku hartu zuen kasu bat ere berpiztu da, Rumasarena. Orduan diru publiko gastu izugarria izan zen haiek egindako zuloa estaltzeko. Orain berria egin dute. Inbertso-reei pagatzen ez badie bere bu-ruaz beste egingo lukeela, esan du Ruiz Mateos enpresaburuak, baina bere fedea debekatu egiten diola, erantsi. Garbi dago, laguntza behar du —diruzkoa, noski, eta bestelakoa bere fedearen mugak gainditu eta hitza bete ahal izateko—.)

Desorekak

Aurrezki kutxen ardura dutenak eta izan nahi dutenak herriarren interesak dituzte azken xedean, dudarik ez dute. Munduko ekonomien ardurak dituztenek (instituzioen alorrean; agindu, azken batean, inork aurpegirik jarri ezin diegun espekulatzailak eta merkatuak agintzen baitute), horiek ere herriarren interesak dituzte xede. Parisen izan dira asteburu honetan G-20ko Ekonomia ministroak eta banku zentralerako buruak. Helburua: munduak jasaten duen arazo ekonomiko nagusiari aurre egitea. Eta zein da hori? «Desoreka». A, diozu hasperen eginez, munduan aberats eta pobreen artean dagoen tarteari, amildegiari aurre egiteko neurriak hartzea. Ez. Ez noski. Desoreka komertziala, beraien artekoa, batzuek saldu eta erosten dutenaren arteko desoreka. Hori da arazo ekonomiko nagusia.

Eta esplikatuko dizute, gainera, kontra egin ezinezko argudioez, hori konpontzea ezinbestekoa dela bizi dugun krisiari aurre egiteko. Auzia krisiak konpontzea baita, eredu honek aurrera egitean sortzen diren arazo ekonomikoek aurre egitea. Ereduak aldatzea? Hori, tontoenak ere badaki, ez dago G-20ari. Hori ez da arazo.

Hurrengo egunetan

Lierne Alkorta



Egoera politikoa hizpide '...eta orain zer?' hitzaldian

Ostegunean, Arnaldo Askutu Herri Ekimenak antolatuta, mahai-ingurua egingo dute Mariano Ferrer, Jo-ne Goirizelaia, Xabier Arzalluz eta Martxelo Otamendik, Elgoibarren.



Hauteskundeak Irlandan Lehen ministroaren erretiroa

Hauteskundeez eguna izango dute, ostiralean, Irlandan. Oposizioaren presioek bozaz aurreratzera bultzatu dute Brian Cowen lehen ministroa. Politika utziko du, gainera.



Topagunearen Kongresua Dokumentu bateratua xede

Larunbatean, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak, kongresua egingo du Bilbon. Dokumentu bateratua adostu asmo dute. Bazkaria eta ekitaldia ere egingo dituzte.



AHTaren aurka, Tolosan Manifestazioa

Datorren larunbatean, 17:00etan, AHT abiaduraz handikio trenaren aurkako manifestazioa egingo dute, Tolosan, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta.

Kondairaren mugetan

Aljeriako independentzia



Aljeriako Gerra hasi eta bi urtera, 500.000 soldadu zituen Frantziak Aljerian; euskaldunak tartean. BERRIA



OAS, terrorismoa etxean

Iñaki Egaña

Bigarren Mundu Gerrak eta bereziki gatazka horren ondorioek munduko mapa politikoa aldatu zuten. Autodeterminazio eskubidearen aldarrikapenak eta, bide batez, erabilerak, XX. mendeko iraultza geografikorik handiena ekarri zuen. Egia da aldez aurretik deskolonizazio prozesuak eman zirela. Egia da XIX. mendean Europak Afrikan eta Asian jarritako mugak erokeriak zirela. Eta egia da prozesu horien zutabea gatazka bortitzak izan zirela, gerren bidez edo gerrillen bidez: Indotxina, Kenya, Tunisia, Turkia, Siria, Vietnam...

Azken horietako adibideetarik bat Aljeriakoa da. Deskolonizazio prozesuari «Aljeriako gerra» deitu zioten Paristik. Neurri batean, legez, Gerra irekia izan zelako, ofizialki aitortua ez egon arren. Deskolonizazio gerra izan zen, 1954an abiatua. Bi urte geroago Frantziako armadak 500.000 soldadu zituen Aljerian. Gehienak soldadutzaren soldaduak. Beraz, behartuak. Euskaldunak tartean.

Aljeriako gerran 103 euskaldun hil ziren. Hildakoen artean gaztetasuna nabarmena zen, soldaduskaren adinaren arabera. Kopura ez zen Bigarren eta Lehen Mundu Gerretako bera izan: izugarria Lehen Mundu Gerraren kasuan. Baina, halaber, alferrikakoak izan ziren: Donibane Lohizuneko Inazio Urruzola, Beskoitzeko Pierre Hiriberri, Urruñako Jean-Baptiste Toulon, Alozeko Jean-Louis Nekezar,

Uztaritzeko Jean-Louis Lalande, Hazparneko Jean Etxart, Baionako Jean-Louis Toulet, Ziburuko Serge Haranburu, Sarako Bernard Etxebeste, Lakarrako Jean Pierre Petit...

Odoluste horren aurkako protestak egon ziren, baina egia esan, hasiera batean euskal gizarteak Frantziaren okupazioaren aldeko jarrera erakutsi zuen. Aurkako protestak salbuespenak izan ziren. 1961eko ekainean, esaterako, Miarritzeko Paul Perez etxean gorde zen, eta adierazi zuen zergak ez zituela ordainduko haren semea, Aljerian zegoena, herrira itzuli arte. Komunikabideen arabera, ero baten kexua besterik ez zen izan Perezena.

1961eko urtarrilean erreferendume batek independentziarako aukera eman zuen. Urte eta erdi geroago, 1962ko uztailaren 5ean, Suitzako Evian herrian Frantziako Gobernua eta FLNren arteko akordioak sinatu ondoren, Aljeriak independentzia lortu zuen.

Aljeriako independentziari kolonoek (*pieds noirs*) eman zioten erantzuna bortitza izan zen. 1961ean porrot egin zuen Frantziako jeneral batzuek emandako estatu kolpeak. Inork ez zuen espero gertatutakoa. *Liberté, égalité eta fraternité* herriaren bihotzaren erantzuna izan zen. 1961ean porrot egin zuen Frantziako jeneral batzuek emandako estatu kolpeak. Inork ez zuen espero gertatutakoa. *Liberté, égalité eta fraternité* herriaren bihotzaren erantzuna izan zen. 1961ean porrot egin zuen Frantziako jeneral batzuek emandako estatu kolpeak. Inork ez zuen espero gertatutakoa. *Liberté, égalité eta fraternité* herriaren bihotzaren erantzuna izan zen.

Paris, Madril eta Aljeria izan ziren OASen bihotzak. Bigarren mailako eszenatokia izan zen

Euskal Herria, baina une batez, garrantzi handikoa. Ihesean, mertzenarioek muga zeharkatzeko bideak erabili zituzten. Ohikoak Nafarroan, eta baita bereziki sortutako beste bat ere. Azken horretan eta txalupen bidez, iheslariak Miarritzetik abiatzen ziren Hondarribira iristeko. Donostian zituzten kontaktuen bidez, Madril, Bartzelona eta bereziki Alacantera segitzen zuten bidaia, gordetzera.

Miarritze, Baiona eta Donostia konspiratzeko lekuak izan ziren. 1961eko irailean sarekada bat burutu zuten Frantziako poli-

ziek, 20 bat pertsona atxilotuz: horietako bat Jean Vidert jenerala izan zen, Donibane Lohizunen atxilotua. Hilabete batzuk lehenago, ekainean, Euskal Herrian izandako atentatu bakarrak aldarrikatu zituen OASek: Miarritzen auto bati jarritako lehergailua eta Baionako farmazia batean jarritako beste lehergailua.

Donostiako OASeko saila aski ezaguna zen, eta talde horren burua Paul Gaurdy jenerala zen. De Gaulleren aurkako kolpea eman zenean, Baionan gordeta zegoen. Kolpe horren protagonista zenez, porrotaren ondorioz muga zeharkatu zuen, eta Gipuzkoako hiriburuan gorde zen. Epe labur batez, Gaurdyrekin batera Gerard Dufour kapitaina gorde zen Donostian. Dufour OASeko informazio zerbitzuetako burua zen. Donostian gorde zirenen lana oso zehatza izan zen: De Gaulleren aurkako atentatuak prestatzea. Jakina denez, guztietan huts egin zuten.

1963ko ekainean, Chateau-Jover koronela, *Conan* goitizenez, muga gurutzatzerakoan atxilotu zuten Frantziako polizia. Baionan zegoen gordeta, eta haren helburua Donostia zen. Borden espezteratu zuten koronela, baina ihes egin zuen kartzelatik. 1968ko urtarrilean, Jouhaud jenerala espetxetik atera zen. Heriotza zigorrera kondenatu zuten sei urte lehenago De Gaulle presidentearen aurkako atentatu bat prestatzeagatik. Miarritzen hartu zuen lekua Jouhaudek bizitzeko. Hilabete batzuk geroago, OASeko preso guztiak askatu zituen Parisko gobernuak.

De Gaulle eta Francoren arteko adostasuna

➔ 1962ko urriaren 16an lau euskaldun atxilotu zituzten Frantziako jendarmek, De Gaulle eta Francoren arteko akordioak sinatu ondoren. ETAKo kideak omen ziren: Manu Agirre, Patxi Iturrioz, Iker Gallastegi eta Javier Leunda. Bide batez, OASeko mertzenario batzuk atxilotu zituzten Madrilko polizia. Frantziak mertzenarioen deportazioa eskatu zuen eta Espainiak euskaldunena. Eta hala izan zen. ETAK, agiri baten bidez salatu zuen trukea: «Iparraldean erbesteratuta dauden euskal demokraten eta OASeko hiltzaileen arteko konparaketa onartezina da».

Paris, Madril eta Aljeria izan ziren OASen bihotzak. Bigarren mailako eszenatokia izan zen Euskal Herria, baina une batez, garrantzi handikoa. Ihesean, mertzenarioek muga zeharkatzeko bideak erabili zituzten.

Poliziaren hautsa egun batean...

Serio demonio

Juan Kruz Lakasta eta Zaldieroa

seriodemonio@berria.info



Enbor polizial beretik sortuko dira besteak

«Aurreko txostenak sortu ziren enbor polizial beretik sortuko dira besteak, borroka horretan irauongo ez duen alderdi txiki gazteaz. Poliziaren hautsa egun batean bilakatu zen epai gai. Eta horrela ibiltzen gera, sortuz eta sortuz gure legea, atsedetik eman gabe, egurra emanez goaz aurrera, kate horretan denok batera, gogorki loturik daude...». Auzitegi Nazionalari txostenak prestatzen dizkieten poliziak eta guardia zibilak lan afarietan horixe kantatzen imajinatzen ditugu. Pentsatzekoa da lan afariak-eta maiz egiteko aukera izanen dutela; izan ere, ez du ematen txostenok egiteko lan handia hartzen dutenik, areago, maiz ajeak jota egiten dituztela ematen du. *Bateragune auziaren* kontura Otegi espetxeratu zutelarik, txostenek *The Organization*-en aginduz Batasuna birsortzen ahalegintzea egozten zioten. Baina, aldi berean, Batasunaren eta *The Organization*-en arteko talka aipatzen zuten. Hau da, txostenon arabera, Otegi *The Organization*-en aginduz Batasuna berpizten ari zen *The Organization*-en aurka egiteko. Dena oso logikoa. Orain, agiri berberetan oinarriturik, txostenek diote—betiere agintziki filtratu dutenez—Sortu *The Organization*-en estrategiaren esanetara dagoela. Hartara, trikiondun burutsuon arabera, Sortu *The Organization*-en aginduz errefusatzeko ari da *The Organization*-en indarkeria. Beraz, *The Organization* bere indarkeria errefusatzeko ari da. Beraz, *The Organization*-en indarkeriarenekin egin du, eta ez dago zertan alderdirik legez kanpo utzi. Agian hau guztia zuen buruan Raxoik esan zuenarik Sorturi buruzko txosten polizialak «oso albiste ona» direla. Bestela, pentsatu beharko dugu PPko buruarentzat Sortu *The Organization*-en menpe egotea eta hartara bakea urrutia egotea albiste ona dela.

Txapela buruan, ibili Nafarroan

Aste honetan, Serio Demonio ez dugu ordenagailuz egin. Zaldieroa marrazkiak trikuharri batean zizelkatu ditu, eta nik testua aizkorarekin enbor batean izkiriatu dut. Irrintzien bitartez eman diogu elkarriz egiten ari ginenaren berri, eta lanak amaitu ditugularik, txapelak gora bota, eta hizkuntza dantzatu dugu, abarkak ederki astinduz. Kontua da, ahalik eta lasterrean lortu nahi dugula euskaldun tradizionalaren labela. Izan ere, PSNko idazkari nagusi Roberto Jimenezek aste honetan esan duenez, Nafarroan «hizkuntz politika arrazoizko eta eraginkor baten helburua izan behar da [euskaldun] komunitate tradizionalari bitartekoak eskaintzea haien hizkuntza kontserbatzerik eta garatzerik eduki dezaten, euskara Nafarroa osoan artifizialki berpiztu gabe». Beraz, gure hizkuntz eskubideak aitortu diezazkiguten, aurrerantzean modu horretan jokatu beharko, tradizional-tradizional, euskaldun berriak izanagatik ere euskaldun tradizionalizat onar gaitzaten. PSNk aste honetan antolatutako euskarari buruzko jardunaldian egin zituen adierazpenok Jimenezek. Itxura batean, euskaldunoi irudi hobea eskaini nahi ziguten. Eta horretarako zer egingen Jimenezek—edo diskurtsoak idazten dizkionak—eta halako harrikada bota. Etsigarria. Ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuorde Lurdes Auzmendi adierazi zuen Nafarroako Gobernua «horma bat» dela euskara lantzean. Hala da, bai. UPNren esku dagoen Nafarroako Gobernua frontisa da, eta PSN, horri eusten dion ezker partea. Eta euskaldun nafar tradizional zein ez tradizionaloi tantoak errenkadan egiten ari zaizkigu, behin eta berriz hormabikoa eginez. Ederki ari gara: metafora guztiz tradizionala atera zaigu.

Euskara, tente

Amaitzeko, ohi denez, tutti-fruttia. Bat: horren tradizionala izan ez dena, aste honetan Interneteko *twitter* sarean sortu den *euskalporn* etiketa. Albisteak—zaharkitua, bide-nabar esanda—, pelikula porno bat euskaratu dutela. *Twitter*ari euskaldunek aitzakia horrekin egin dutena, balizko izenburuak asmatu: *Connilinguae Vasconum Primitiae*; Espermaren mintzoa; Kanpaijolearen semea; Maite ditut maite zure izterrak; Urrutiko txorak 14 (cm), gerturatu eta lau; Hazi zuria aurrera, hazi zuria atzera; Atzetik, atzetik, zu zara nagusia; Gora euskal gerria askatuta; Sartu... Euskal literatura, kantagintza, atsotitzak, kirola, politika dantzan jarri dituzte, euskal unibertsotik osoa, hizkuntzarekin jolastuz, umore politikoki ez zuzena egiteko, eta bide-nabar milaka erdaldunen arreta erakartzeko, Espainiako *twitter*-en hainbat orduz euskalporn etiketarik erabiliena izan baita. Ba al da gehiago eskatzerik? Euskara, xut. Bi: euskal politika *zirkunlokioz*, itzulginguruz betetzen ari zaigu. Batasunaren eta Aralarren arteko zatiketaren ondorio, ezker abertzalea aipatzen genuen aldioro hortxe ibiltzen ginen, duda mudatan, izen lagun bat sartu ala ez sartu—historiko, legez kanporatu eta abar—, sartuz gero batzuk mintzen zirelako eta ez sartuz gero, bestetuz. Eta orain, antza, gauza bera gerta dakiguke Nafarroa Baierkin, EAKo buruak behin eta berriz esaten ari baitira koalizioaren barnean geratzen direnak—Aralar, EAJ eta independenteak—ez dutela zilegitasunik marka hori erabiltzen jarraitzeko. Zer egin beharko dugu Aralar, EAJ eta independenteek osatzen duten koalizioarekin, *EAr*ik eta *Bazarr*erik gabeko *NaBai* deitu? *NaBai* B? *NaBai* II? Ufa.

‘Memento’

Ainara Gorostitzu

Izan daiteke Hu Jintao giza eskubideez hitz egiten ari zeneko unea, begirada galdua, aho txikia: «Aurrerapen handiak egin ditugu giza eskubideetan, baina askoz gehiago dugu egiteko».

Izan daiteke Barack Obama giza eskubideez pentsatzen ari zeneko unea: «Guantanamo, Irak, Afganistan, heriotza zigorra...»

Izan daiteke Txinako presidentek AEBetako etorkizuneko harremanez hitz egin zueneko unea: «Armaden arteko trukea erraztu eta arindu beharko genuke».

Izan daiteke AEBetako presidentea batuketa egiten ari zeneko unea, eskua kokotsean jarririk, irribarreari irteten ez uzteko: «Tximerika, akaso?, munduko ekonomiaren herena gurea izango da, munduko biztanleen laurdena...».

Izan daiteke Huk 200 Boeing hegazkinen eta 45.000 milioi dolarreko erosketa iragarri zueneko unea.

Izan daiteke Obama gaueko festan pentsatzen ari zenekoa: «Jo, Jackie Chan eta Barbara Streisand etorriko al dira azkenean?!».

Txinako presidentea Hu Jintao eta AEBetako Barack Obama Washingtonen elkartu zireneko une batean, 2011ko urtarrilaren 19an.

ALEX WONG/EFE

igandea@berria.info





18 Denbora-pasa

BagaBiga


Hitz gurutzatuak

Goitik behera

1. Hiru osagai dituen multzo.
2. Arrantza aparailua,
3. Ipar Euskal Herrian, gogorak, zakarrak, astunak.
4. Erraz sutzen edo haserretzen da.
5. Eliza handi.
6. Temati.
12. Ipar Euskal Herrian, flakia, ahultasuna.
14. Letradu.
16. Noka, nion.
18. Hunkitua.
19. Emakume musulmanen jantzia, aurpegia estaltzen duena.
21. Lana.

Ezker-eskuin

7. Afrikako etnia.
8. Ukatze.
9. Erromintxelaz, gorotza.
10. Fraide edo moja botoak egiten diren (ziren?) elizkizunak.
11. Elhuyar anaien bakartu zuten metal hau, 1783an.
13. Ipar Euskal Herrian, arroz.
15. Nireak.
17. Kolore ubela hartua.
20. Patxadak, lasaitasunak.
21. Ibai eta itsasadarretan, urak sakontasun handia duen toki.
22. Laharrak.
23. Makina mota.



Zazpi aldeak

Edgard Bouzi (Rara Festival)



Sudoku gaitza

Sudokuzale porrokatuen gustuko jokoak dakarkizuegu ostera. Klasiko bat da, badakizue, 9 x 9 laukiko bederatzirratu dituzten taula horietakoa, baina molde honetako jokoan merkatuan, munduko azoka zabalean, inoiz prestatu diren zailenetakoa, horrelakoxeak nahi baitituzte gure sudokuzale aseezinek. Ezetz ordu erdian asmatu. Eta ordubeteen? Tira, ba...

3					8			5
					5	4	2	
				1			8	9
		7			9	6		
			2		7			
		6	1			8		
1	7			9				
	6	4	7					
2			8					

BagaBiga

Hitz gezidunak

■ Iruñeko hiriarekin senidetuta dauden lau hiriak:

1. JAPONIAN
EZINBESTEAN
MOIAIZAN DAITEKE
BAGAIDE

2. EGONA
KRISTAIJEN BILGUNEA
MUSKA NOTA
IGANDEA

3. 3. EUSKAL HERRIAN
HEKTAREA
OXIGENOA
ERRAZ
NOKA, DU
KONTSO-NANTEA

4. DINARRIZKO EDARI
JAINKO EGITTOARRA


BRASILGO HIRIA
MENDI NAFARRA
GIZON IZENA
SODIOA
GAREN HAUEK
BOKAL ERREPIKATUA
MENDI SAMOA-KO HIRIBURUA
ATZIZKUA
VENEZUELA-KO HIRIBURUA
MUSKA NOTA
1
ELURRA URTU DEN LUR ZATI
HIDROGENOA
BUZTIN ZURI
GALDERETAN
PL. FRUITU MOTA
KANPO, LANDA
ORATUZ
AHULEZIA
EZ ZAKARRA
AUTOMATAK
ZER LEKUTAN?
RÖNTGEN
H. BATEZ ZUTARRI
NARTU ADITZAREN OINA
ALDERDI MEXIKARRA
KOLONBIAN
KRISTALAK
AFRIKAKO ESTATUA
ERREPIKATUZ GOROTZA

GIPIZKOAKO HERRIA
PRESIO UNITATE
NAFARROAKO HERRIA
BOKALA
MENDI SAMOA-KO HIRIBURUA
ATZIZKUA
ISLANDIA
SINDIKATU ABERTZALEA
INSTITUZIOAK
HARRAPA EZAKI
EUSKAL ALDERDI OHIA
KONTSO-NANTEA
MASURIOA
TOKA ZAIZU
HERRI HIZKERAN, ZER
SATURNOREN SATELITEA
JOANDEN URTEAN
URANIDA
SALTOKIA
SASIKUMEA
PRESIO UNITATE
JOAKI GARA
EH-KO MENDIA
INDARREZKO AHALEGIN
ATE INGURU
GABEZIA
NAIZ

LODI
2. ALEMANIAN
EH-KO HERRIALDEA
FOSFOROA
SITS
SASOIA
KONTSO-NANTEA
BEGIRUNEA
OMEN
EGUZKIA
BEGIRA
SUFREA
KONTSO-NANTEA

Hitz kateatuak

Diagraman koka itzazu ondoko hitz hauek:



13 hizki
Lehenbailehen
Sinplifikazio

11 hizki
Dirdirarazi
Orokortasun

9 hizki
Hordialdi
Karkailaz
Nabigazio
Nekazaria

8 hizki
Baloneta
Soilortu
Helduera
Igandero
Ilunpean
Kabinete
Leku-izen
Lilitegi

7 hizki
Basolan
Nahiera
Nazkatu
Pausatu




6 hizki
Adagio
Ebakia
Gaziak
Motibo

5 hizki
Aizan
Atera
Atlas
Bakun
Egoki
Etzan
Ipini
Itegi
Limoi
Muino
Sakan
Zakar

4 hizki
Damu
Hire
Ikol
Inon
Oria
Tema
Tesi
Zitz

3 hizki
Are
Boa
Geu
Rol
Zer
Zio

Erantzunak



Kioskoa

harpidedunentzat **opariak****Z**ozketakPARTE HARTZEKO, deitu: IGANDETIK ASTEARTERA **943-30 43 47** edo www.berria.info/kioskoa

SARIDUNAK ostegunetan argitaratuko dira.

01 ARTOLA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Santiagomendi auzoa • Astigarraga
Tel.: 943-55 72 96
www.artolasagardotegia.com

02 BEHETXONEKO BORDA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Beruete
Tel.: 948-50 31 36

03 GARTZIATEGI SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Gartziategi baserria • Astigarraga
Tel.: 943-46 96 74
www.gartziategi.com

04 GURUTZETA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Oialume bidea, 63
Astigarraga
Tel.: 943-55 22 42
www.gurutzeta.com

05 IPARRAGIRRE SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Osinaga auzoa
Hernani
Tel.: 943-55 03 28
www.iparragirre.com

06 ITURRIETA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Arraga auzoa
Aramaio
Tel.: 945-44 53 85
www.iturrietasagardotegia.blogspot.com/

07 LARRE-GAIN SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Larre Gain baserria
Ereñotzu auzoa • Hernani
Tel.: 943-55 58 46

08 MARTITXONEA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Aldatz
Tel.: 948-60 46 07

09 ITSASTEGI SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Osinaga auzoa • Hernani
Tel.: 943-55 68 94
www.otsuaenea.com

10 URBITARTE SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Ergolena auzoa • Ataun
Tel.: 943-18 0119

11 AGINAGA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Usurbil • Tel.: 943-36 67 10
www.aginagasagardotegia.com

12 ASTARBE SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Elosiaga auzoa
Urraki
Azpeitia
Tel.: 943-81 20 92

13 BEGIRISTAIN SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Ikaztegieta
Tel.: 943-65 28 37
www.begiristainsagardotegia.com

14 OLAIZOLA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Hernani
Tel.: 943-33 67 31
www.olaizolasagardotegia.com

15 ZABALA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Garagartza baserria • Aduna
Tel.: 943-69 07 74
www.rzabala.com

16 IPINTZA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Ipintza baserria
Santio Zeharra, 12
Astigarraga
Tel.: 688-811 724
www.ipintza.com

17 OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Mikel Arozamena, 16 • Astigarraga
Tel.: 943-55 29 38
www.oialumazar.com

18 IRUÑAZARRA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Mercaderes, 15 • Iruñea
Tel.: 948-22 51 67
www.irunazarra.org

19 PETRITTEGI SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Garagartza baserria • Aduna
Tel.: 943-69 07 74
www.rzabala.com

20 LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Bi lagunentzako bina bazkari edo afari



Lesaka
Tel.: 948-63 72 12

Egitura



Txinako 1.600 konpainia ari dira Afrikako herrialdeetan lanean; haietako langile gehienak afrikarrak dira. IÑAKI GURIDI

Afrikar berriak

Lilura eta amorrua eragiten du Txinak Afrikan. Lilura, inbertitzen ari den diruak ekonomiaren hobekuntza ekar dezakeelako; amorrua, harremanak zailak direlako.

Iñaki Guridi Akkra

Akkra aireportutik gertu dagoen Golden Tulip hotelean sartu eta berehala igartzen da negozio usaina. Inguruan, kopuru bertsan ageri dira txinatarrak eta

afrikarrak. Su Zhen Yu etxeko sukaldean bezala mugitzen da Golden Tulip hotelean. Ezagutzen dute beharginak, baita inguruan dabilen negozio gizonak ere. Jateko mahaian eseri, eta bazkalzen hasterako hiru lagun gerturatu zaizkio. Lehenengoa bereztat lan egiten duen gizaseme afri-

karra. Hark aurkeztu dio meatze bat ustiatzeko baimena duen beste gizonetako bat, eta hirugarrenak portura iritsi berri diren kaxa batzuen inguruko informazioa eman dio.

Hamabost urte dira Su Txinatik etorri zela. Kasino bateko langile soil moduan hasi zen, eta urre

meategi bat ustiatzen duen konpainiako jabe da orain. Txina-Ghana Merkataritza Ganberako presidenteorde da, gainera. Beste negozio batzuk ere ba omen ditu, baina ez du xehetasun gehiegirik emateko gogorik. Liluratua du Afrikak. «Munduan geratzen den eremu birjina bakarra da Afrika. Edozein negozio atera dezakezu aurrera hemen, baldin eta gogor lan egiten baduzu. Nekazaritzan, kakaoa lantzea emankorra da, eta beste edozein uzta ere landu dezakezu. Lurra zulatu, eta diamanteak eta urrea agertzen dira. Gehiago zulatu, eta petrolioak aurkitzen da. Itsasoa beteta dago arrainez. Zer gehiago eska daiteke?».

Ez da hori pentsatzen duen bakarra, gero eta gehiago baitira Txinako inbertitzaileak Afrikan. Txinako Gobernuak iragan abenduan zabaldu zuen *Txina-Afrika, Ekonomia eta Merkataritza Kooperazioa* txostenaren arabera, hango 1.600 konpainia ari dira Afrikako herrialdeetan lanean. Denen artean 9.000 milioi dolarreko inbertsioa dute egina, eta urte tik urtera gora doa kopurua. 2009an 1.440 milioi dolar inbertitu zituzten.

«Txina hazten ari den erraldoia da. Baliabide naturalak behar ditu, eta bere produktua saltzeko

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

22 Txina-Afrika harremana

(Aurreko orrialdetik dator)

merkatua. Biak aurkitu ditu Afrikan», dio Beatrice Tortok. Ghana-ko Unibertsitateari atxikitako ikertzailea da, eta aspalditxoan ari da Txina eta Afrikaren arteko harremana ikertzen.

Sektoreka begiratuta, txosten ofizialak argi erakusten du meatzetan sartzen dutela diru gehien enpresa txinatarrek. Inbertsioaren %29 baliabide naturalak lortzeko erabili dute. Petrolio eta gasa dira gehien erabaten dituzten lehengaiak, eta, horrekin batera, burdina, kobrea, urrea eta antzeko metalak inportatzen dituzte.

Txina bihurtu da, gainera, Afrikaren merkataritza kiderik emankorrena. Iaz arte AEBak ziren Afrikako herrialdeekin merkataritza bolumen handiena zuten herrialdea, baina Txinak aurrea hartu dio. Txina eta Afrikaren arteko merkataritza trukeak inoizko errekorrak handiena hautsi berri du. 118.000 milioi dolar mugitu ziren iaz Txina eta Afrikaren arteko hartu-emanetan. Urtero gora doan kopurua da, 2009an krisi orokorra dela eta beherdia izan zuen arren.

‘Made in China’

Afrikako edozein merkatu koloretu eta zaratsatu bisitatuz gero, eta salgai dauden produktuei erreparatuta, segituan ikusten da non eginak diren gehienak. *Made in China* leloa jantzi, tresna elektriko eta jateko ugaritan aurki daiteke.

Txinako Gobernuaren txosten ofizialaren arabera, 80ko eta 90eko hamarkadan produktu industrial arinak, elikagaiak, eta produktu kimikoak ziren batez ere Txinatik Afrikara saltzen zirenak. 2000. urtetik aurrera, makinaria, ibilgailuak eta produktu teknologikoak dira gero eta gehiago inportatzen direnak.

Merkataritza truke horiek, ordea, eztabaida eta haserre iturri ere badira. Batetik, gero eta gehiago direlako Afrikan kokatu diren txinatar merkatariek. Horrek sutan jarri ditu bizimodua salerosketatik ateratzen duten afrikarrak. Beatrice Tortok dio badaudela afrikar merkatariek Txinatik produktuak zuzenean ekartzen dituztenak, «baina ezin dira lehiatu txinatar batek ekarritako produktuekin. Txinatarrek beti lortuko du bere herrialdean dena merkeago, eta, ondorioz, merkeago saldu ahal izango du». Orain gutxi Akkrako merkatuko emakume saltzaileek manifestazioak egin zituztela gogoan du Tortok.

Txinatik hainbeste ondasun inportatzeak Afrikako industriari ere kalte egin dio, batez ere ehungintza sektoreari. Ghanan, esaterako, itxi berri da Akosombo Textile enpresa. Tortoren esanetan,



Arrantzan eta nekazaritzan ere sartu dira Txinako enpresak. INAKI GURIDI

«Txinatik datozen oihalen prezioekin ezin ziren lehiatu, eta salmentak ia ezerezean geratu zitzaizkien». 1.900 langile geratu dira kalean.



Edozein negozio atera dezakezu aurrera hemen, baldin eza gogor lan egiten baduzu»

SU ZHEN YU
Txina-Ghana Merkataritza Ganbera

«Txinak baliabide naturalak eta merkatua behar ditu. Biak aurkitu ditu Afrikan»

BEATRICE TORTO
Legongo unibertsitateko ikertzailea

Txinatarrek ez diote inongo sektoreri muzin egiten, eta horren adibide da arrantzan eta nekazaritzan ere sartuak direla. Ez da zaila txinatar nekazariak ikustea Afrikako arroz soronetan, edota txinatar grafiadun banderak aurkitzea edozein portutako txalupa txikietan. «Mendebaldeko inbertitzaileek ez dute orain arte sekula lehenengo sektorean inbertsio handirik egin. Nekazari-

tza eta arrantza ez zaizkie interesatu. Txinatarrek, ordea, hor ere aurkitu dute negozioarako aukera».

Ofizialki horrelako adierazpenik ez dagoen arren, gero eta hedatuago dagoen susmoa da Txinako Gobernuak bere enpresak bultzatu dituela lehenengo sektorean inbertitzera eta lurra eros-terea herrialdearen elikadura segurtatzeko.

Txinaren asmoa, bestalde, sektore gehiagotara hedatzea da. Zhong Manying Pekingo Merkataritza Ministerioi Afrikarako arduradunaren arabera, «energia berriztagarrietan, finantza zerbitzuetan eta industria eraldaketan gero eta inbertsio gehiago bultzatu nahi ditugu».

Bidea irekitzen

Merkatuko produktuen antzera Afrikako errepide, trenbide eta zubiek karteltxoak balituzte, ziu-rrerik *«made by chinese»* jarriko luke gehienetan. Azpiegitura lan horietan aitzindari izan zen Tanzania eta Zambia lotzen dituen trenbidea. Tortok hura ikusten du gerora hainbeste hedatu diren azpiegitura lanen oinarri. «Txinatarrek trenbide hura egin zutene-

an, konfiantza irabazi zuten, eta harrezkero eurei agindu zaizkie azpiegitura lan garrantzitsu asko». Txinako agintariek ere ez dute trenbide hura ahaztu. Iragan abenduko txostenean diote 1.860 kilometroko Tanzania-Zambia trenbideak argi erakusten duela «Txinak Afrikari laguntze-ko duen asmo desinteresatua».

Laguntza desinteresatua baino gehiago dira, ordea, eraikitza lan horiek. Batetik, eta kontratu-etan argitu gabeko puntu asko dauden arren, Afrikako gobernuak ordaindu egiten dizkiete Txinako enpresei eraikitza lan horiek. Bestetik, lan horiek ordaintzeko finantzaketa behar dute Afrikako gobernuak, eta orduan agertzen dira Txinako finantza erakundeak, maileguak eskainiz. Batzuetan interes txiki-ko maileguak dira, garapenerako laguntza gisa ematen direnak, baina beste askotan merkatuan indarrean dauden interes tasak ordaindu behar izaten dituzte.

Su Zhen Yu enpresariaren us-tez, luzera begira ari da Txina azpiegiturak bultzatzen. «Argi dago Afrika dela etorkizuneko merkatua. Europa eta AEBak ekonomiko-ki lurra jotzen ari dira. Konti-

nente honetan ondasun ugari dute, baina gobernanta txarrak eta hezkuntza faltak azpigaratuta utzi ditu. Lagun diezaiegun garatzen, egin ditzagun errepide eta zubiak, eta erakutsiezaiegun euren aberastasuna. Behin eskutan dutenean eros diezagutela guri».

Negozio kide garbia?

Wikileaks bidez ezagutu den idatzi batean, Johnnie Carson AEBen afrikar gaietarako idazkariak honakoa zioen Txinari buruz: «Moralik gabeko lehiakide ekonomiko oldarkor eta kaltegarria da Txina». Mendebaldeak askotan errepikatu duen ideia da hori, besteak beste, izututa dagoelako Txina hartzen ari den dimentsioarekin. Lehiakide sendoa bihurtu da, baita Afrikan negozioak egiteko ere.

Tortok dio Afrika Txinarekin bide berriak esploratu nahian ari dela. «Mendebaldeak beti tratatu izan du Afrika inoiz haziko ez den anaia txikia bezala. Orain anaia txiki horri beste lehengusu bat etorri zaio, Txina, eta ikusi du agian lehengusu horrekin anaia handiarekin baino hobeto konpon daitekeela. Agian ez du asma-tuko, baina proba behintzat egin nahi du».

Txinak ez du erreparorik izan nazioarteko baztertu izan dituen agintariekin tratatuak egiteko. Askok kritikatu dute Sudango petrolio erosten ari delako, Omar Al Bashir diktadorearen erregimenaren diruz lagunduz. Zimbabwe, Robert Mugaberen erregimenarekin egindako tratatuak ere salatu izan dira, baita Guinean Dadis Kamarak 2008an egindako estatu kolpea diruz lagundu izana ere, diamante komertzioarekin segitu eta ondorioz kolpistei dirua emanaz.

Tortok dio Pekin ez dela herrialde bakoitzaren barruko afe-retain sartzen. «Mendebaldeak, eurei hala komeni zaienean, giza eskubideak errespetatzen dituzten sistema demokratikoak eskatzen dituzte negozioak egiteko. Txinak, ordea, ez die agintariei holakorik eskatzen. Negozioari begiratzen dio soilik».

Afrikarren amorrua

Txinatik Afrikara datozen langileak asko dira, baina gehiago dira txinatar konpainientzat lan egiten duten langile afrikarrak. Aurkitu ditugun denak kexu dira daukaten egoerarekin.

Paul Arthur 26 urteko gazte ghanatarra da. Achimota-Ofan-ko errepidea eraikitze lanetan ari da China Railway Wujia enpre-sarekin. «Lan hau egiten eta sufritzen ari gara», dio. «Ez digute ongi ordaintzen, egunean bost ceti bakarrik [2,5 euro inguru]. Eguerdiko eta iluntzeko otorduak ordainduta gastatzen dut erdia». Bertako enpresa batentzat lan eginez gero 15 cedi irabaziko lituzketela

dio, «baina lanik ez dago, eta horretaz aprobetxatzen dira».

Albotik, bere lankide batek segurtasunarena aipatzeko eskatu dio. Stephen Baidejn da. Duela sei hilabete errepide horretan lanean ari zela istripu bat izan zuen, metalezko xafila bat gainera erorita. Orduraz geroztik lan egin ezinda dabil, medikutan. «Min hartzen baduzu eta odolik ikusten ez badute, ez dira kezkatzen. Odola ikusita-koan, ospitalera eraman, eta han uzten zaituzte», dio Baidejnek. «Ikusi nire kaskoa», dio Arthurrek kraskatutako burukoia erakutsiz. «Zuk uste duzu honek babesten nauela?».

Hilaren batetik 27ra arte atsedenean gabe lan egiten dute, egunero. Egun horretan soldata kobratzen dute, eta bizpahiru eguneko atsedena izaten dute, hurrengo hila hasi arte.

Afrikan integratzeko ahalegin handirik ez dute egiten langile txinatarrek

Nagusiek ematen dieten tratatu moduagatik ere kexu da behargin hori. «Ez dute ingelesik hitz egiten txinatar gehienek, eta zerbait agindu nahi dutenean, edo presio egin nahi dutenean, oihu besterik ez digute egiten. Askotan ez dakit langileak edo esklaboak garen».

Lan alorreko eztabaidak liskar gogor bat baino gehiago ere eragin dituzte. Zambian, esaterako, liskar gogorak izan ziren iaz kobreak meategi bateko arduradun txinatarren eta langile afrikarren artean. Ordainketa zela-eta sortu zen haserre, eta nagusiak tiro egin zieten beharginiei. Bi enpresari txinatar epaitu zituzten hiltzen saiatzea egotzita.

China Railway Wujia enpresaren enkargatu moduan lan egiten du Leo Wangek. Hark dioenez, «Afrikar langile asko ez dira lanerako finak. Dirua eskatzeko beti daude prest, baina lanerako ez». Adierazpen hori entzunda, Tortok galdera zuzena dauka: «Sortzen al dituzte txinatarrek lan baldintza egokiak afrikar langileak eroso aritu daitezkeen?». Buruarekin berek erantzun du: ez.

Bueltan Txinara

Txinatik Afrikara lanera etortzea erabaki dutenek helburu nagusi bat dute: diru asko irabazi eta poltsikoa beteta lehenbailehen Txinara bueltatzea. Inolako erreparrorik gabe dio hori Leo Wang 27 urteko enkargatua. «Txinan irabaziko nukeena baino lau aldiz gehiago irabazten dut hemen. Urte amaierara arte egongo naiz, eta proiektua amaitutakoan nire herriara bueltatuko naiz».

Ikasketak amaitu berri dituzten langile kualifikatuak dira batez ere aurkitu ditugunak. Li Yong Heng bulegariak aitortu du

Kwabena Agyei-Boahene

Ghanako Jayee unibertsitateko irakaslea

«Gobernuek ez dituzte Txinatik babesten beren herritarren eskubideak»

I.G. Akkra

Txinako negozioek Afrikari hainbat abantaila ekarri dizkiotela uste du Kwabena Agyei-Boahene irakaslea. Alabaina, argi du beste gauza bat ere: «Ez dira etorri gu laguntzera; gure baliabideak eramatera etorri dira».

G Txina zer da gaur egun Afrikarentzat, aukera ala arriskua?

E Nik biak ikusten ditut. Aukera asko sortzen ditu Txinak hemen jarduteak, inbertsio asko ari direlako egiten eta azpiegiturak ere ari direlako eraikitzen. Hala ere, oraintxe arriskuak eta kalteak gehiago ikusten ditut.

G Zeintzuk dira kalte horiek?

E Batetik, zoro moduan dabil Txina baliabide naturalen bila. Petrolio eta gasa behar ditu, baina baita bestelako meategiak ere. Ez dut uste ateratzen ari diren baliabideengatik prezio zuzena pagatzen ari denik. Bestalde, legez kanpo ari dira kasu askotan. Txinatar langile ugari bisitari moduan datoz hona, eta lanean ari dira, edo negozioak egiten. Soilik inportatzeko eta banaketarako balmena duten txinatar konpainia ugari, gainera, zuzenean ari dira salmenta postuak zabaltzen. Horrek egundoko kaltea eragiten die hemengo merkatariari.

G Zer egiten dute agintariekin hori ikusita?

E Hor dugu ziurrenik arazorik

handiena. Hemengo agintariekin ez dute egin beharrekia egiten dauzkagun legeak betearazteko. Lege aldetik, berez, osatuta gaude; egoiak dira dauzkagun legeak. Baina horiek betearazterakoan huts egiten dugu. Gobernuek ez dituzte Txinatik babesten beren herritarren eskubideak.

G Txinatar konpainientzat lan egiten duten afrikar behargin asko baldintza txarretan ari dira. Horren inguruan zerbait egiten al da?

E Agintariekin ez dute ezer egiten. Gaia ez zaie interesatzen. Ez dute zaratarik atera nahi, iruditzen zaielako Txinako Gobernuarekin eta enpresek in ditzuten harremanei eragingo diela agian horrek. Azkenean, goi mailako postuetan daudenei gehiago axola zaie txinatarrekiko harremana, euren herrikideen eskubideak baino. Bestalde, sindikatuek zerbait esaten dute liskarren bat gertatzen denean. Horretan geratzen da soilik. Zarata ateratzen dute, baina ez dute ezer konpontzera.

G Nola ikusten dituzu Txinako finantza erakundeek garapenerako ematen dituzten maileguak?

E Txinatik sartzen diren maileguak positiboak izan litezke, baldin eta interes tasa apalen truke sinatzen badira. Ghanak, esaterako, udazkenean 5.900 milioi euroko mailegu bat sinatu du; itxura batera, oso baldintza onetan. Inter-



IRAKI GURIDI

res tasa apaletan direnean, maileguak ongi datoz garapenerako. Kontua da gehienetan mailegu hauek oso gardentasun gutxiarekin sinatzen direla, eta ez dagoela argi mesedea norentzat den. Afrikako herrialdeentzat ala Txinarentzat.

G Esango zenuke maitasun-gorrito harremana dutela Afrikak eta Txinak?

E Esango nuke interes harmonia bat dagoela goi mailan, gobernuen artean, gobernu eta enpresen artean. Langile jendearen, merkatarien eta herritar soilen artean, berriz, ezin da ongi hartu Txinarekiko harremana, harreman horrek mesederik ekartzen duenik ez baita sumatzen eta mehatxu bezala sentitzen baita.

G Mendebaldeko inbertitzaileekin alderatuta, zein da txinatarren jarduteko moduan desberdintasuna?

E Nazioarteko harremanak beti daude interesak bultzatuta. Mendebaldearen hemen izan da, eta hemen dabil, interes ekonomikoak baititu. Europak eta AEBek, ordea, negozioak egiteko, gutxienez kobatzuk eskatzen dituzte. Demokrazia duten herrialdeekin nahi dituzte harremanak. Txinak ez du horrelakorik eskatzen. Herrialde bakoitzaren barne aferak direla esaten du, eta ez die gobernuei ezer exijitzen. Batere demokratikoak ez diren eta giza eskubideak zapaltzen dituzten erregimenak babesten ari dira.

G Txinaren partetik kolonizazio arriskurik ikusten duzu?

E Nik uste dut txinatarrena beste era bateko kolonizazioa izan daitekeela. Argi dago ez direla etorri gu laguntzera: gure baliabideak eramatera etorri dira, eta euren produktuak salduz dirua irabaztera. Beste itxura bat izango du, baina hori ere kolonizazio mota bat izan daiteke. Gainera, orain Txina ekonomia arloan hazten ari da etengabe; urtean %10 baino gehiago egiten du gora hango ekonomiak. Zer gertatuko da Afrikarekin, baldin eta momenturen batean hazkunde hori moteltzen bada edo atzeraldian sartzen bada? Txinarekiko gehiegizko mende-kotasunak kalte egingo digu.



Dituzten lan baldintzekin kexu dira Txinako konpainietan aritzen diren langile afrikarrak. IRAKI GURIDI



Afrikak nolabaiteko misterioa sortzen diela. «Txinatik sekula irten gabe ginen, eta hau aukera polita da. Afrikar kuriositatea pizten digu, eta horregatik ere etortzen gara». Egokitzen zaila dela ere esan dute: «urte gutzian da hemen uda, eta bero honetara ohitzea ez da erraza».

Afrikara etorritakoan, ordea, integratzeko ahalegin handirik ez dute egiten. Txinatarrek osatu-

tako komunitateetan bizi dira, eta handik ekarritako sukaldariak dituzte enpresa guztiek otordua prestatzeko. Shen Lin Hui ingeniari gazteak aitortu du bertakoei tratatu gutxi dutela: «Lanean ezagutzen ditugu beharginak, eta horiek diru gure hemengo kon-taktu bakarra».

Gachifak, Ghana eta Txinaren arteko adiskidetasuna bultzatu nahi duen elkarteak, ez du lana

erraz aurkitzen harremanetan sartzeko. Elkarteko bulegoan lan egiten du Bennet Oseik, eta, harrenanetan, «hizkuntza da arazo nagusia; gehienek ingelesik ez dute egiten, elebakarrak dira, eta horrigainditzea zaila da». Izaera aldetik ere desberdintasunak antzematen dituzte. «Afrikarra biziagoa da, alaiagoa, zeremoniak gus-tatzen zaizkio, kanturako eta dantzarako prest dago. Hona da-

tozen txinatarrek lana dute bu-ruan». Batzuen eta besteen arteko jauzi kulturala handia da. Su Zhen Yuk oso era ironikoan deskribatzen ditu kontrasteak: «Hemengoek jainko asko dituzte, eliza-za joan behar dute sarri, egun batzuetan ezin dute urik ukitu, hurrengoan ezin dute mendira jo-an. Txinatarrek lehen Mao zuten jainko bakarra, eta aspaldiko urteetan dirua soilik gurtzen dugu».

Bakarriketan

Bigarren erorketa

I. Aranburu

1 Zer gertatzen zaio Jose Maria Ruiz Mateosi? Ostegunean, bere enpresa taldeak, Nueva Rumasak, zorra negoziatzeko prozesua hasi zuen. Hiru hilabete dituzte hartzekodunekin akordioa lortzeko. Egiten ez badu, konkurtso legegaren babesean geratuko da.

2 Zenbat zor du? Taldeak dio 2009 amaieran 700 milioi euro zor zizkiela bankuei; Gizarte Segurantzari ere pagatzeko arazoak izan ditu.

3 Nola erreakzionatu du Ruiz Mateosek? Ohi duen estilo historionikoan, baina adinagatik edo —80 urte betetzear dago—, oraingoan Superman mozorroa etxean utzita. Zorrak pagatzeko gai ez bada bere buruaz beste egiteko mehatxua egin du, berehala zehaztu arren katoliko sutsua izateak hala egitea eragotzen diola. Rumasarekin bezalaxe, kanpoko faktoreei egotzen dizkio Ruiz Mateosek bere arazoak. Zehazki, kexu da RBSk eta Santander bankuek ez diotela zorak pagatzeko denbora gehiago eman.

4 Zergatik erantzun du horrela? Azken urteotan Nueva Rumasan dirua jarri duten inbertitzaile txikiak lasaitu nahi ditu. Bankuekin arazoak zituenenez, taldeak zorra zuzenean saldu du, prentsan egindako iragarkien bidez. Finantza merkatuen kontrolatzaileak, CNMVk, zazpi aldiz ohartarazi du zor horren arriskuaz, baina interes handiek (%8 ingurukoak) 5.000 herritarren dirua erakarri dute.

5 Handia al da Nueva Rumasa? Gobernuak 1983an desjabetutako Rumasaren neurria ez da iristen —18 banku, 400 enpresa eta 60.000 langile zituen—, baina handitu egin da azken urteotan. Hamar mila langile inguru ditu, batez ere elikadura sektorean. Harenak dira Duhl flanak, Clesa esnekiak, Cacaolat irabiatuak, Elgorriaga eta Trapa txokolateak, Apis pateak eta Garvey upategiak. Hotasa hotel katea ere Nueva Rumasarena da.

6 Ba al du fabrikarik Euskal Herrian? Ez, baina hornitzaile batzuk baditu. Nafarroan, esaterako, 35 abeltzain badira Clesaren hornitzaile, eta dirua zor die taldeak.



Taula gainean



Titulutik haratago
Joxerra Senar

Harrigarria bada zer azkar galtzen dugun arreta gure bizitzak baldintzatuko dituzten gertaerak. Ez dira hiru aste iragan CCOOk, UGTk, Espainiako Gobernuak eta CEOEk pentsioen erreforma hitzartu zutela, eta, bat-batean, isiltasuna erori da. Garrantzi ukaezinezko beste hainbat gaik bereganatu dute arreta mediatikoa, eta pentsioen erreforma iluntasunean geratu da berriro. Horregatik nire argitxoa zuzendu nahi dut hara.

Hasteko, PSNko Roberto Jimenez igoiko dut taula gainera. Erreformak pentsioen sistema publikoa bideragarri egingo duela defendatu zuen hilabete hasieran Iruñean: «Beharrezko erreforma da, belanaldi gazteagoek bihar pentsioa jasotzeko eskubidea izan dezaten, eta hori bermatuta dago». Legealdi honetan, Parlamentuan Patxi Zabaletak edo Jose Andres Burguetek Nafarroarentzat Gizarte Segurantzaren eskumena aldarrikatu duten bakoitzeko, Jimenez beti atera da kutxa bakarra irimo defendatzera. Horregatik adierazgarria egiten zait hark erreferentziatzen hartzen duen herrialdean, Espainian, bi pentsiodunetarik batek (%52k) 600 eurotik behera jasotzen dutenean irmotasun berarekin ez defendatzea pentsio duin bat jaso ahal izatea. Izan ere, Jimenezek saltzen duen erreformari esker 600 eurotik beherako pentsioa jasotzen dutenen kopurua handituzera baitoa.

Bigarrena taulara igoitzen: Jose Maria Molinero, Nafarroako CCOOk idazkari nagusia. Hari egokituko zaio sindikatuak

Madriren hitzartutako erreforma defendatzea foru erkidegoan. Molinerok argudiatu du gobernuak defendatutako proposamenaren alboan —67 urtez erretiratu eta 41 urte kotizatu— «sindikatu logika» onartu dela: 65 urtez erretiratu ahaliko dela baldin eta 38 urte eta erdi kotizatuz gero. Gaineratu du horri esker langile gehienak 65 urterekin erretiratu ahaliko direla. Jimenezek aipatutako «belanaldi gazteagoak» gogoan, alabaina, nekeza egingo da gaur egungo lan merkatuaren errealtate gordinari begiratura eta gazteak lanean noiz hasten diren ikusita, 65 urterekin erretiratzea. Argudio hori berez erortzen da negozioaz ororen taktikan sartzen baita hasieran gehiegi eskatu (ustezko) elkarrizketan helburura iristeko: alderatu besterik ez da egungo egoeraren eta erreformaren arteko alde nabarmena.

ELAren kalkuluak. Hirugarrena taulara igoitzen: ELA. Erreforma egungo errealtatearekin parekatu du. Azterketaren arabera, gaur egun batez beste 33 urte kotizata erretiratu ohi dira langile asko: hala, 33 urtez kotizatu eta 65 urterekin erretiratu, 2.000 euroko soldata duen

langileak erreformarekin pentsioan 530 euro galduko ditu; %27ko murrizketa. 39 urte kotizatu eta 63 urterekin erretiratu, nahi lukeen langileari ere %28ko murrizketa. Zifra dantza handiak daude, eta kasuen aniztasuna, berez, handia da. Baina argi dago pixkana erretiro adina 67 urtera handituta, kotizazio urteak handituta eta pentsioa kalkulatzeko lan bizitzako 25 urte kontuan hartuta, etorkizuneko pentsioak nabarmen murriztera doazela.

Laugarrena taulara igoitzen: Elena Salgado, Ekonomia ministroa. Argi uzteko zenbaterainoko eragina izango duen gastu murrizketak, iragan asteaz Salgado aurreratu zuen pentsioen kalkulurako 15 urte aintzat hartzetik 25 urtera pasatzeko soilik 24.000 milioi euroko aurrezkie eragingo diola 2050ean Gizarte Segurantzari, barne produktu gordina-ren %1. Orotara, BPGaren %3,5-4 aurrezteko espero du. Gizarte Segurantzak aurretik duen bai, eta bideragarri egingo dute bai, baina etorkizuneko pentsiodunei igorriko zaie krisia. Bide batez, erreforma horrekin arazo sozial handi bat hari gara bidaltzen etorkizuneko «belanaldi gazteago» horiei.



Roberto Jimenez, PSNko idazkari nagusia. VILLAR LOPEZ / EFE

Asteko enpresak

Eroski
Gerrikoa
estutzen

Bigarren urtez jarraian gerrikoa estutu beharko dute Eroskiko kooperatibako ki-deek. Aurtun ere soldata izoztuta izango dute, eta, gainera, 2009an baino %5 gehiago egin beharko dute lan. Nahi dutenei lanaldia berdin geratuko zaie, baino %5 gutxiago irabazita. Aurtun salmentek apal jarraitzea espero denez, merkatu kuotari eusteko ahalaginak egingo ditu Eroskik. Hedapena moteldu egingo du.

BBVA
Inork nahi ez
duen dorrea

Bilboko erdigunean BBVAk duen dorreak hila batekataratza «salgai» kartela jarrita. Bankuak 121 milioi euro eskatzen ditu trukean, baina interesdunak ez da ageri. Kri-siari eta bulego eskaintza handiegia bota die errua Angel Cano kontseilari ordezkariak. Ziur, eraikina amiantoz kutsatuta egoteak ere ez duela laguntzen. Erakundeak dirua behar ei du, baina hobe beste norabaitera joaten bada bila.

Caja Madrid
Diru publikoa,
gainsarierako

Asteon jakin da Caja Madridek 25 milioi euroren gain-sariak ordaindu dizkiela hamar goi karguduni. Sari horiek bere irabazietatik ordaindu balitu, gaitzerdi, bakoitzak nahi duena egin dezakeelako bere diruarekin. Baina ez da hori Caja Madriren kasua, azken hila-beteetan 4.465 milioi euroren laguntza publikoak jaso baititu krisiari aurre egin ahal izateko aitzakiarekin. Atzera egitea erabaki du orain.

Cepsa
Abu Dhabiko
funtzaren esku

Totalek Cepsa petrolio konpainia espainiarretik ateratzea erabaki du. Bere akzioak (%48,8) beste akziodun nagusiari saldu dizkio, Abu Dhabi emirerriko IPIC funts subiranoari. Totalek azaldu du findegien negozioan duen inbertsioak gutxitu nahi dituela. Cepsak egunean 528.000 petrolio upel finitzen ditu, eta 1.750 zerbitzune ditu. IPIKek Santander bankuaren zatia erosi zuen 2009an.

Adi datuari

%3,1

■ **Inflazioa.** Urtearen hasieran, Espainiako Gobernuak %15 igo zuen herritar gehienek ordaintzen duten argindar tarifa, eta horrek inflazioak gorantz jarraitzea ekarri du. INE Espainiako Estatistika Erakundearen arabera, urtarilean %3,1era iritsi da inflazioa Hego Euskal Herrian, eta, 2008ko urriaz geroztik, handiena da. %3,0ko muga lau herrialdeetan gainditu du.

%1,7

■ **Hazkundera.** Alemaniaren martxa sendoak bultzatuta, Europako Batasuna eta euroaren eremua %1,7 hazi dira 2010ean. Hego Euskal Herriko ekonomiak, berriz, atzeraldia gainditu du, baina Europaren hazkunde mailatik urrun geratu da. Nafarroa eta Araba hazi dira gehien, %1,2; Bizkaia %0,2 hazi da; eta Gipuzkoa lehengoan geratu da, hazkundetxerik gabe.

500

■ **Atzerapenak.** Zailtasun ekonomikoak arrazoituta, ogasunarekin zorra kitatzeko unea atzeratzeko eskatzen ari dira Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zergapeko ugari, enpresa asko horien artean. Ordainketa atzeratu horiek direla eta, hiru aldundiek 500 milioi euro kobratu gabe itxi dute 2010a. Gainontzean, aurreikusi baino 100 milioi gutxiago bildu dituzte.



3

■ **Kutxen erreforma.** Aurrezki kutxak banku bihurtzearekin tematu da Espainiako Gobernuak, eta kutxa gisa jarraitu nahi dutenak estu hartzeko prest dago. Udazkenerako oinarritzko kapitalaren ratioa %8ra igoetzeko agindu zien aurrena. Baldintza hori betetzen ez duten erakundeek zati bat estatuaren esku geratuko dela adierazi zuen hurrena. Ostiralean, berriz, FROB funtsetik laguntza publikoak jaso nahi dituzten kutxetako finantza negozio guztia banku batera aldatzeko hiru hilabete epea eman zien Elena Salgado Ekonomia ministroak, eta kaudimen ratioak betetzen ez dituzten erakundeek kudeatzaileen soldatak mugatu beharko dituztela iragarri zuen.

Aste honetan entzunak



«Fusioaren forma eta formatua erabakitzea euskal aurrezki kutxetara beraiei dagokie»

NURIA LOPEZ DE GEREÑU
Confesabasko idazkari nagusia



«Enpresetan eta familietan pentsatu behar dugu, ez gauzen kontrol politikoa»

JOSE BLANCO
Espainiako Sustapen ministroa



«BBKren eta Vitalen fusioa atzeratzea garesti ordain dezke euskal finantza egiturak»

CARLOS AGIRRE
Eusko Jaurlaritzako Ekonomia sailburua

Produktibitatea



Asteari so
Joseba Garmendia

Erreformen garaian gaude, eta denak doaz norabide berean. Lan merkatuaren erreforma kalderatzea merkatzeko. Pentsioen erreforma erretiroa atzeratzeko eta prestazioa murrizteko, pentsio pribatuak indartu bitartean. Langabezia babesaren erreforma murriztailea. Banku sistemaren erreforma kutxak banku pribatu bihurtzeko. Eta mahai gaineen jarri berri dena, soldaten erreforma. —Apunte txiki bat: erreforma sendo hauek Madrilen finkatzen dira, guk ez dugu erabakimenik, eta gure ekonomia arautu eta eragiteko tresnetan dugun gabeziaren tamaina erakusten du—.

Angela Merkel Alemaniako kantzilerrak, Europako Erreskate Funtsean diru gehiago jartzeko, Lehiakortasun Planari baldintza bat gehitu nahi izan dio: soldaten bilakaera produktibitateari lotzea. Helburua, enpresa gaizki doanean soldadak murrizteko malgutasuna txertatzea.

Negoiazio kolektiboaren bitartez finkatzen da soldata. 1980. urtea baino lehen, inflazio pasatuari (ex-post) lotzen zitzaion soldata igoera, gehi erosmen ahalmena handitzeko tartea. Ondoren, inflazio aurreikuspen ofizialagatik (ex-ante) ordetzatu zen formulaz. Sorturiko errenta edo aberastasuna, soldata, kapitalen ordainketa-aren eta zergen artean banatzen da. Soldatek pisua mantendu ahal izateko banaketa horretan, inflazioaren eta produktibitatearen igoerak jaso beharko lituzkete. Estatistikek erakusten dute, ordea, soldaten zatiak ia 10 puntutan egin duela behera tartaren banaketan, langile gehiago izanda ere. Ondorioz, soldatak produktibitatearen azpitik mugitu dira. Negoiazio kolektiboetan igoera motelak lortu direlako eta lan merkatuaren malgutzeko politika guztiek lan baldintzak okertu dituztelako.

Hortaz, badirudi ona dela soldaten bilakaeran produktibitate sartzeari, baina plazaratutako proposamenak inflazioaren eta produktibitatearen artean hautatzera fokatuta dago. Inflazioa kontuan ez hartzea, alegia.

Praktikan bi helburu bilatzen dira: konbenioetan dagoen errebisio klausula kentzea —orain aurreratutako inflazioa benetakoaren ezberdina denean, urte amaierako doikuntza egiten da— eta negoziatio kolektiboaren ereduaren erreformatzea, konbenio probintzialak eta sektorialak ahalutzeko eta enpresetakoak indartzeko. Enpresa txiki eta ertainetan, era isolatuan, langileen presio ahalmena murriztago delako.

Horixe izan daiteke benetako asmoa, enpresetan produktibitatea kalkulatzeko sindikatuak enpresako kutxa beltzaren tripa gardenki erakustera eraman beharko lukeelako. Finean enpresa bateko produktibitatea kalkulatzeko eztabaidagarria da oso, eta faktore askoren menpe dago, hala nola inbertsio erabakiak, produkzio antolaketa, lan harreman eta baldintzak, langileen motibazioa... Faktore horien guztien berri ematea, enpresariaren sukalde hertsian sindikatuak sartzeko suposatutako behar luke. Eta hori ez da enpresariaren gustuko.

Alemaniatik dator proposamena; ez osoa, ordea, ahazten baita bertako kogestioaren eredu. Langileek administrazio kontseiluetan parte hartzen dute. Bi mila langiletik gorako enpresetan langileek jarlekuaren ia erdiak betetzen dituzte. Gai nontzekoetan gutxienez jarlekuaren ia herena. Langileen ordezkariak informazioa eta parte-hartze eskubideak dituzte, eta gai sozialetan kudeaketa partekatua. Eskualdeko konbenio sektorialetan soldata bilakera hiru elementuren arabera finkatzen da: inflazio aurreikuspena, sektorearen hazkunde ekonomikoan partizipazioa (produktibitatea) eta birbanaketa osagaia, mozkin eta soldaten arteko erlazioa langileen aldean makurtzeko. Hemen faktore bakarraren arabera egin nahi da. Han informazio eguneratu zuzenarekin; hemen horrek ametsa dirudi.

Behin formula eraginkorretan berritzaileak izatera ausartuta, zergatik ez legez behartu enpresen jabeagoaren portzentaje esanguratsua hamarkada batzuen buruan progresiboki langileen esku izatea? CAFen, adibidez, kapital sozialaren %29,56a langileen esku dago, eta horrek langileen inplikazioa, emaitzei eta produktibitateari loturiko pizgarriak, atzerriko enpresa baten absortzioaren aurkako txertoa eta tokiko lanpostuak mantentzeko konpromisoa ahalbidertzen du.



Garoiako zentral nuklearra ixteko eskatzeko egindako elkarretaratzetako bat. JUANAN RUIZ/ ARGAZKI PRESS

Erretiro adinik gabe

Ekonomia Iraunkorraren Legean ez dute sartu zentral nuklearrak 40 urterekin ixteko agindua. Aldeko eta kontrako iritziak sortu ditu horrek.

Miren Garate

Energia hornidura segurua, arrazoizko prezioan eros daitekeena eta ingurumenari onorio larrik eragiten ez diona. Horiek izan daitezke Espainiako Gobernuak bultzatu beharreko energia ereduaren ezaugarrietako batzuk. Baldintza horiek betetzen dituen edo ez, hainbat iritzi daude. Espainiako Kongresuak hartutako erabaki batek berriro ere pil-pilean jarri du eztabaida.

Gaur egun, inon ez da zehazten zenbat urtean egon daitezkeen martxan zentral nuklearrak. Garoiakoak, adibidez, 42 urte daramatza. Alabaina, Espainiako Gobernuak hura 2013an ixtea erabaki zuenean, zentral nuklearrak 40 urteko bizitza eduki behar zutela esan zuen Jose Luis Rodríguez Zapatero Espainiako presidentek, eta legeak jaso behar zuela gehienezko muga hori.

Energia Iraunkorraren Legean sartu nahi izan du neurria. CiUk eta EAJk, ordea, zuzenketa bat adostu zuten senatuan, 40 urteetan aipamena kentzeko eskatzen

zuen. PSOEk berak ere babestu zuen ekimena, eta PPK ere bai. Azkenean, kongresuan eman diote oniritzia, aldeko 334 botorekin eta kontrako hamarrek.

Hauteskunde kanpainan, «gobernuko antinuklearrenena» dela esan zuen bere buruaz Zapaterok. Adierazpen haiek gogoan hartuta, kritika gogorak egin dizkiote gobernu sozialistari, nuklearrak jarrera aldatu duela eta. Ezet dio hark. «Gobernuak beti esan izan du 40 urtetik aurrera Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak duela azken hitza», adierazi du Miguel Sebastian Industria ministroak.

Zentral nuklearen segurtasun egoerari buruzko txostenak egiten ditu batzordeak. «Segurtasunari eta baldintza ekonomiko, sozial eta ingurumenari buruzko datuak kontuan hartuta, gobernuak erabaki behar du irekita mantendu edo ez, orain arte bezala», zehaztu du Sebastianek. Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluaren txostena kontrakoa bada, erabakia bete beharrekoa izango da, automatikoki itxiko da. Bestela, zentrala ustiatzeko ardura duen enpresak aukera

Zentral nuklearrak



izango du lizentzia luzatzea eskatzeko, eta uneen uneko gobernuak erabaki beharko du zer egin.

Garoiarekin zer?

«Gure gobernuak ez du erabakirik hartu beharko 2021era bitartean», esan du Industria ministroak eskuak garbitu nahirik. Espainian eta Herrialde Katalanetan zortzi zentral nuklear daude gaur egun. Hirugarren belaunaldikoak dira gehienak, eta 1980ko hamarkadan hasi ziren martxan. Bada, ordea, lehenagoko bat: Eus-

kal Herriak oso gertu dagoena, Garoiakoa.

2013an dago finkatuta itxiera urtea. Zer gertatuko den harekin? EAJren arabera, mantendu egingo da, legean espresuki hala adostu dutelako. CiUk kontrakoa dio. Espainiako Gobernuak ez du argi hitz egin. Rosa Aguilar Ingurumen ministroa bakarrik ausartu da Garoiaren gaineko erabakia hartuta dagoela esatera.

Bien bitartean, Nukleorrek, Garoi ustiatzen duen enpresak, bide judizialekin egin du ez ixteko eskaera. Ekonomia Iraunkorra-

ren Legean oinarrituta, badaude la horretarako aukerak dio, eta itxaropentsu dago. Jose Ramon Torralbo zuzendariaren adierazpenak bildu dira aurkeztutako helegitean. «Baldintzak muturre-raino betetzeaz gain, moderniza-

Zentral nuklear bakoitzak milioi bat eurotik gora irabazten du egunean

Kontsumitutako elektrizitatearen %20 zentral nuklearrak ekoiztuz zuten iaz

zioaren eta profesionalen prestakuntzaren aldeko apustua egin dugu, 2019a bitartean modu seguruan aritu ahal izateko». Torralbok, 2013an ixteko eskatzen duten dekretua indargabetzeko eskatu du, gutxienez 2019ra arte segitzeko.

AMAC Zentral Nuklearrak Eragindako Udalen Elkarteak ere txalotu du erabakia. «Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak esaten badu zentralak segurtasun osoz jarraitu dezakeela lanean, luzatu egin behar da lizentzia. Hori da gure jarrera». Inguruko herrietako langile askori ematen diete lana zentral nuklearrak, eta itxierak langabezia handia ekarriko duen beldur dira.

Ekologistak, haserre

Talde ekologistak Ekonomia Iraunkorreko Legean adostutako neurriaren guztiz aurka daude. Amigos de la Tierra, Ecologistas en Acción, Greenpeace, SEO/BirdLife eta WF elkarteek ohar bat ateratu dute, behingoz zentral nuklearen denak ixteko egutegi bat eskatuz. Enpresa nuklearen menpe jartzea leporatu diote Zapaterori. «Industria nuklearraren asmo bakarra bere irabazi ugariak mantentzea da. 1.000 Mw-ko zentral bakoitzak milioi euro baino gehiago irabazten ditu egunean». Gizartearen segurtasuna hori baino garrantzitsuagoa dela nabarmendu dute.

Gobernuak emandako datuen arabera, iaz Espainian kontsumitutako elektrizitatearen %20 zentral nuklearrak ekoiztu zuten. «Sinetsarazi nahi digute energia nuklearra ezinbestekoa dela, baina hori gezur hutsa da. 2009an, adibidez, kontsumitutako argindarraren %26 energia iturri berri- ztagarriek sortu zuten», adierazi du Greenpeacek.

Haren esanetan, benetako borondate politikoa egonez gero, posible da %100 berriztagarria den sistema elektrikoak lortzea hurrengo hamarkadetan. 2030erako energia nuklearrak eta ikatzik behar ez duen sistema lor daitekeela dio.

Ivan Santamaria

Urtarrilean ekin zion Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren gidaritzari Javier Ramosek. 2009. urtetik, Egailan sozietate publikoaren zuzendaria zen, eta, horren aurretik, Lan Merkatuaren Behatokiko arduraduna izan zen.

G Laster bi hilabete egingo ditu martxan Lanbidek. Azarorik?

E Proiektu konplexua da. Ez da erraza ezberdin antolatuta zeuden hiru erakunde integratzea, hor dauden pertsonekin. Hori bai, saiatu gara pertsona eta enpresei ematen zitzaizen arreta mailari eusten, administrazioen arteko eskualdatzearen ondorioak herritarrek jasan ez ditzaten.

G Zein ekarpen egingo dio Lanbidek aurretik zuen esperientziak zerbitzu berriari?

E INEM ohiak bulego egitura handiagoa zuen, eta prozesu eta ekintza administratibo oso zehatzak jarraitzen zituen. Lanbidek ez zuen hainbesteko zama administratiboa, eta horrek banan-banako arretan oinarritzeko aukera ematen zion, eredu freskoagoa zen. Balioa ematen ez duten tramiteak errazten saiatuko gara.

G Administrazio Kontseilua ere abian da, baina gehiengo sindikalak, —ELAk eta LABek— ez du parte hartuko. Horrek ondorioak izango ditu?

E Zerbitzua egituratzeak geure energia guztiak kontsumitzen ditu. Geure kezka zerbitzua ematea eta diseinatzea da. Arlo instituzionaleko eragileek hori errazten badigute, hobe. Gustatuko litzaidake denak egotea, baina ez dauden erabakia irizirik emango.

G Politika aktiboak jaso dira, baina ez pasiboak. Zerbitzuaren eragin-kortasuna baldintzatzen du?

E Joko arauak dira horiek, eta ez gaitu kezkatzen. Arduradun politikoei zuzendu beharko dute egoera hori, baina bien bitartean herritarren eragina izan ez dezan saiatu behar dugu. Langabezia daudenek ahalik eta koordinazio handiena eskatzen digute, eta horretan gaude.

G Noraino du autonomia Lanbidek nahi dituen enplegu politika aktiboak garatzeko? Espainiako Lan Ministerioaren ildo eta lehentasunei jarraitu beharko die?

E Enpleguan oinarritzeko arauak estatuak ezartzen ditu, baina besteek ez duten autonomia eta malgutasuna eskaintzen digu geure eskumen ereduak. Nahi ditugun politika aktiboak definitzeko aukera dugu. Politika horiek hiru ataletan bereizten baditugu —sustapena, bitartekaritza eta formazioa—, bakoitzari nahi adina pisu eman diezaiogeko, eta arlo bakoitzean nolako programak nahi ditugun geure kasa ezarri. Aldaketa ez da egun batetik bestera gertatuko, dena den.

G Noiz hasiko da Lanbide norabide propioa definitzen?



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Javier Ramos • Lanbideko zuzendaria

«INEMek ez zuen enplegua sortzen, eta Lanbidek ere ez»

Euskal Enplegu Zerbitzuaren helburu nagusia langabeen laneratzeko gaitasuna handitzea dela nabarmendu du Ramosek; politika aktiboak eta programa propioak definitzeko autonomia osoa izango dutela ziurtatu du, gainera.

E Lehen urteko lehenastuna martxan dagoen enplegu sistema ez gelditzea da. Lanbidek kanpo, lanean jarraitzen duten formakuntza zentroak, garapen agentziak eta udalerririk daude. Lanbidek bat-batean programa guztien diseinua eraldatzea erabakiko balu, denbora asko eskatuko luke, administrazioak araudien kontrola eskatzen duelako. Orain arte indarrean egondako programa batzuk luzatuko ditugu, eragile ugari ezin direlako zain egon, baina, aldi berean, urte amaieran edo 2012. urtean eragileek autonomiaz adosten ditzuten ildo berriak sartuko ditugu.

G Euskal enplegu sisteman dauden eragileak aipatu dituzu. Zentzurik ba al du hainbeste erakunde enplegu arloan aritzeak?

E Askok gaitasuna onartzen dugu guztiok. Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren azterketa batek ondorio bera ateratu zuen: asko gara, gaitasuna asko ematen ditugu, baina denak antzekoak. Eztabaida horrek inte-

resatu guztien parte-hartzea exijitzen du, eta behar diren legeak [Enpleguko eta Udalena] egokitu. Enplegu zerbitzua ez dago araudiak zuzentzeko, ordea.

«Pertsonen banan-banako arreta eta jarraipena asko zainduko ditu Lanbidek»

«Aldez aurretik zegoen errealtatea ez da batere aldatu lan erreformarekin»

G INEM ohiaren eredu oso kritikatu izan da. Azken finean, jendeak langabezia saria jasotzeko leihatilatza jo izan du, lana aurkitzeko itxaropen handirik gabe.

E Izen-emate soilarekin INEM ohiak pertsonari lana emango ziola sinesteak kalte itzela egin zuen. INEMek ez zuen lana sortzen ezta banatzen ere, eta horrek balio du Lanbiderentzat eta munduko beste edozein enplegu zerbitzuentzat. Jarduera produktiboa sortzen ditu lanpostuak, eta lan hori sortzen denerako langabezia daudenek ahalik eta gaitasun handienak izan ditzaten bideratu behar dira enplegu zerbitzuaren tresna guztiak.

G Enplegu zerbitzu publikoek laneratzeko bitartekaritzaren %2,5 inguru baino ez dute lortzen. Aldatuko da hori Lanbidearekin?

E Europako zerbitzu gehienek bitartekaritza ratio txikiak dituzte. Lana aurkitzeko moduak ere aldatu dira. Harreman pertsonalen garrantzia asko handitu da. Harreman sare ahalik eta zabalean bilatu behar duzu, lan merkatuaren erakuslehoan egoteko. Internetek aukera berriak zabaldu ditu, eta gero badira agentzia

pribatuak, aldi baterako lan enpresak edo zerbitzu publikoak. Ratioek ez dute neurtzen bitartekaritzaren kalitatea eta balioa. Lanbidek, berriz, pertsona zerbitzuak eta formazioa eskaintzen zizkien, lana bilatzeko aukera gehiago izateko. Inkesta guztien arabera, bezeroak eta enpresak oso gustura zeuden Lanbidek eskaintzen zuenarekin.

G Enpresek ez dituzte langileak bilatzen enplegu zerbitzu publikoetan?

E Enpresei geure ereduak ezagutarazi behar diegu, eurek eskatzen dutenarekin sintonian gaudela erakutsi. Baina trabak ere badira. Enpresa batek lanpostu zehatz baterako pertsona bat eskatuko balu, arazoa litzateke zerbitzuarentzat. Guk pertsona bakarra identifikatzen badugu, non geratzen da besteen lehiatzeko aukera? Zerbitzu publikoa gara, eta asko zaindu behar dugu hori. Badira hautagaitza prozesu osoa pertsona bakar bat geratu arte egin duten agentziak, baina guk badugu haiek ez dutena: hautagai zerrenda handia eta kualifikatua. Geuk enpresari bidaliko genioke, baina ezin dugu enpresari dagokion erabakia hartu.

G Laguntza sozialak kudeatuko ditu Lanbidek. Berritasun horretatik aparte, zertan ezberdinduko da aurreko zerbitzuetatik?

E Banan-banako arreta asko zaindu nahi dugu. Pertsonak eta enpresak datozenean ez dadila izan prozesu ia administratibo bat, bizia baizik. Ekintza administratibo hutsak erraztu, eta, horren ordez, pertsona bakoitzaren jarraipena bermatu. Horrekin batera, enpresei zerbitzuak eskaini.

G Krisi garaian mundu guztiak formazioa aipatzen du laneratzeko giltza moduan. Nola eragingo du Lanbidearen sorrera arlo horretan? Zer gertatuko da Hobetuz fundazioarekin?

E Formazioa baliogarria da, baina helburu zehatzak lortzeko egokitu eta diseinatu behar da. Eusko Jaurlaritzak formazioari buruzko eskumena jaso du baita ere, eta egokiena litzateke Hobetuz eta Lanbide batera aritzea, beste la prozesu batzuk errepikatu eta eraginkortasuna galduko delako. Hala ere, akordio hori lortzea gizarte eragileen eskuetan dago.

G Lanpostu galera amaitu dela dioten aurrekispenekin bat zator?

E Epe ertainera edo luzera begira egiten diren aurrekispunenak apustak dira, ezer baino gehiago. Nazioarteko, Europako eta hemengo aldagaiek diote hondoa jo dugula. Uda arteko hilabeteak onak izan ohi dira, baina bi urtez enplegu gutxi sortuko da.

G Lan erreforma ezer aldatu du lan merkatuan?

E Ez, ez dakit egindakoa aski izan zen edo ez, baina aurretik zegoen errealtatea ez da batere aldatu. Berdin jarraitzen du.

28 Lan eskaintza publikoa

Araba

Ordezko bake epailea, Donemiliagan

Deialdigilea: Donemiliagako Udala.

Baldintzak:

■ Ez da titulazio zehatzik eskatzen.

Edukia: Oposizio lehiaketa bidez, ordezkoko bake epailea hartzeko deialdia egin du Denomiliagako Udalak.

Epea: 2011-02-28.

Webgunea: http://www.alava.net/botha/Boletines/2011/013/2011_013_B.pdf

Iturria: 2011/01/31ko ALHAO 13. zenbakia.

Bizkaia

Hamasei gizarte langile, Bilbon

Deialdigilea: Bilboko Udala.

Baldintzak:

■ Gizarte lanetako soroslea edo gizarte lanetako diplomaduna izatea.

■ Euskarako hirugarren hizkuntza eskakizuna izatea, ezinbestekoa.

Edukia: oposizio lehiaketa libre bidez, hamasei gizarte langile hartzeko deialdia egin du Bilboko Udalak.

Epea: BOEn argitaratu eta hogeiguneko epean.

Informazioa: Bilboko Udaleko erregistro nagusian eta barrutiko udal zentroen erregistroetan.

Webgunea: www.bilbao.net

Iturria: www.lanbide.net

Telekomunikazioetan bi ingeniari, Bilbon

Deialdigilea: Bilboko Udala.

Baldintzak:

■ Telekomunikazioetan ingeniari titulua izatea.

■ Euskarako hirugarren hizkuntza eskakizuna izatea, ezinbestekoa.

Edukia: oposizio lehiaketa libre bidez, telekomunikazioetan bi ingeniari hartzeko deialdia egin du Bilboko Udalak.

Epea: BOEn argitaratu eta hogeiguneko epean.

Informazioa: Bilboko Udaleko erregistro nagusian eta barrutiko udal zentroen erregistroetan eta giza baliabidetako bulegoetan.

Webgunea: www.bilbao.net

Iturria: www.lanbide.net

Musika irasleak, Getxon

Deialdigilea: Getxoko Andres Isasi musika eskola.

Baldintzak:

■ Euskarako bigarren hizkuntza

eskakizuna izatea, ezinbestekoa.

Edukia: oposizio lehiaketa libre bidez, musika irasleak hartzeko deialdia egin du Getxoko Andres Isasi musika eskola. Hautatuei kontratu finkoa egingo diete.

Epea: BOEn deialdia argitaratu eta hogeiguneko epean.

Informazioa: Andres Isasi musika eskola. Merceditas, 6. Gtxo.

Iturria: BOE 38,14/02/11an, 15659. orrian.

Gipuzkoa

Atezain garbitzailea, Alegian

Deialdigilea: Alegiako Udala.

Baldintzak:

■ Euskarako bigarren hizkuntza eskakizuna izatea, ezinbestekoa.

Edukia: oposizio lehiaketa libre bidez, atezain eta garbitzaile lanak egingo dituen pertsona bat hartzeko deialdia egin du Alegiako Udalak.

Epea: BOEn argitaratu eta hogeiguneko epean.

Informazioa: Alegiako Udaleko erregistro nagusian.

Iturria: 2011-02-03ko BOG 22. zenbakia 37. orrialdea.

Kultura dinamizatzailea, Alegian

Deialdigilea: Alegiako Udala.

Baldintzak:

■ Euskarako hirugarren hizkuntza eskakizuna izatea, ezinbestekoa.

Edukia: oposizio lehiaketa libre bidez, kultura dinamizatzaile bat hartzeko deialdia egin du Alegiako Udalak.

Epea: BOEn argitaratu eta hogeiguneko epean.

Informazioa: Alegiako Udaleko erregistro nagusian.

Iturria: 2011-02-03ko BOG 22. zenbakia 20. orrialdea.

Kultura laguntzailea, Iruran

Deialdigilea: Irurako Udala.

Baldintzak:

■ Lehenengo mailako prestakuntza profesionala eskatzen da.

■ Euskarako hirugarren hizkuntza eskakizuna.

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, kultura laguntzaile bat hartzeko deialdia egin du Irurako Udalak. Hautatuari karrerako funtzionario kontratua egingo diote.

Epea: 2011-02-21.

Iturria: http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/ofertas_empleo/eu_3805/lan_esk_e.html

Euskara teknikaria, Iruran

Deialdigilea: Irurako Udala.

Baldintzak:

■ Diplomaduna edo Euskal Filogiologiako edo Itzulpenlitzaren eta Interpretazio lizentziaduna edo baliokideren batean hiru urte egin eta gauditu izana.

■ Euskarako laugarren hizkuntza eskakizuna izatea, ezinbestekoa.

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, euskara teknikari bat hartzeko deialdia egin du Irurako Udalak. Hautatuari karrerako funtzionario kontratua egingo diote.

Epea: 2011-02-21.

Iturria: http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/ofertas_empleo/eu_3805/lan_esk_e.html

Gizarte laguntzailea, Iruran

Deialdigilea: Irurako Udala.

Baldintzak:

■ Gizarte Laneko diplomaduna edo Gizarte Laguntzailea izatea eskatzen da.

■ Euskarako hirugarren hizkuntza eskakizuna izatea, ezinbestekoa.

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, gizarte laguntzaile bat hartzeko deialdia egin du Irurako Udalak. Hautatuari karrerako funtzionario kontratua egingo diote.

Epea: 2011-02-21.

Iturria: http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/ofertas_empleo/eu_3805/lan_esk_e.html

Dinamizatzaile soziokulturala, Iruran

Deialdigilea: Irurako Udala.

Baldintzak:

■ Unibertsitateko erdi mailako tituduna, diplomaduna edo baliokidea edo karrera lizentziadun batean hiru urte eginak izatea eskatzen da.

■ Euskarako laugarren hizkuntza eskakizuna.

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, dinamizatzaile soziokultural bat hartzeko deialdia egin du Irurako Udalak. Hautatuari karrerako funtzionario kontratua egingo diote.

Epea: 2011-02-21.

Iturria: http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/ofertas_empleo/eu_3805/lan_esk_e.html

Garbitzailea, Bidania-Goiatz

Deialdigilea: Bidania-Goiatzko Udala.

Baldintzak:

■ Eskola Ziertagiria edo haren pareko beste tituluren bat izatea.

■ Euskarako lehenengo hizkuntza eskakizuna.

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, udal bulegoak garbituko dituen pertsona bat hartzeko

deialdia egin du Udalak. Lanaldi erdiz jardun beharko du hautatuak.

Epea: 2011-02-28.

Informazioa: Bidania-Goiatzko Udala. Herriko plaza z/g. 20496 Bidania-Goiatz.

Telefonoa: 943-68 11 09

Faxa: 943-68 10 98

Webgunea: <http://www.gipuzkoa.net/>

<https://ssl4.gipuzkoa.net/eus-ker/gao/2010/12/15/e1014234.htm>

Iturria: 2010-12-15eko 238.

GAO, 201. orria.

Lapurdi

Igerilekurako soroslea, Baionan

Deialdigilea: Baionako Herriko Etxea.

Lanpostua: Baiona Gainetako

igerilekurako soroslea.

Baldintzak: Lurraldeko hezitzaile kargurako, B.E.E.S.A.N edo B.P.J.E.P.S tituluak beharko ditu, ur jardueretako espezialitatearekin.

Igerilekuen araudia ezagutu beharko du, eta igeri egiten irakasteko gaitasuna izan beharko du. Gainera, uretako soinketa jarduerak animatu beharko ditu. Biziberritzeko materialen ezagutza.

Epea: 2011-02-28.

Webgunea: www.ville-bayonne.fr

Eskabideak: eskutitza CV eta argazkia bidali honako helbidera: Baionako Auzapeza, Herriko Etxea 1, Leclerc mareaalaren hiribidea, 6004 Posta Kutxatila, 64109 Baiona.

Iturria: emploi.lagazettedescommunes.com

Eraikinen teknikaria, Miarritzen

Deialdigilea: Pirinio Atlantikoko Kontseilu Nagusia.

Honako eginbeharrak:

■ Zerbitzu arduradunaren agindupean, udal eraikinen instalazio teknikoak kudeaketaz arduratzea edo elkarte ekonomiko mistoei utzitako eraikinen jarraipena egitea.

■ Energiaren hornitze kontratuak jarraitu, antolatuta eta mantentze lanak jarraitzea.

Baldintzak:

■ BAC +2 urte eraikinen kudeaketa teknikoan.

■ Zorrotasuna, ekimena eta taldean lan egiteko gaitasuna.

■ Lan esperientzia ezinbestekoa.

Epea: 2011-02-28.

Webgunea: www.cg64.fr

Eskabideak: Argazkidun CV bidali helbide honetara: Miarritzeko alkate, Giza Baliabideak, 64202 Miarritze.

Iturria: <http://emploi.lagazettedescommunes.com>

Nafarroa

Nekazaritzan Ingeiari Teknikoa, Foru Administrazioan

Deialdigilea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Baldintzak:

■ Nekazaritzan Ingeiaria Teknikoa izatea edo haren pareko beste tituluren baten jabe izatea.

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, nekazaritzan ingeniari tekniko bat hartzeko deialdia egin du Nafarroako Unibertsitate Publikoak. Hautatuari karrerako funtzionario kontratua egingo diote.

Epea: 2011-03-10.

Webgunea: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2011/26/Anuncio-0/

Iturria: 2011-02-28ko NAO 26. zenbakia.

Administrari ofiziala, Etxaurin

Deialdigilea: Etxauriko Udala.

Baldintzak:

■ Goi mailako Batxilergo, bigarren graduako Lanbide Heziketa edo haien balio bereko titulua- ren jabe izatea.

■ B-2 mailaren parekoaren ziurtagiria izatea

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, administrazi ofizial bat hartzeko deialdia egin du Etxauriko Udalak. Hautatuari karrerako funtzionario kontratua egingo diote.

Epea: 2011-03-07

Webgunea: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2011/23/Anuncio-14/

Iturria: 2011-02-03ko NAO 23. zenbakia.

Bake epaile ordezkoko eta titularra, Longidan

Deialdigilea: Longidako Udala.

Baldintzak:

■ Ez da titulazio zehatzik eskatzen.

Edukia: Oposizio lehiaketa bidez, ordezkoko bake epailea eta bake epaile titularra hartzeko deialdia egin du Longidako Udalak.

Epea: 2011-02-24.

Webgunea: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2011/25/Anuncio-30/

Iturria: 2011-02-07ko NAO 25. zenbakia.

Ordezko bake epailea, Erriberagoitian

Deialdigilea: Erriberagoitiko Udala.

Baldintzak:

■ Ez da titulazio zehatzik eskatzen.

Edukia: Oposizio lehiaketa bidez, ordezkoko bake epailea eta bake epaile titularra hartzeko deialdia egin du Longidako Udalak.

Epea: 2011-02-24.

Webgunea: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2011/25/Anuncio-30/

Iturria: 2011-02-07ko NAO 25. zenbakia.

Edukia: Oposizio lehiaketa bidez, ordezkoko bake epailea hartzeko deialdia egin du Erribera-goitiko Udalak.

Epea: 2011-03-07.

Webgunea: http://www.alava.net/botha/Boletines/2011/015/2011_015_B.pdf
Iturria: 2011/02/04ko ALHAO 15. zenbakia.

Ordezko bake epailea, Azagran

Deialdigilea: Azagran Udalak.

Baldintzak:

■ Ez da titulazio zehatzik eskatzen.

Edukia: Oposizio lehiaketa bidez, ordezkoko bake epailea hartzeko deialdia egin du Azagran Udalak.

Epea: 2011-02-21.

Webgunea: http://www.nava.es/home_eu/Actualidad/BO/Boletines/2011/23/Anuncio-24/

Iturria: 2011/02/03ko NAO 23. zenbakia.

Ordezko bake epailea, Elorriagan

Deialdigilea: Elorriagako Udalak.

Baldintzak:

■ Ez da titulazio zehatzik eskatzen.

Edukia: Oposizio lehiaketa bidez, ordezkoko bake epailea hartzeko deialdia egin du Elorriagako Udalak.

Epea: 2011-02-21.

Webgunea: http://www.nava.es/home_eu/Actualidad/BO/Boletines/2011/23/Anuncio-42/

Iturria: 2011/02/03ko NAO 23. zenbakia.

Administrari laguntzailea, Erriberin

Deialdigilea: Nafarroako Foru Administrazioa.

Baldintzak:

■ Graduatu izatea, edo Lanbide Heziketako lehen graduako titulua edo haren baliokideren bat izatea.

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, Erriberirako administrari laguntzaile bat hartzeko deialdia egin du Nafarroako Foru Administrazioak. Hautatuari karre-rako funtzionario kontratua egingo diote.

Epea: 2011-03-07.

Iturria: http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/ofertas_empleo/eu_3805/lan_esk_e.html

Peoi gidaria, Mendialdea Mankomunitatean

Deialdigilea: Nafarroako Foru Administrazioa.

Baldintzak:

■ Eskola graduatuko edo lehen mailako lanbide heziketako titulua edukitzea.

■ Gidabaimena izatea eskatzen da, gutxienez C motakoa.

Edukia: Oposizio lehiaketa libre bidez, sei herri osatzen duten Mendialdea Mankomunitatean jarduteko peoi gidari bat hartzeko deialdia egin du Nafarroako Foru Administrazioak. Hautatuari karrerako funtzionario kontratua egingo diote.

Epea: 2011-02-23.

Iturria: http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/ofertas_empleo/eu_3805/lan_esk_e.html

Bekak

Euskara ikasteko bekak, Gasteizen

Deialdigilea: Gasteizko Udalak. Herriar Harremanen Saila. Euskara.

Baldintzak:

■ Bi programetan bete beharrekoak:

- 16 urte baino gehiago izatea. Behin 2010-2011ko ikasturtea hasi ondoren betetzen badira urteak, momentu horretatik aurrerakoari dagokion diru laguntza baino ezingo da jaso.

- Ikasturtea hasten den eguna baino urtebete lehenagotik eta ikastaroak dirauen bitartean Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea.

- HABEK onetsitako zentroetako batean matrikulatua egotea. - Aukeraturako ikastaroa (euskaltegiak edo autoikaskuntzak) HABEK homologatutakoa izatea.

- Ikasturteko azterketak gainditzea.

■ Programa bakoitzari dagozkion eskakizunak:

- Programa arrunta, herriarrei, oro har, zuzendutakoa; Laugarren oinarrian ezarritako diru-sarreraren muga ezingo dute gainditu eskatzaileek.

- Alde batetik, gurasoei zuzendutako berariazko programa; bestetik aisialdiko begirale eta eskola kiroleko entrenatzaile edo begirale, edo horretarako ikasketak egiten ari direnei zuzendutakoa.

■ Eskakizun hauetakoren bat bete beharko dute eskatzaileek: - 2003tik aurrera (urte hori barne) jaiotako haur baten aita, ama edo tutore izatea.

- 2010-2011ko ikasturtean aisialdiko begirale, edo eskola kiroleko entrenatzaile edo begirale gisa lan egitea.

- Aipaturako titulazioetako ikasketak burutzen aritzea 2010-2011ko ikasturtean.

Edukia: 2010-2011ko ikasturtean euskara ikasteko laguntzak ematea. 2010eko uztailetik 2011ko ekainera bitartean egiten diren ikastaroak finantzatzen laguntzeko emango dira diru laguntzak.

Eskabideak aurkeztea: Espainia plazako herritarrei laguntzeko bulegoan, baita Ariznabarra-ko kiroldegikoan eta Abetxuko, Aldabe, Arriaga, Pilar, Europa, Hegoalde, Iparralde, Judimendi eta Lakuako gizarte etxeetako-etan ere, banatuko den inprimakian formulatuko dira eskabideak.

Epea: 2011-07-29.

Informazioa: Gasteizko Udalak. Herriar Harremanen Saila. Euskara Zerbitzua Santa Maria, 11 - Etxanobetarren Etxea. 01001 Gasteiz.

Telefonoa: 945-16 15 22

Iturria: 2010-07-28ko 84. ALHAO, 9.120. orria. O, 1112 orria.

Step Beyond mugikortasun beka

Deialdigilea: European Cultural Foundation.

Parte-hartzaileak: artistek, kulturaren alorreko langileek, kulturaren aldeko aktibistek, arte kazetariak eta kultura ikerlariak parte har dezakete. Eskeraer indibidualki nahiz taldeka aurkezteko aukera dago.

Edukia: bi bidaia mota laguntzen ditu programa honek. Horietan denetan, kulturaren munduko langile eta artista gazteak motibatu nahi dituzte, Europako Batasuneko estatuen eta oraindik kide ez diren estatuen arteko harremanak estutzea du helburu.

a) Kooperazio/kolaborazio bidaia: beste estatuen bateko kultura adituren batekin proiektu artistiko eta kultural kolaboratiboa prestatzeko.

b) Harremanak egiteko bidaia: norberaren lanarekin harremanetan dauden baina ezagunak ez dituen eremuak esploratzeko: bilerak, jardunaldiak, nazioarteko mintegiak...

Epea: Deialdiak ez du epe mugaturik. Eskeraer proiektua hasi baino gutxienez zortzi aste lehenago egin behar dira, horrela guztia ongi izazpidetu ahal izateko.

Harremanetarako: Josephine Hartmann, stepbeyond@eurocult.org Sofia Felix, sfelix@eurocult.org
Iturria: www.gipuzkoangazte.info

Praktikak Europako enpresetan egiteko Erasmus bekak

Deialdigilea: Confebask eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Edukia: Confebaskek eta Euskal Herriko Unibertsitateak *Europar Erasmus 2010* proiektu jarri dute abian 2010-2011ko ikasturterako. Hain zuzen, EHUko ikasleei laguntzak emateko proiektua da, ikasturte honetan Europako zeinahi herrialdetako enpresatan praktikak egiteko.

Baldintzak:

■ 2010-2011ko ikasturtean EHUko zeinahi fakultetetan matrikula eginda izatea, ahal dela tituluko azkeneko ikasturteetan; eta bidaiatzeko denbora izatea.

■ Espainiako edo Europako herrialderen bateko herritartasuna izatea edo egoitza baimena edukitzea.

■ Ikasturte honetan bertan Erasmus Bekaren onuradunak izanez gero, praktiketarako beka hau ere eskuratu ahal izango dute, baina ezingo dituzte bi bekak aldi berean egin.

■ Beharrezkoa da Nazioarteko Harremanetarako Koordinatzaileak egonaldia onartzea; izan ere, egindako praktikak onartu beharko ditu ikastegiak (ECTS kredituen bitartez). ■ Praktika denboraldia ez bada goi-ikaslearen curriculumaren baitan, jatorrizko unibertsitateak praktika denboraldi hori onartu egin beharko dio, gutxienez, Tituluaren Europako Gehigarriaren bitartez; edo, bestela, ikaslearen ikasketak egiaztagiri pertsonalean jasota.

Epea: 2011-06-01.

Webgunea:

www.confebask.es
Helbide elektronikoa: becas@confebask.es
Telefonoa: 94-402 13 31
Iturria: www.gipuzkoangazte.info

Giza baliabideen arloko lanbide praktikak, Agurainen

Deialdigilea: Novia Salcedo Fundazioa.

Baldintzak:

■ 32 urtetik beherako izatea.

■ Langabezian egotea.

■ Lan Harremanetako diplomaduna, Psikologiako lizentziaduna edo Lan Zientzietako lizentziaduna izatea.

■ Hizkuntzak: ingelesa eta euskara jakitea.

■ Office ezagutzak izatea, erabiltzaile mailan.

Iraupena:

■ Prestakuntza teorikoa: 50-65 ordu.

■ Praktikak: 12 hilabeteko egonaldia enpresan.

Dirua: 8.400,00 euro.

Edukia: Agurainen giza baliabideetako eta lan harremanetako lanbide praktikak egiteko deialdia egin du Novia Salcedo Fundazioa.

Epea: Epe mugagabea, lanpostua bete arte

Informazioa: Novia Salcedo Fundazioa, Iparragirre 9, 1. Juan de Ajuriaguerra izkina. 48009 Bilbo.

Telefonoa: 94-423 04 32

Iturria: posta elektronikoa

Erosketa eta kudeaketa sistema integratuen arloko lanbide praktikak, Agurainen

Deialdigilea: Novia Salcedo Fundazioa.

Baldintzak:

■ 32 urtetik beherako izatea.

■ Langabezian egotea.

■ Ingeniari tekniko edota Industria Antolakuntzako ingeniaria izatea.

■ Ingelesa eta euskara jakitea.

Iraupena:

■ Prestakuntza teorikoa: 50-65 ordu.

■ Praktikak: 12 hilabeteko egonaldia enpresan.

Dirua: 8.400 euro.

Edukia: Agurainen erosketa eta kudeaketa sistema integratuen arloko lanbide praktikak egiteko deialdia egin du Novia Salcedo Fundazioak.

Epea: Epe mugagabea, lanpostua bete arte

Informazioa: Novia Salcedo Fundazioa, Iparragirre 9, 1. Juan de Ajuriaguerra izkina. 48009 Bilbo.

Telefonoa: 94-423 04 32

Iturria: posta elektronikoa

Euskara ikasteko diru laguntzak, Donostian

Deialdigilea: Donostiako Udalak.

Baldintzak:

■ 16 urtetik gorakoa izatea, ezin bestekoa.

■ Donostian erroldatuta egotea edo egoitza soziala Donostian duen enpresa batean lan egitea ezinbestekoa.

■ Euskaltegi homologatu batean matrikulatzea.

■ Diru laguntza eskabidea bete eta dokumentazioarekin batera Donostiako Euskararen Udal Patronatuan aurkezte.

■ Gutxienez urrats bat gainditzea.

■ %85etik gorako asistentzia.

Epeak:

■ Otsailaren hasten diren ikastaroak: 2011ko otsailaren 1etik 28ra.

■ Barnetegiak, autoikasketa, xede berezietakoak edota udakoak: ikastaroak hasi ondoko bi asteren buruan

Informaziorako telefonoa:

943-48 37 50 (09:00-14:00)

Iturria: Donostiako Udalak.

HORI-HORI S.A. ITZULPEN ENPRESAK, EUSKARA ITZULTZAILEAK BEHAR DITU, ITZULPENGINTZAKO KARRERAKOAK EDO MASTERRAK. INTERESATUOK HELBIDE HONETARA BIDALI CURRICULUMAK. NAHITAEZKOA DA ESPERIENTZIA IZATEA.

HORI-HORI S.A.
 EREF.: EUSKARA ITZULTZAILEA

LEDESMA, 6-4. ESK.
 48001 BILBO

Defizitari irribarrerik ez

2012rako aurrekontu proposamena aurkeztu berri du Obamak; lehiakortasuna sustatzen ez dute sail guztietan murrizketak egin nahi ditu.

Aitziber Arzallus

Astelehenean, San Valentin egunez, senarrarekin hamazortzi urtez ezkontuta egoteko sekretua zein zen galdetu zioten Michelle Obamari. Eta hark, «elkarrekin barre egitea», erantzun zuen, irribarrez. Horrela esanda, ezkon-bizitzak ez dirudi horren zaila; obamatarrean, behintzat, irribarre batekin guztia konpon dezaketela dirudiela. Baina, etxean horren emaitza onak ematen dizkion formulak apenas balio dion handik kanpo Barack Obama AEBetako presidenteari. Errepublikanoei gutxienez, irribarre bat baino zerbaite gehiago eskaini beharko die 2012rako prestatu duen aurrekontu proposamena irentsiko badute. Are gehiago, oraindik 2011rako aurrekontuak onartu gabe dituztela jakinda.

AEBetako presidentek joan den astelehenean Baltimoreko institutu batera egindako bisita aprobetxatu zuen, datorren urterako aurrekontu proposamena aurkezteko. Eta agertokia ikastetxe bat izatea ez zen kasualitatea, hezkuntza izango baita aurreko urteetako aurrekontuari eutsiko dion sail bakanetako. Izan ere, Obamak herrialdeko kontuak orekatzin hasia erabaki du, luzera begira defizita murrizteko konpromiso irmoa hartu du, eta 2012ko aurrekontuak izango dira horretarako lehen urratsa. «Gobernuak duen gaitasunaren arabera bizitzen hasi behar du, hori baita gure etorkizunean inbertitzeko daukadun modu bakarra. Dirua xahutzeari utzi, eta soilik bizitzeko ezinbestekoak zaizkigun inbertsioak eginda lortuko dugu hori». Gerrikoa estutzeko moda AEBetara ere iritsi da, beraz.

2012rako 3,73 bilioi dolarreko aurrekontua —2,7 bilioi euro— prestatu du Obamak. Herrialdeak inoizko defizit handiena pila-tuko du aurtan, 1,65 bilioi dolarrekoa edo barne produktu gordinaren %11 adinakoa. Obamaren proposamena onartzera, hurrengo urtean 1,1 bilioi euro murriztuko litzate defizit hori, BPGaren %7aren parera arte, eta 2015ean BPGaren %3,2ren pare-

koa izango dela uste du. Neurriak, ordea, hamar urterako lirateke.

Obamak garbi du gastu publiko murriztea dela bidea, «baina herrialdearen lehiakortasuna kolokan jarri gabe». Hau da, sail guztien aurrekontua murriztuko duela, ekonomiaren lehiakortasuna sustatzen dutenena izan ezik. Eta presidentearen irudiko, hezkuntza gain, azpiegiturak, ikerketa eta energia berriak dira inbertsioari eutsi beharreko sail horiek. Kontrara, orain arte gogor defendatu dituen gizarte laguntzetako batzuk bertan behera utziko dituela aurreratu du AEBetako presidentek, esate baterako, argindarra ordaintzeko familia behartsuenei ematen zizkienak eta gizarte laguntzailei ematen zizkienak, ez baitute lehiakortasuna laguntzen.



Dirua xahutzeari utzi, eta bizitzeko ezinbestekoak zaizkigun inbertsioak soilik egingo ditugu»

BARACK OBAMA
AEBetako presidentea

Urte askoan lehenengoz, defentsarako aurrekontua murriztea proposatu du Obamak, %5 datorren urtean. Hori, Iraken dituen soldatuak etxeratzeak ahalbidetuko du, hein batean. Afganistango gerrara 100.000 milioi dolar joango lirateke, eta Pentagonoak aurreko urtean baino 78.000 milioi dolar gutxiago jasoko litzuzke. 200 programa federale-tan ere murrizketak proposatu ditu.

Espainiarena halako bost

Datorren urterako aurrekontu proposamena osorik hartuta, AEBen gastua Espainiarena halako bost litzateke, edo Alemaniarena eta Frantziarena batera baino handiagoa, edo Txinaren gastuaren hirukoitza baino gehiago. AEBen defizita, berriz, herrialde horiek guztiek dutena baino hamar aldiz handiagoa da.

Dena dela, Obamak maitemin duen egunean aurkeztutakoa gehiago da intentzioen adierazpen bat, benetako aurrekontu proposamen bat baino, jakina



Barack Obama AEBetako presidentea, astelehenean. JIM LO SCALZO/ EFE

baita Kongresuak proposamen horren aurka bozkatuko duela. 2011rako aurrekontuekin gertatu dena ikusi besterik ez dago. Joan den urrira arte, Senatuko eta Ordezkarien Ganberako gehiengoak demokratik zuten, eta, hala ere, ez ziren gai izan aurtengo aurrekontuak aurrera ateratzeko. Beraz, orain gehiengorik ez duela, pentsa liteke zer gertatuko den datorren urterako proposamenarekin.

Aurtan, AEBetako Gobernu larrialdietarako araudi batean oinarrituta ari da gastuak egiten. Araudi hori datorren hilean berritu beharko dute Kongresuan, eta horretarako errepublikanoekin ados jartzea lortu beharko dute demokratik. Haiek, ordea, 2011rako aurrekontu proiektuan murrizketak egin nahi dute lehendabizi, eta diote hori lortutakoan hasiko

direla 2012rako proposamenaren inguruan negoziatzen.

Argi dago negoziazioak zailak izango direla. Baina, dena ez dago galduta. Izan ere, bai errepublikanoek eta bai demokratik uste dute helburua herrialdearen defizita murriztea dela; eta horretarako bidea gobernuak gutxiago gastatzea dela ere guztiek uste dute. Gastuak nondik murriztu, hori da desadostasunak sortzen dituen puntua.

Defentsako gastuan eta gizarte programetan —osasun laguntzako Medicare, pobreak laguntzeko Medicaid eta Gizarte Segurantzza— murrizketarik ez dutela onartuko diote errepublikanoek; aurrekontu osoaren %60 baino gehiago hartzen dute bi atal horiek, eta zergak igotzerik ere ez dute nahi. Haien proposamena da murrizketak nazioarteko laguntzan egitea; 61.000

Aurreikuspenak

Langabezia

■ **%8,6ko tasa.** Enplegua sortzen hasi arte krisia gainditu dela esaterik ez dago; hori diote adituek. Obamak, ordea, ez dio aparteko garrantzirik eman gaiari, langabe kopurua pixkanaka murrizten joango dela uste baitu. 2010 %9,6ko tasarekin amaitu zuten AEBek, 2011n %9,3ra jaitsiko dela uste du presidentek, eta 2012an, %8,6ra.

Defentsa

■ **Aurrekontuan murrizketa.** Sail garrantzitsu guztien aurrekontuak murriztea proposatu du Obamak, eta Defentsa ez da salbuespena izango. 2012an %5 diru gutxiago bideratu nahi du sail horretara, eta, hein batean, Iraketik soldaduek erretiratzeko ahalbidetuko du hori.

2017

■ **Ekonomia bere onera.** Ekonomia pixkanaka sustapertuz joatea beharrezkoa izango da Obamaren asmoak egoki betetzeko. Haren irudiko, 2017rako krisiaren arrastorik ez dute izango hango ekonomiek. Analista gehienek bestelako ustea dute; krisiak betirako arrastorak utziko dituela. Gastu publikoa murrizteko neurriak, gainera, moteldu egindo dute hazkundea. 2011n AEBetako ekonomia %2,7 haziko dela uste dute; 2013an %3,6.

milioi dolar gutxiago bideratzea nahi dute, Nazio Batuen Erakundeari dirurik ez emanda, besteren artean. Horrez gain, estatuen agentzia batzuen aurrekontuak txikitzea proposatu dute, NASArena eta elikagaiak eta botikak administratzen dituen agentziarena, besteak beste. Gizarte plan batzuetan murrizketak egitea ere nahi dute, baliabiderik ez duten umei eskolatzeko ematen dizkietenetan, esaterako. Etxe Zuriarentzat, berriz, puntu hori ez da negoziagarria.

Obamak elkarrenerako deia egin die demokratik zein errepublikarrei, aurrekontu proiektu txukun bat hitzartzeko guztien ahalegina beharko dutelako. Negoziazioek, ordea, luze jotzeko itxura dute. Datozen aste eta hilabeteetan emango dute zere-sanik.



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



Enplegu eta
prestatuntzarako
inFormazio leihoa Euskadin.
Publikoa, doan eta
kalitatezkoa. Lanari buruzko
inFormazio guztia zure esku.

Servicios a las empresas

1 TÉCNICA CONSULTORA O TÉCNICO CONSULTOR MATRIX ONE REF.: 162011001110

Para empresa ubicada en VITORIA-GASTEIZ-ARABA. Experiencia de al menos 3 meses en el puesto. Desarrollo de tareas: desarrollo de un proyecto de implantación de nueva tecnología para realizar soporte y consultoría. Conocimientos de ERP (paquetes integrados). Incorporación inmediata. Contrato laboral temporal con posibilidad de prórroga. Retribución a convenir con la empresa.

1 ENCARGADA O ENCARGADO DE OBRA DE SEÑALIZACIÓN DE CARRETERAS REF.: 162011001120

Para empresa ubicada en ARRIGORRIAGA-BIZKAIA. Experiencia de al menos 5 años en el puesto. Desarrollo de tareas: replanteo, ejecución y control de rentabilidad, supervisión de tiempos, materiales y calidad de ejecución y gestión del personal de los distintos equipos y sus tareas. Permiso de conducir B1. Contrato laboral temporal con posibilidad de indefinido. Retribución a convenir con la empresa.

1 PROGRAMADORA O PROGRAMADOR LOTUS NOTES DOMINO REF.: 162011001222

Para empresa ubicada en BILBAO-BIZKAIA. Experiencia de al menos 1 año en el puesto. Desarrollo de tareas: análisis, diseño, programación, formación y administración en entornos LOTUS NOTES. Altos conocimientos del entorno LOTUS NOTES. Contrato laboral temporal con posibilidad de indefinido. Retribución a convenir con la empresa.

1 CHAPISTA PINTORA O PINTOR DE AUTOMOCIÓN OFICIALA U OFICIAL DE PRIMERA REF.: 162011001113

Para empresa ubicada en ZAMUDIO-BIZKAIA. Experiencia de al menos 3 meses en el puesto. Permiso de conducir B1. Jornada de 8:30 a 13:00 h, y de 15:00 a 18:30 h, de lunes a viernes. Incorporación inmediata. Contrato laboral temporal con posibilidad de indefinido. Retribución a convenir con la empresa.

1 TRADUCTORA O TRADUCTOR DE ALEMÁN-CASTELLANO REF.: 162011001132

Para empresa ubicada en GATIKA-BIZKAIA. Formación de CFGS o CFGM en metal o ingeniería técnica industrial especialidad en mecánica. Experiencia en el puesto a valorar. Desarrollo de tareas: traducción tanto en Alemania como en la empresa. Altos conocimientos de alemán. Altos conocimientos de español. Movilidad geográfica a valorar. Horario flexible. Contrato laboral temporal con posibilidad de indefinido. Retribución a convenir con la empresa.

COMERCIAL TÉCNICA O TÉCNICO REF.: 162011001166

Para empresa ubicada en IRUN-GIPUZKOA. Formación técnica. Experiencia en venta de productos de contenido tecnológico. Desarrollo de tareas: venta de material hidráulico en el País Vasco y Aragón. Permiso de conducir B1. Existe la opción de que la empresa ponga coche. Contrato laboral temporal con posibilidad de indefinido. Retribución a convenir con la empresa.

2 GESTORAS O GESTORES DE PROYECTOS DE TROQUERÍA REF.: 162011001183

Para empresa ubicada en IGORRE-BIZKAIA. Formación de técnico/a superior en desarrollo de proyectos mecánicos o ingeniería técnica industrial especialidad en mecánica. Desarrollo de tareas: gestionar los proyectos de la empresa con los clientes en plazo y calidad, esto supone, movilizar los medios internos y ser el referente del cliente. Altos conocimientos de inglés. Altos conocimientos de alemán o francés. Conocimientos de euskera a valorar. Jornada completa de 8:00 a 17:30 h. Contrato laboral temporal con posibilidad de prórroga. Retribución a convenir con la empresa.

1 OPERARIA U OPERARIO DE TALLER REF.: 162011001277

Para empresa ubicada en ELGOIBAR-GIPUZKOA. Residencia en la zona. Formación de CFGM en mecanizado o relacionado finalizado recientemente (en los años 2009, 2010 o 2011). Experiencia de al menos 1 año en el puesto. Conocimientos de roscas e hidráulica. Permiso de conducir B1. Jornada completa. Incorporación inmediata. Contrato laboral temporal con posibilidad de prórroga. Retribución a convenir con la empresa.

1 ANALISTA PROGRAMADORA O PROGRAMADOR JAVA-J2EE REF.: 162011001089

Para empresa ubicada en ERANDIO-BIZKAIA. Residencia en la comarca. Formación a nivel de licenciatura. Experiencia de al menos 4 años en el puesto. Desarrollo de tareas: análisis y desarrollo avanzado de aplicaciones en proyectos con tecnología JAVA, J2EE, JAVABEANS, y Bases de datos ORACLE, con capacidad para interactuar con personas usuarias finales y trabajar en equipo. Jornada completa, los viernes y en verano jornada intensiva. Incorporación inmediata. Contrato laboral temporal con posibilidad de indefinido. Retribución a convenir con la empresa.

Transporte y logística

1 JEFA O JEFE DE TRÁFICO REF.: 162011001067

Para empresa ubicada en IRUN-GIPUZKOA. Residencia en la comarca. Formación a nivel de licenciatura. Experiencia de al menos 5 años en el puesto. Desarrollo de tareas: dirigir, organizar y llevar las labores de todos los operativos de tráfico y de sus respectivas líneas. Conocimientos de inglés. Conocimientos de informática. Disponibilidad para viajar. Conocimientos de alemán y francés a valorar. Incorporación inmediata. Contrato laboral temporal con posibilidad de prórroga. Retribución a convenir con la empresa.

Servicios a la comunidad y personales

1 PELUQUERA O PELUQUERO REF.: 162011001057

Para empresa ubicada en DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN-GIPUZKOA. Experiencia acreditada en el puesto. Altos conocimientos de estética. Altos conocimientos del corte, secador y color. Disponibilidad para trabajar media jornada por las tardes. Contrato laboral temporal con posibilidad de prórroga. Retribución a convenir con la empresa.

11 eskaintza hauek gure web orrian argitaratzen diren
1.446 eskeintzen selektzio bat dira.

Lanbide.net-en
argitaratutako eskaintzaren
batean interesatuta
bazaude,
901 222 901 edo 945 160 600
telefonoetara deitu, zure NAN
zenbakia eta Lan Eskaeraren
Alta eta Berritze
Dokumentuan (LEABD) ageri
den marka emanez.

ENPRESA bazara eta zure
eskain-tzak guk kudeatzea nahi
baduzu, 901 222 901 edo 945 160
600 telefonoetara dei
dezakezu.



INTERNETEN: LANBIDE.NET-ETIK HAU ESKAINTZEN DITU:

LAN BILA NABIL

- > Lan-eskaintzak
- > Enplegu-eskaintza publikoa
- > Europako Enpleguaren Sarea

PRESTAKUNTZA

- > Lanbide ikastaroak
- > Prestakuntza-eskaintza
- > Prestakuntza-zentroak

ORIENTAZIOA

- > Orientazio-zerbitzua eta zentro laguntzaileak
- > Enplegua bilatzeko teknikak eta erremintak
- > Enpresen datu-baseak

ZURE LANBIDEA

- > Zure lanbideari buruzko informazioa, jarduerak sektoreen eta ikasketen arabera.
- > Zure lan-merkatua
- > Prestakuntza / Lan-eskaintzak

AUTOENPLEGUA

- > Enpresa sortzeko gogoeta
- > Enpresak sortzeko laguntzak
- > On-line aholkularitza

EN INTERNET: LANBIDE.NET TE OFERECE:

BUSCO TRABAJO

- > Ofertas de trabajo
- > Oferta pública de empleo
- > Red europea de empleo

FORMACIÓN

- > Cursos de Lanbide
- > Oferta formativa
- > Centros de formación

ORIENTACIÓN

- > Servicio de orientación y centros colaboradores
- > Técnicas y herramientas de búsqueda de empleo
- > Bases de datos de empresas

TU PROFESIÓN

- > Información sobre tu profesión por sectores de actividad y por estudios.
- > Su mercado laboral
- > Formación / Ofertas de empleo

AUTOEMPLEO

- > Reflexiones para crear una empresa
- > Ayudas a la creación de empresas
- > Asesoramiento on-line



Lanbideren bulego eta zentro sarean
Oficinas Lanbide y red de centros

901 222 901 / 945 160 600 / www.lanbide.net

Topoa zuria izango da

Itxura aldatuko du EuskoTrenak. Zaharkituta geratu dira gaur egun zerbitzua ematen duten trenak. Haien ordeztu, 30 berri jarriko ditu.

Miren Garate

Heldulekuak ez daude goitik behera bertikalean, bihurtune moduko formarekin baizik. Horrela, zutik doazen bidaiari guztiek ondo heldu diezaiokete barrari. CAFek EuskoTrenentzat egindako 900 serieko trenaren xehetasunetako bat da. Prest dago jada aurrenekoa, eta segurtasun frogen faseari ekingo dio orain, hilabete batzuk barru zirkulatzen hasteko.

Gaur egun zerbitzua ematen duten trenak ere CAFek egindakoak dira. 3.500 seriekoak dira hamabost, eta Beasaingo enpresak General Electric taldearekin batera diseinatu eta eraiki zituen, 1977tik 1978ra bitartean. 200 seriekoak dira besteak, eta horiek CAF, Babcock & Wilcox eta Westinghouse enpresen artean egin zituzten. 1985ean hasi ziren zirkulatzen. 35 urte daramatzate, beraz, errailen gainean bagoi urdineko trenak. Zaharkituta geratu direla iritzita, pixkana aldatzen joatea erabaki du EuskoTrenak. 201 milioiko inbertsioa egin eta 30 tren berri egiteko agindu zion CAFi.

Aurreneko hiruak amaituta daude, eta asteazkenean egin zuten modelo berriaren aurkezpena Beasainen bertan. Inaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuak, Jokin Cruz EuskoTrene-

hutsik ibiliko dira trenak, ondo daudela egiaztatzeko. Lehen unitateek izango dute froga faserik luzeena, eta, tren berriak jaso ahal, laburtu egingo da segurtasunaldia.

Metroko trenak

Nondik hasi konpainiaren itxuraldaketa? Lasarte eta Hendaia arteko zerbitzutik, *Topo* izenez ezagutzen den lineatik. Arriolak eman zuen azalpena: «EuskoTrenen zerbitzu guztien artean erabiltzaile gehien zati horrek dituelako, eta Donostia aldeko metroaren bizkarrezurra gune hori delako». 30 trenetatik hamahiru izango dira Gipuzkoa eta Lapurdi lotzen dituen zerbitzurako. Hain zuzen, CAF egiten ari den tren sorta hori ibiliko da balizko Donostia aldeko metroan. Donostia eta Bilboko bidea egiten duten hainbat ere erretiratu nahi ditu EuskoTrenak, eta gainerakoak beharren arabera joango direla aldatzen adierazi du sailburuak.

Lau bagoiko trenak dira, guztiak berdinak, 214 bidaiari garraia ditzakete eta orduko



Heldulekuak ez daude bertikalean, denek hobeto heltzeko moduan baizik. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

ehun kilometro abiadura harraipatzen dute. Arriolaren esanetan, ibilgailu berriek «abantailak bakarrik» dituzte, tren garraio zerbitzuaren «kalitatea eta segurtasuna» hobetzeko balioko dutelako.

Anticlimber izeneko sistema da segurtasunari dagokion berritasunetako bat. «Sistema horrek deformazioak bereganatzen ditu, eta, istripuren bat izanez gero, bagoiak bata bestearen gainean jarzea eragozten du», adierazi du Jaurilaritzak.

Arizkorreta CAFeko kontseilari nagusiak trenen telekomunikazio sistema nabarmendu du. «Orain artean 25 herrialdetarako egin ditugun trenen artean,

bakar batek ere ez du hain sistema modernorik izan».

Oztoporik ez barruan

Miramonen diseinatu dute, Traintic enpresan. 900 serieko trenak sarrerako ateetan arrapala erdi automatikoak dituzte integratuak, itsuentzako soinu berritasunetan azken teknologia eta entzumen arazoak dituztenentzako argi seinaleak. Ibilgailuen barnealdea ere oztoporik gabe dago eginda, mugikortasuna errazteko. Makinistaren lana ere erraztu nahi izan dute. «Ikusmen baldintza antropometrikoa eta iskiatikoa ditu, gidariari ahalik eta erosotasunik handiena emateko», esan du Arriolak.

Zenbakia

201

■ **Inbertsioa.** 201 milioi inbertituko ditu Eusko Trenak 30 trenak egiteko.

■ **Ezaugarriak.** Lau bagoiko trenak dira, 214 bidaiari eraman ditzakete eserita eta orduko ehun kilometroko abiadura hartzen dute.



Tren berriaren aurkezpena Beasainen egin zuten, asteazkenean; CAF, EuskoTren eta Jaurlaritzako ordezkariak han izan ziren. ANDONI CANELLADA / ARP



Orain arte egin ditugun trenetatik, bakar batek ere ez du hain sistema modernorik izan»

ANDRES ARIZKORRETA
CAFeko kontseilari ordezkaria

ko kontseilari ordezkariak eta Andres Arizkorreta CAFeko kontseilari ordezkariak hartu zuten parte ekitaldian.

EuskoTrenak Durangon duen mantenu tailerrera eramatea izango da hurrengo pausoa. Hiru hilabeteko froga aldia izango du han, balazta, traxzioa, segurtasuna, komunikazioa eta gainerako piezak aztertzeko. Hura gainditutakoan, simulazio faseari ekingo diote. Hau da, hainbat hilabete